# Goienkaria

2007ko ekainaren 8a > Egubakoitza > VII. urtea > 291. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Osasuna ez da lortzen diziplina apur batekin ez bada; landu beharra dago"

**Antonio Palomar**
Medikua > 09


**G2a** Gay, lesbiana eta transexualak zineman > 43-44

**ARANSGI ELKARTEA** Entzumen arazoak dituztenen arazo handiena informazio falta da > 02-03

**ESKORIATZA** Herriko hildako mendizaleen omenezko martxa domekan > 34

**KILOMETROAK 07** Gaur pilotalekuan egingo duten jaialdian aurkeztuko dute kantua > 44


**TURISMOA** > GAUR INAUGURATU DUTE ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBAK PROIEKTU TURISTIKOA

# Bihartik aurrera bisitariendako zabalik Oñatiko Arrikrutz koba

**IA 500 METRO** Bisitariendako ia 500 metroko ibilbidea egokitu dute, atzeragarritasuna kontuan izanda

**IBILBIDEA** Bederatzi interes gune ditu eta bakoitzean informazioa jasoko du bisitariak, bost hizkuntzatan

**12 URTE** Orain dela 12 urte hasi zen egitasmoa eta lau urte iraun dute lanek; aurrekontua lau milioi euro izan da > 06

## Emakumeen kontrako erasoen gaineko kanpaina, gazteei begira

Arrasaten abiarazi du Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Taldeak, eta helburu garbia du: gazteek arazoaren gainean kontzientzia hartzea. Kanpaina bi alditan egingo dute: lehenengoan, hainbat ekitaldi antolatu dute; besteak beste, San Juanetarako kamisetak egin dituzte eta horrekin batera gazteei pentsaraziko dieten galdera eta esaldiz josiko dituzte kaleak. > 05

**KANPAINAREN LEHEN FASEA** Astero, gazteei pentsaraziko dieten galdera eta esaldiz josiko dituzte kaleak. I.B.

## Arrikrutzen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, zortzi orriko gehigarria Oñatiko kobari buruz.

**ARRASATE** > ELKARTASUNA

## Presoen aldeko eguna bihar

Elkartasun Eguna egingo dute bihar, zapatua, Arrasaten. Elkarte eta herritar asko ordezkatzen dituen Portaloira Topaguneak antolatu du. Helburua da herriko preso politikoen helburuak aldarrikatzea. Askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, ume zein nagusiagoendako. > 15

**KIROLA** > ZIKLISMOA

## Euskal Bizikleta ibarretik

Udanatik Kanpanzarrera egingo du bihar

> 40-41

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55



Udari aurre hartu gure koltxoi esklusibo ekin.
Finantzaketa zure neurrira
Kalitatezko ametsak
bedo®
Koltxoi dendak



Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35 • Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91

iKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42
FAGOR

**HEZKUNTZA** > ARANSGI ELKARTEA

# Informazio gabezia da entzumen arazoak dituztenen arazo handiena

**GORREKIN LANEAN** Aransgi da Gipuzkoako gorrekin eta haien familiekin lan egiten duen elkartea; Donostian, Tolosan eta Bergaran dituzte egoitzak

**ASKOTARIKO KASUAK** Gorren artean hainbat maila badaude ere, guztiek dute zerbait komunean: informazioa jasotzeko zailtasuna

**LAN HANDIA** Minusbaliotasun horri aurre egiteko geroago eta baliabide gehiago daude; hala ere, gizarteak erraztasun handiagoak eman behar ditu

**KEINUEN HIZKUNTZA** Neska-mutikoak liburu batean

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Aransgi elkarteko (Gipuzkoako gorren familien elkartea) koordinatzaile Guillermo Azkaratek atzo arratsaldean eman zuen Bergaran berbaldia. *Pertsona gorrei arreta Gipuzkoan* izan zen berbaldiaren izenburua, eta Azkaratek familiei zuzendutako informazioaren, formazioaren eta orientazioaren gainean egin zuen berba. Hala, Azkaraterekin batera, Aransgiko irakasle Mercedes Iñarrarekin ere izan gara, gorren egoeraren eta dituzten arazo eta erronken gainean berbetan.

**40 URTE LANEAN**

Aransgi elkarteak 40 urte daramatza gorrekin lanean. Hainbat familiaren ekimenez sortu zuten elkarte hori Donostian (1967), eta ordutik hona elkartea sendotu egin da. Egun, Tolosan (1972) eta Bergaran (1970) beste bi zentro dituzte, Gipuzkoako eta baita beste lurralde batzuetako gorrei eta familiei zerbitzua eskaintzeko.

Aransgik hainbat programaren bitartez egiten du lan gorrekin. Besteak beste, umea gorra den ala ez diagnostikatzeko programa, programa soziala, programa hezitzailea... Horrekin batera, Hezkuntza Sailarekin, Berritzegunekin eta baita hainbat ikastetxerekin ere gertutik egiten dute lan.

**INFORMAZIO GALERA**

Entzumen arazoak dituztenen artean, kasu bakoitza ezberdina da. Eta hor hainbat aldagai kontuan hartu behar dira: noiztik den gorra, zenbat entzuten duen, arazoa barne-belarrian edo kanpo-belarrian duen... Hala ere, entzumen zailtasuna duten guztiek badute komunean zerbait: informazio mordoa galtzen dutela: "Ondo entzuten dugunok ez gara konturatzen egunean zehar zenbat informazio jasotzen eta barneratzen dugun. Gura barik jasotzen dugu informazio hori, askotan arreta jarri barik, eta gor batek ezin du hori egin. Hala, entzumen arazoetan hainbat maila egonda, ondoen entzuten duenak ere informazio mordoa galtzen du", esan digu Iñarrak.

> **"Ondo entzuten dugunok ez gara konturatzen egunean zehar zenbat informazio jasotzen eta barneratzen dugun; askotan, gura barik"**

Hala, entzumen arazoak dituztenei laguntzeko orduan, gauzak aldatu egin dira: "Lehen, pertsonaren minusbaliotasuna tratatzen zen, horretan egiten zen ahalegina. Orain, baina, pertsona horren ingurua ere zaintzen da".

**BI KOMUNITATETAN**

Entzumen arazoak dituztenek erronka handiak dituzte: "Batetik, gorren komunitatean bizi dira, baina kontuan hartu behar da entzuleen gizartean ere bizi direla, eta bi horien arteko oreka behar dutela. Hala ere, minusbaliotasun hori ez da norberarena bakarrik, gizartearena ere bada". Hori horrela, egun minusbaliotasuna txikitzeko dauden baliabideekin batera, Aransgin azpimarratzen dute entzumen arazoa duen pertsonaren ingu-

n azaltzen diren argibideen gainean berbetan, keinuen hizkuntza erabilita. ARANSGI

ruak ere ahalegina egin behar duela pertsona hori ahalik eta ondoen moldatzeko.

**EGOERAREN BERRI JAKIN**

Lehen aipatutako informazio galera horrek uste baino eragin handiagoa izan dezake pertsona baten egunerokoan. Hala, Iñarrak berak esan digu ondo entzuten dugunok gor geratuko bagina, irakurketa izango zela irtenbidea: "Orain gorra geratuz gero, bai, baina jaiotzez edo txikitatik gor direnek beste modu batean irakurtzen dute. Hau da, gauza dira irakurketa mekanikoa egiteko, baina zentzu bikoitzeko esaldiak, besteak beste, ez dituzte ulertzen. Egun hauetan, adibidez, ETAren su-etena zela-eta (*alto el fuego*) ikasle batek galdetu zidan ea zer zen su garaiaren kontu hori".

**Gillermo Azkarate** > Aransgiko koordinatzailea

# "Kontuan izan behar da gorrei ideiak zuzen transmititu behar zaizkiela"

**X.U.** > ARRASATE

**Gillermo Azkaratek 20 urte daramatza Aransgi elkartean lanean. Psikologoa eta pedagogoa da, eta elkarteko koordinatzaile lanak egiten ditu Donostiatik. Arrunta bada ere, gortasuna gizartean dagoen minusbaliotasun ezezagunena dela esan digu.**

X.U.

**Gurasoendako ez da erraza izango euren seme-alaba gorra dela jakitea.**

Hori da, hain zuzen ere, minusbaliotasun horrek izan dezakeen faktore garrantzitsuenetako bat, familiak arazo hori behar den moduan onartzea, alegia. Bikote bat, umeak izan gura dituenean, berehala hasten da pentsatzen neska edo mutikoa izango ote den, zeinen antza izango duen, ilearen kolorea... Eta, noski, buruan daukagun ume hori osasuntsu irudikatzen dugu. Hala, orduan etortzen da lehenengo kolpea, zailtasun batekin jaio dela jakitea. Eta, ondoren etorriko da bigarren kolpea, elkar komunikatzeko arazoak daudela ikustea.

**Zuk esandako moduan, gutxi dakigu gortasunaren gainean.**

Hori da ez delako minusbaliotasun agerikoa, arazoa ez delako begi bistakoa. Mugimenaren garapena normala da, baina gizaki horrek ez du entzuten, eta, neurri berean, komunikatzeko zailtasunak ditu.

Alde horretatik, azken urteotan aurrerapen handiak egin ditugu. 2005a ezkero jaioberriei hainbat proba egiten zaizkie. Eta, proba horietako bat da entzumen arazoak izan ditzakeen ala ez ikustea. Proba horiek ez dira erabakigarriak izaten, baina arazoa egon daitekeen susmoa izateko balio dute. Hala, minusbaliotasun hori ahalik eta azkarren antzemanez gero, estimuluekin eta familiakoekin lan eginda asko aurrera daiteke.

**Arazo horren aurrean, familiakoen parte-hartzea ezinbestekoa da.**

Hor dago funtsa. Guri, adibidez, gaztetan etxean gauza askoren gainean ez ziguten berba egiten: sexua... Baina ikastetxean, lagunartean, telebistan... beste bide batzuetatik gauza mordoa ikasi izan dugu. Eta hori da, hain zuzen ere, gor batek ezin duena egin. Ideia horiek guztiak zuzenean transmititu behar zaizkio; hau da, argia ordaindu egiten dela esan egin behar zaio, eta faktura erakutsi. Bestela, pertsona horrek inoiz ez du hori jakingo.

Hala, familiakoek oso kontziente izan behar dute horretaz; ezer ezin dela jakintzat eman, alegia.

**Arazo horren aurrean gizarteak asko du egiteko.**

Noski duela egiteko, lehen esandako moduan gortasuna minusbaliotasun ezezagunenetakoa da-eta. Kontuan hartu, adibidez, ETB dela azpituluak gutxien erabiltzen dituen komunikabideetako bat. Hala, gorrek duten jakintza zuzenean transmititu zaiena da; hori horrela, telebistatik jakintza gutxi jasotzen dute.

Kontuan hartu ondo ala txarto baina Shin Chanek heziketa lana egiten duela, eta gorrak diren neska-mutikoek ez dutela heziketa hori jasotzen. Eta, gauza bera gertatzen da antzerkiekin, zinearekin... edozein ekintza kulturalekin.

# Su-etena hautsi izanak pena eta geroarekiko kezka sorrarazi ditu

**ESPEROTAKOA** Debagoieneko eragile guztiek diote albistea tristea dela. Bestalde, egoera politikoaere okertuko duela uste du hainbatek

**HAUTESKUNDEAK** Galdetutakoek uste dute ez dela kasualitatea hauteskundeen ondoren etorri izana albistea, nahiz eta bakoitzak arrazoi desberdinak eman dituen gertatu denaren gainean

**ONDORIOAK** Denek bat egiten dute erabaki horrek ondorio txarrak ekarriko dituela esatean, eta, egoera politikoa okertzeaz gain, ezker abertzaleari kalte egin diola uste dute batzuek

**Rafael Gomez**
AL ANDALUS ELKARTEA

**1.** Aukera bat galdu dugula uste dut. Euskaldun askok ilusio handiz jaso genuen su-etenaren berria, eta galdu egin dugu aukera. Ez dakit zein aldek duen pasatu denaren errua; hala ere, egia da garai hauetan ez dela ulertzen terrorismoa erabiltzea helburu politikoak lortzeko.

**2.** Prozesua hautsita dago. Tregua asko egin ditu ETAk, eta geroz eta zailagoa da akordio batera iristea. Nik ez dut etorkizun itxaropentsurik ikusten.

**Txerra Bolinaga**
MUSIKARIA ETA GAY MUGIMENDUKOA

**1.** Tristura eman dit, baina ez nau harritu ETAren erabakiak. Egoera nola zegoen ikusita, eta Otegik egin zituen adierazpenak entzunda, espero nuen horrelako zerbait. Behin eta berriz esaten zuen ETAk ez zela ari ezer mugitzen, eta pentsatzekoa zen erantzun hori. Nik frustrazioa sentitzen dut.

**2.** Suposatzen dut erabakiak eragina izango duela Madrilen, baina ez naiz ausartzen zenbaterainoko eragina izango duen esaten.

**Jose Mari Zezeaga**
KIROLARIA

**1.** Denok poztu ginen ETAk su-etena eman zuenean, eta orain dezepzio handia hartu dugu. Tirabira asko izan dira alderdi politikoen artean, eta susmoa bazegoen su-etena bukatuko zela. Hauteskundeak pasatu direnean esan dute; lehenago esan izan balute, emaitzak desberdinak izango ziren.

**2.** Ondorio txarrak ekarriko ditu, baina ez dago gure eskuetan, eta ea beste tregua bat edo beste zerbait etortzen den.

**Eduardo Zubiaurre**
ADEGI ELKARTEA

**1.** Iragarpen honekin ETAk bere ibilbideari jarraiki samina eta suntsiketaren aldeko apustua berritzen du, euskal gizartearen gehiengoak behin betiko desagertzeko egiten dion aldarrikapenari entzungor eginez.

**2.** Bakearen helburua utziezina da. Gipuzkoako enpresariak, euskal gizartearekin bat eginez, ez dugu onartuko indarkeriaren xantaiarik, eta bakea erdiesteko lanean jarraituko dugu egunero, etsipenean erori gabe.

**Nekane San Miguel**
EPAILEA

**1.** Bere agirian dioen moduan, ETAk beste behin ikusi du Euskadiko Autonomia Erkidegoan 150.000 pertsona eta Nafarroan 35.000 hor dituela, edozer egiten duela ere, ados egongo direnak. Azken hauteskundeetan, kopuruak lehengoan dirauela frogatutakoan, publiko egin du ezkutuan esaten ari omen zena.

**2.** Betikora bueltatzen gara. Penagarria bada ere, elkar elikatze horretan bere agintea mantentzeko bidea ikusten du hainbatek.

**Rufina Olasagasti**
EKIN EMAKUMEAK

**1.** Tristea da armen bidez jendarteko helburuak lortzea planteatzea eta herritarrok hautatuetakoetatik kanpo gauzak lortuko direla uste izatea.

**2.** Iritzi askotariko eta alderdi askotariko pertsona guztiok elkarrekin bizi behar dugu, eta horretarako elkar errespetatzea beharrezkoa da. Kontua da batzuei ekartzen dien mehatxuak guztion harremanak zailtzen dituela.

**Juanjo Alvarez**
UNED

**1.** Argi daukat nahigabe handia izan dela; politikoki eraiki zitekeen guztia suntsitu da. Ezker abertzalearen proiektu politikoari eragin dio, eta atzerapausoa izan da.

**2.** Ondorio batzuk iritsi dira: De Juanaren kartzelaratzea, EAE-ANV agintalditik kendu nahia ... ETAri gaizki erantzuten zaio.

Desio dut adierazpena horretan gelditzea; ekintzarik ez izatea, ez dadila odol gehiago isuri.

**1.** Zer iruditzen zaizu ETA erakundeak momentu honetan su-eten iraunkorra bertan behera utzi izana?

**2.** Zure ustez zer ondorio ekarriko ditu erabaki horrek Euskal Herrian?

**Larraitz Ugarte**
ABOKATUA

**1.** Horrelako albiste bat ez da inoiz pozgarria. Erabaki horrek esan nahi du gatazkaren oinarriak ez direla konpondu. Hauteskundeak *termometro* izan diren arren, aurreakordioak bete ez direlako etorri da berria.

**2.** Lehenik eta behin, Estatuaren errepresioa handiagoa izango da arlo guztietan. Bigarrenik, gatazka politikoa konpondu gabe gelditukо da: sufrimendua eta herri bezala ukazioa datoz.

**Maria Agirre**
KAZETARIA

**1.** ETAk ez du bide egokia hartu, erabakitakoak ez garamatza inora. Espainiako Gobernuak aurrerapauso askorik eman ez arren, muturreko erabakia da. Gainera, ETAren agiriko tonua zorrotzegia da besteekiko eta autokritikarik ez du egiten.

**2.** Azken atentatuan bi pertsona hil zirela jakinda, pertsonentzat ondorio txarrak ekarriko ditu. Egoera politikoa ere okertu du, eta ezker abertzalea kaltetu du.

**INDARKERIA** > ARRASATEN ABIARAZI DU KANPAINA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO PLATAFORMAK

# Emakumeenganako erasoen gaineko kanpaina abiarazi dute

Kanpaina gazteei zuzenduta dago eta helburua da kontzientzia hartzea

Kanpaina bi alditan egingo dute: bata orain eta bestea urrian hasi eta azarora arte

**GALDERAK** Paretetan jarriko dituzte galderak, astero bat. Oraingo astean goian irakur daitekeena jarri dute. IKER BARANDIARAN

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Plataformak gazteei zuzendutako kanpaina jarri du abian. Kanpaina horrekin, plataformako kideen helburua da gazteek arazoaren gainean kontzientzia hartzea.

**EKAINERAKO EKIMENAK**

Kanpaina hori bi fasetan banatu dute; lehenengoa abiarazi dute orain eta ekainaren 25era arte iraungo du. Bigarren fasea urritik azarora izango da.

Asteotarako hainbat ekimen antolatu dituzte. Batetik, kamiseta lehiaketa; atzo, eguena, aukeratzekoak ziren irabazlea. Bost proposamen jaso dituzte. San Juanetan jarriko dituzte kamisetak salgai, bost eurotan, honako tokietan: Biona eta Jai-Zale tabernetan, gaztetxean, Emakume Txokoan eta Gazte Bulegoan.

Bestalde, Joxe Mari Karrere ipuin kontalariaren bi saio izango ditugu ekainean. Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Biona tabernan jardungo du; ekainaren 22an, 23:00etan, Jai-Zale tabernan. *Mingain haragia* lan berria estreinatuko du, kanpaina honetarako propio prestatu duena.

KANPAINA OSATZEKO

## Urrian eta azaroan izango du jarraipena

Ekaineko kanpaina horrek jarraipena izango du urritik azarora bitartean. Azaroaren 25ean, hain zuzen ere, amaituko da udazkeneko kanpaina hori; egun horretan, Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da eta kontzentrazio baterako deialdia egingo du plataformak.

Aipatu bezala, gazteekin mahai-ingurua egiteko asmoa ere badute. Mahai-inguru horren gaiak izango dira, besteak beste, orain plataformakoek kaleratuko dituzten galderak.

Bestalde, antzezlan bat prestatzea ere nahi dute plataformako kideek azarorako; horretarako, herriko aktore gazte batzuekin harremanetan jarri dira. Antzezlanak hainbat gai landuko ditu: bikote harremanak, emakumeen askatasuna, aurreiritziak, zeloak bikote harremanetan, emakumeen independentzia eta autonomia eta abar.

**GALDERAK ETA ESALDIAK**

Azkenik, hainbat esaldi kaleratuko dituzte; astero, esaldi edo galdera bat. Lehenengoa jarri dute herriko kaleetan; honakoa, hain zuzen ere: *Nola konturatu gaitezke bikote harreman bat ez dela egokia guretzat?* Beste hirurak honakoak dira: *Zer-nolako erasoak jasaten ditugu emakume gazteok?; Zure aurrean emakume bati eraso eginez gero, gainontzekook zer egin dezakegu?;* eta azkena, *Erasoak inoiz ez dira hasten lehen kolpearekin eta ez dira amaitzen azkenarekin.*

**HEZKUNTZA**

# Internet bidezko ikasketak egingo dira

EHUk, UNEDek eta Eusko Ikaskuntzak akordioa sinatu dute horiek abian jartzeko

**M.B.** > BERGARA

2007-2008 ikasturterako unibertsitateko bi master eta unibertsitate espezialista izateko lau ikastaro antolatu dituzte Euskal Herriko Unibertsitateak, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak eta Eusko Ikaskuntzak.

Esandako programak abian jartzeko asmoz, lankidetza hitzarmena sinatu zuten eguaztenean unibertsitateen errektoreek eta Eusko Ikaskuntzako presidenteak.

Informazio eta komunikazio teknologiak euskarri dituzten ikasketak eskaintzea da lankidetza hitzarmen horren helburua.

**LEHEN EMAITZAK**

Sinatutako akordioa hasi da lehen emaitzak izaten: datorren ikasturterako graduondoko ikasketetarako bi master eta lau ikastaro antolatu dituzte. Ingurumen Zuzenbidea, Nazioarteko Merkataritza Zuzenbidea, Hizkuntzalaritzaren Planifikazioa, Giza Eskubideak, Euskal Ikasketak eta Europar Batasuneko Zuzenbide Konstituzionala dira ikasgaietako batzuk.

Ikastaroen erronka nagusia irakaskuntza birtuala den arren, erakundeek ez zuten baztertu zuzeneko jardueretan ere elkarlanean aritzeko aukera. Etorkizunari begira, erronka gizarte zibilaren eskaeran lan egitea dela esan zuten.

mikro gunea
Mikroenpresarentzako gunea
Un espacio para la microempresa

**Jardunaldia: Lana eta bizitza pertsonalaren arteko kontziliazioa.**

Antolatzailea:

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Babesleak:

eQual

UNIÓN EUROPEA
Fondo Social Europeo

- **Norentzat:** Debagoieneko enpresa txikietako langile, autonomo eta enpresarientzat.
- **Eguna:** Ekainak 20, asteazkena.
- **Lekua:** Kulturate (Arrasate). Loramendi gela.
- **Ordua:** 17:00 – 19:30.
- **Antolatzailea:** Debagoieneko Mankomunitatea
- **Gai zerrenda:**
  - Kontziliazioa mikroenpresa eta langile autonomoen ikuspuntutik.
  - Esperientziak enpresetan.
  - Eztabaida eta galdera-erantzunen tartea.

**Izena emateko:** ekainaren 19a baino lehen 943-79 30 90 telefonora deitu (Unai Kortabarria).

*Anima zaitez parte hartzera !!!*



**IA 500 METRO** Bederatzi interes gunetan egingo dute geldialdia. Han informazioa jasoko dute bisitariek. GOIENKARIA

**TURISMOA** > INAUGURATU DUTE KOBAZULOA

# Arrikrutz kobazuloa zabalik egongo da bihartik, zapatua

Gaur, egubakoitza, inaugurazio ekitaldia egitekoak ziren eta bihartik jende guztiarendako zabalik egongo da

**AINTZANE IRIZAR** > OÑATI

Gaur goizean, egubakoitza, Arrikrutz-Oñatiko Kobak Proiektu Turistikoaren inaugurazio ekitaldia egitekoa zen. Hantxe egotekoak ziren Industria, Turismo eta Merkataritza sailburu Ana Agirre, Joxe Joan Gonzalez Txabarri diputatu nagusia eta Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea.

Bihar, zapatua, zabalduko dute Arrikrutzeko koba jendearendako. Hala ere, dagoeneko hainbat bisita gidatu egin dituzte. Batetik, herriko ostalari, irakasle eta erretiratuek izan dute horretarako aukera; bestetik, Mundumira jaialdiaren barruan, bi taldek egin zuten bisitaldia; azkenik, martitzenean kazetarion txanda izan zen.

Arduradunen esanetan, bisita horiek balio izan dute jendearen iritzia jasotzeko eta hainbat detaile teknikori azkeneko ukitua emateko. Lehenengo bisita horiek erantzun ona izan dute.

Hamalau kilometroko barrunbe karstikoa da Arrikrutzekoa eta bisitariendako ia 500 metroko ibilbidea egokitu dute. Patxi Zubizarreta idazleak egindako gidoiaren bitartez jasoko dituzte azalpenak bisitariek.

**ORDUTEGIA ETA PREZIOAK**

Udaleko arduradunek Arrikrutzeko kobak izango duen ordutegiaren eta prezioen berri eman digute. Martitzenetik domekara egongo da zabalik. Hona hemen ordutegiak: ekainetik irailera, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; azaroa eta otsaila bitartean, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara; eta martxotik apirilera eta urrian, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Helduek zortzi euro ordaindu beharko dute sarrera; erretiratuek, umeek (4-10 urte bitartekoek) eta 15 pertsonatik gorako taldeek, sei euro. Hala, erreserbak egiteko, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 08 20 00.

Automobilez doazen bisitariek Jaturaben egokitu dituzten aparkalekuan laga beharko dute eta handik oinez egin beharko dituzte kobazulorainoko 600 metroak. Autobusek harrera etxeraino joateko aukera izango dute. Oinetako erosoekin eta hotzarendako arropa eramatea gomendatu dute.

**ARAOZTARREN KEXA**

Araotz auzoko hainbat bizilagunek euren kexa helarazi digute. Horrela berba egin digu Jesus Mari Goitiak: "Kobaren proiektuaren aurka ez gaude, ez gara horretan sartzen, baina dioguna da: koba bai, baina, auzoa ere bai. Izan ere, auzotarrok gara kaltetuak". Haren esanetan, Araotz auzora doan errepidea oso arriskutsua da; badaude bi bihurgune bereziki arriskutsuak, eta, eurek eskaera egin arren, Udalak ez ditu bihurguneok zabaldu. "Milaka bisitarik erabiliko du aurrerantzean errepidea eta arriskua areagotu egingo da", diosku. Baztertuta sentitzen direla adierazi digu, auzoak indarra galtzen doazela eta Udalak ez duela hori kontuan hartzen.

Ernesto Murgiondo Udaleko Kultura batzordeko buruarekin berba egin dugu, baina hauxe erantzun digu: "Udalean ez dugu kexa formalik jaso, eta jasotzen ez dugun bitartean, nahiago dut kexa horri ez erantzun".

> EKONOMIA

## MCCk enplegu sorrera eta balioei buruzko ponentziak onartu ditu

MCCko kongresu kideen batzarrak bi ponentzia onartu ditu berriki. *MCCren 2009-2012 Politika Sozioenpresariala* izenburukoak enplegua sortzea planteatzen du erronka nagusitzat, batez ere enplegu kooperatiboa, eta ingurunearen garapenarekin bat eginda.

Kongresuko kideek onartu duten bigarren ponentziak, *Arrasateko Esperientzia Kooperatiboari buruzko Hausnarketa*, balio kooperatiboak garatzea eta indartzea bilatzen du, bi urteko lanaren ondorioz egoerari buruz egindako diagnostikoan oinarrituta. Lan horretan 2.000 bazkidek hartu dute parte.

> HEZKUNTZA

## Nazioarteko bi programa emango ditu Huhezik ingelesez

Ikastaroak datorren ikasturteko lehen seihilekoan emango dira Huhezin, eta komunikabideetan eta hezkuntzan oinarrituko dira. Euskal Herriko lehenengo unibertsitatea da ingelesezko ikastaroak antolatzen dituena.

Europako Erasmus truke-programa egiten ari diren ikasleei zuzenduta egon arren, munduko edozein tokitako ikasleek egin ahal izango dituzte. Izenemate epea irekita dago ekain amaiera arte.

*Hezkuntza eta Eremu Urriko Hizkuntza* programak azaltzen du eleaniztasun egoeran hizkuntzetako bat nabarmen gailentzen denean hezkuntza nola egituratzen den. *Hedabideak eta Eremu Urriko Hizkuntzak* izenburukoan hedabideen azterketa egiten da.

EKAINAK 5 INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Klima aldaketaren aurrean, kontsumo iraunkorra

Maitatu berriro Natura

ingurumena.net
Gure esku dago

EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

gure artekoak

**SUZUKI SX4** > Iaz merkaturatu zuen Suzuki etxeak SX4 automobila. Errepiderako zein mendirako egokia da. Eskoriatzako Leniz kontzesionarioan egon gara, automobila ezagutzen.

**Edorta Zubizarreta** > Leniz kontzesionarioko arduraduna

# "Negurako, batez ere, oso automobil egokia da"

**AINTZANE IRIZAR** > ESKORIATZA

Suzuki automobil etxeak SX4 modeloa aurkeztu digu, Eskoriatzako Leniz kontzesionarioko Edorta Zubizarretaren eskutik. Hauxe azaldu digu Zubizarretak: "Ohiko turismo automobil baten antzerakoa da, baina trakzioa gurpil guztietara sartzeko aukera ematen digu". Horrela, trakzioari dagokionez, hiru aukera ematen digu. Batetik, normalean, aurreko gurpiletan du trakzioa. Bigarren aukera da era automatikoan ibiltzea; kasu horretan, automobilak berak erabakitzen du noiz erabili lau gurpiletako trakzioa eta noiz ez. Hirugarren aukera da 4x4 trakzioa jartzea.

Edorta Zubizarreta, SX4 automobilarekin. A.I.

**BI MOTOR AUKERAN**

Diesel motorrari dagokionez, 120 zaldiko 1.9 motorra dugu; gasolinazkoaren kasuan, 107 zaldiko 1.6 motorra.

Ekipamenduari dagokionez, bestalde, GL+ eta GLX bertsioak dauzkagu aukeran, bai diesel automobiletan, bai gasolinazkoetan. GL+ bertsioak dira sinpleagoak; irratia eta CDa dauzkate, aire-girogailua, airbag bikoitza eta abar.

GLX bertsioko automobilek, bestalde, honako ekipamenduak eskaintzen dizkigute, aurreko guztiaz gain: trakzio eta egonkortasun kontrola, larruzko bolantea, MP3, aldamenetako airbagak eta automobila giltza barik zabaltzeko eta martxan jartzeko sistema.

**NEGURAKO AUTOMOBIL EGOKIA**

"Bizi garen tokian, batez ere, negurako, oso automobil egokia da, elurrarekin ibiltzeko, esaterako", adierazi digu Edorta Zubizarretak. Gainera, ez dauka beste 4x4 automobil gehienek duten tamaina handia. Azkenik, aipatzekoa da atzeko eserlekuak aurrera botata maletategi handia lortzen dugula.

**Suzuki SX4 1.9 120 ZP GLX**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 20.000 eurotik hasita |
| Luzera | 4,14 metro |
| Zabalera | 1,75 metro |
| Maletategia | 625 litro(1) |
| Kontsumoa | 6,6 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 180 km/h(3) |
| 0tik 100era | 11,2 seg. |
| CO2 isurketak | 174 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

etxeko leihotik

**Aitziber Aranburuzabala** > Arrasate Irratiko arduraduna

# Kutsadura bai, baina light!

Badira urteak gidabaimena dudala; hala ere, ez dut sekula mekanikaz askorik ikasi. Autoa arrankatu eta depositoa betetzera *mugatzen* den horietakoa naiz. Autoak konponketaren bat eskatzen duenean, tailerrera eramaten duen horietakoa. Martitzenean, baina, ingurugiroaren nazioarteko eguna zela aitzakia hartuta, biodieselaren gainean asko ikasi nuen. Autoari ez dio kalterik egiten, ezta poltsikoari ere; gasolio arruntaren prezio bera du. Arrasaten badago saltoki bat; Gipuzkoan beste 6 daude.

Landare jatorriko olioarekin egiten da eta baita birziklatutako olioarekin ere. Olio litroko litro bat biodiesel ateratzen omen dute. Arrasaten, sei astetan, 2.080 litro olio jaso dituzte kalean dauden edukiontzietan; beraz, 2.080 litro biodiesel sortuko dira horietatik.

**"Arrasaten, sei astetan, 2.080 litro erabilitako olio jaso berri ditu Udalak"**

Gasolinaduna dugunok bioetanola dugu ordezkoa. Landare jatorria duen alkohol bat da. Azukrea edo almidoia duten landaretatik lortzen da; erremolatxa edo zekaleetatik, besteak beste. Euskadin zekalea erabilita egingo da. Egun, bioetanola saltzen duen saltoki bakarra, Donostian dago.

**> Al-Goreren *Una verdad incómoda* dokumentala martitzenean Kulturaten eskaini zuten. Egunotan jakin dugu Asturias Printzea saria emango diotela. Nire galdera da ea merezia ote duen!**

**> Bizikletan ibiltzea sekula ahazten ez dela esan ohi da beti. Aretxabaletako Loramendi euskara elkartekoek, Tril emakumeek bultzatuta, ikastaroa hasi berri dute. Oso ideia ona!**

begi-bistan

**Iturbidekoak Gasteizera (Arrasate)**
**2007/06/06**

**Argazkia:** Iker Barandiaran.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Arrasateko Iturbide egoitzako 40 egoiliarrek txangoa izan zuten eguaztenean; autobusera igotzen harrapatu genituen. Gasteizera joan ziren; hantxe, kalerik kale ibili ziren, paseoan.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak

**Oskar Epelde**
KAZETARIA

*Arantzazu, Afrikarekiko elkargune* astearen barruan, Oskar Epelde arrasatearrak egindako dokumentala estreinatu dute: *El diamante de Salomon*. Fermin Ayorekin batera egin du lan hori. Gai nagusia da Kongoko baliabide naturalen ustiapena, garai kolonialean eta ondoren.

**Iñigo Ramirez de Okariz**
HISTORIALARIA

*Antzuola eta Ura* izenburuaren pean, liburua eta erakusketa prestatu ditu Iñigo Ramirez historialari eta irakasle antzuolarrak, Valen Moñux Antzuolako Udaleko Hirigintza teknikariarekin batera. Hilaren 15ean egingo dute aurkezpena, Olaranen.

**Mari Karmen Gallastegi**
EKONOMILARIA

Ikerbasque zientzia fundazioko presidente exekutiboa da Mari Karmen Gallastegi bergararra. Ikerbasqueren helburua da atzerriko zientzialariak Euskal Herrira ekartzea, hemengo zientzia ikerketak bultzatzeko. Martitzenean aurkeztu zuten Bilbon fundazio berria.

Medikuntza prebentiboaren defendatzailea, Antonio Palomar Sumendiko, Osasunerako Dokumentazio eta Informazio zentroko, sortzaileetako bat izan zen. Hurrengo asteartean Arrasateko Kulturaten hitzaldia egingo du. Antzinako Greziako dieta, nutrizioan izandako azken aurkikuntzak eta ohitura osasungarrien onurak izango ditu aztergai, besteak beste.

**Antonio Palomar** > Medikua

# "Osasuna ez da lortzen diziplina apur batekin ez bada; landu beharra dago"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Antonio Palomarrek (Getxo, 1959) hogei urtetik gora darama nutrizioaren eta osasun heziketaren gaineko hitzaldiak eta ikastaroak ematen. *La dieta inteligente* izenburuko hitzaldia egingo du hurrengo martitzenean, ekainaren 12an, Kulturaten, 19:00etan. Ohitura osasungarrien gaineko azalpenak emango ditu bertan. *La sabiduría de Higea. El poder curativo del cuerpo* (Txalaparta) liburua argitaratu berri du Palomarrek.**

Antonio Palomarrek *La dieta inteligente* izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean Kulturaten. ARGAZKI PRESS

**Horrenbeste teoria eta guruen artean, zein da ba dieta inteligentea?**

Elikadurak, dietak, nutrizioak alderdi ezberdinak ditu: sozioekonomikoak, ingurumenekoak, giza alderdiak... Etengabe aldatzen ari den gizartean gure elikatzeko modua aldatzen dabil eta dieta inteligentearen kontzeptuak hori adierazi nahi du: ondoen datorkiguna identifikatzea ingurumena errespetatuz eta prezioetan gorakada handia eman barik. Aukera onenak egin behar ditugu: dieta garestiegia ez izatea, ekologikoa, egoki ontziratua (ahal dela plastikoak, pestizidak eta abar saihestuz). Osasuna, ingurumena eta alderdi soziokulturalak zaintzea da kontua.

**Osasunarekin obsesionatuta al dago gaurko gizartea?**

Osasuna modan dago, eta, irudiaren menpe bizi garenez, biztanleriaren zati handi batek dietak egiten ditu argaltzearren. Gero eta gehiago hartzen dira elikagai bereziak edo dietetikoak. Dena dela, nutrizioaren gaian analfabetismoa ere badago, eta marketinak eta telebista iragarkiek agintzen dute askotan. Beldurrak eta angustiak baretzeko produktu horietara jotzen dugu, oinarrizko argumentuei erreparatu gabe. Arriskuetako bat hori da: dietarekiko obsesioa. Muskuluarekin obsesionatutakoen desoreka bigorexia den heinean, ikusten da dietarekin obsesionatutako jende asko dagoela, nahiz eta desoreka hori komunitate medikoak ez duen oraindik identifikatu. Gutxiengo batek dauka obsesio hori, baina goraka doa. Hori saihesten ahalegindu behar dugu, muturretara joaten alegia: ez dieta erabat baztertu ezta gehiegi obsesionatu. Bulimia edo aneroxia izateko arriskua ere hor dago.

**Batzuendako txarra dena beste batzuendako ona da...**

Azken 30-40 urteotan nutrizio aholkuak asko aldatu dira, askoz gehiago dakigulako. Horrek nahasteak sortzen ditu. Lehen, arrautzak jatea asko zaindu behar genuen, ustez kolesterola igotzen zutelako; azken bospasei urteotan, berriz, benetan ez dela horrela entzuten dugu. Azken baten, froga zientifikoa egiten denetik informazio hori biztanleriaren gehiengoarengana heltzen den arte tarte zabala dago. Informazioa apurka-apurka heltzen zaigu, ez dago hezkuntza sistematikorik eta hutsuneak sortzen dira hortik.

**Eta orokorrean zein gomendio emango zenuke zuk?**

Urte osoan antzera jokatu behar dugu, eta gorputzak eskatzen duenari adi egon. Urte sasoi honetan, esaterako, beroarekin, elikagai freskoak gusturago hartzen ditugu beroak baino: entsaladak, jogurtak, fruta... Azken baten, zentzudunak izan behar dugu: koipe saturatuak eta gehiegi saturatu gabeak saihestu –mar-

DIETA INTELIGENTEA

**"Osasuna, ingurumena eta alderdi soziokulturalak zaintzea da kontua, aukera onenak egitea"**

GAZTEAK

**"Gero eta herrialde sedentarioagoa gara; ariketa fisikoa egitea ezinbestekoa da"**

TABAKOAREN LEGEA

**"Motz geratu da, herabeki aplikatzen baita. Irlandan, Italian, Norvegian... ondorio guztiekin aplikatu dute"**

titzeneko hitzaldian azalduko dudan bezala, koipe motek eragin zuzena daukate osasunarengan–, dieta orekatua eraman, erregularki ariketa fisikoa egin, dibertitu eta adimena landu, lagunekin eta familiarekin atera... Era berean, arrisku faktoreak saihestu ditzakegu; alkohola eta tabakoa, esate baterako.

**Ohitura osasungarrien garrantzia azpimarratzen duzu.**

Batzuetan ondo dakigu zer den osasungarria eta zer ez. Alkoholarekin, tabakoarekin eta ariketa fisikoarekin garbi ikusten da hori. Baina inertziaz jokatzen dugu askotan, norberaren ohituren arabera. Burua baino gehiago, bihotzak agintzen du eta ohitura kaltegarritan jausteko arriskua dator: erretzea, ariketa fisikorik egin beharrean etxeko sofan goxo-goxo egotea... Osasuna ez da lortzen diziplina apur batekin ez bada. Ez dago hagaxka magikorik. Norberak osasuna lantzea beharrezkoa da. Gero eta herrialde sedentarioagoa gara. Biztanleriaren zati handi batek ez du batere ariketarik egiten, eta egunean ordu erdi inguruko ibilalditxoa egitea nahikoa da hobekuntza nabaria izateko.

**Gorputzak esaten digunari adi egon behar dugu, beraz.**

Gorputza jakintsua da. Ez beti. Beharrak eta desirak ez ditu bereizten. Kafea, txokolatea edo tabakoa eskatzen digu batzuetan... Bestetan, ordea, likidoak eskatzen baditu, uraren, gatz mineralen edo kaltzioaren beharrean egon daiteke. Arrazoiaren eta gorputzari adi egotearen oreka bilatu behar dugu.

**Tabakoaren kontrako legea betetzea eskatzen zenuen aurrekoan.**

Motz geratu da, herabeki aplikatzen baita. Irlandan, Italian, Norvegian... ondorio guztiekin aplikatu da, baina hemen zenbait toki publikotan erretzea posible da oraindik. Kaltea hor dago.

zabalik

Eneida Iturbe

# Egia lurpean

Guatemalan 2005ean izan nintzenetik hango egoerarekiko kezka berezia daukat. Ez dut Euskal Herriko errealitatea –tristea azkenaldian– alde batera laga nahi, baina artikulua idazteko hasierako asmoa Guatemalan bizi dituzten mehatxu berriak salatzea zen eta hala egingo dut, ez ditut-eta nire begiak eta zuenak han gertatzen denaz jabetu gabe laga nahi. Bizitzak aurrera jarraitzen du, latz guretzat, eta latz haientzat...

Guatemalako Fundacion de Antropologia Forense delakoak (*www.fafg.org*) urteak daramatza genozidio baten egia lurpetik atera nahian. Hobi komunetako gorpuak jaso eta identifikatzen dituzte familiei bueltatzeko. 36 urte baino gehiago iraun zuen gerra baten biktimak dira familia horiek. FAFGen lanak duintasun apur bat bueltatzen die eta errudunak aurkitzeko bidea zabaltzen du.

**"FAFGek hobietako gorpuak jaso eta identifikatzen ditu familiei itzultzeko"**

**"Efrain Rios Montt 80ko hamarkadako indigenen sarraskien arduradunetako bat da"**

Ez pentsa, baina, halako lanetarako Guatemalako gobernuaren laguntzarik jasotzen dutenik; Europatik ailegatzen diren laguntzekin finantzatzen dute proiektua.

Azken egunetan FAFGeko posta elektronikoa heriotza mehatxuz gainezka dago. Bertako kideak eta hauen senideak mehatxatzen dituzte. Hau da Guatemalan gertatzen ari dena, XXI. mendea hasi berritan eta ustezko sistema demokratiko batean. Ustezko diot, izan ere datozen hauteskundeetarako hautagaietako bat, Efrain Rios Montt, 80ko hamarkada hasierako indigenen sarraskien arduradunetako bat da. Bera estatuburu zela milaka eta milaka indigena hil zituzten ejerzitoak eta paramilitarrek. Badakigu, baina, ez dela demokraziaren mozorroa jantzi duen urkatzaile bakarra; urrutira joan gabe, hor daukagu Manuel Fraga Iribarne.

Hipokrisiak ez du mugarik ezagutzen.

herritarrak galdezka

## UDA DENBORALDIA NOIZ HASIKO DEN GALDEZKA

**Arrasateko irakurle batek deitu digu jakin nahian noiz hasiko den udako denboraldia Arrasateko igerilekuetan?**

Ekainaren 16an, zapatua, ekingo diote udako denboraldiari Arrasateko Musakola kiroldegian. Ekainaren 16an hasi eta irailaren 16ra arte iraungo du. Hori horrela, denboraldi horretan igerilekuen ordutegia izango da 10:00etatik 20:30era. Bestalde, gimnasioa eta sauna zabalik egongo dira uztail eta abuztuan 09:00etatik 21:00etara.

Prezioari dagokionez, Musakolako igerilekurako egun baterako txartelak balio du 5,55 euro nagusiendako eta 2,75 txikiendako. Hamar sarrerako bonuaren kasuan, nagusiek 43,35 euro ordaindu beharko dute eta haurrek, 21,65 euro.

Bestalde, Arrasateko Kirol Zerbitzutik jakinarazi dute udako txartela ere badagoela. Txartel horren balioa da ekainaren 16tik irailaren 16ra artekoa eta honako kostua du: 20 urtera artekoendako prezioa da 31,90 euro; 20tik gorakoendako, 53,55 euro eta familia txartelak, berriz, 83,90 balio du.

## HERRIZ ALDATUTA ANBULATORIO ALDAKETA NOLA EGIN BEHAR DA?

**Oñatitik Bergarara bizitzera etorri berri den herritar batek hauxe galdetu digu: Zer egin behar dut anbulatorioz aldatzeko? Oñatin baja eman eta Bergaran alta?**

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Galderari erantzuteko Bergarako anbulatoriora jo dugu. Han azaldu digutenez nahikoa da, kasu honetan, Bergarako anbulatoriora Osakidetzako txartelarekin joatea. Txartela eraman eta medikua izendatuko diote onuradun berriari. Hala, beste ezer ez duela egin behar azaldu dute. Oñatiko anbulatorioan aldaketaren berri emateaz eurak arduratzen direla gehitu dute.

Bestalde, gehitu dute 08:00etatik 20:00etara ematen dutela zerbitzu Bergarako anbulatorioan.

## AGORROSINGO BAINUETXEAN ATZERAPENA

**Agorrosin Ekintza Guneko bainuetxearen eta berdegunearen irekierak atzeratu egin dira. Irakurle batek horren arrazoia jakin nahi du.**

Agorrosingo bainuetxea zapatuan inauguratu behar zuten, baina astebete atzeratu da. Urontzi barruko hodi baten hausturak eragin du atzerapena. Hilaren 16an, berriz, berdegunea inauguratu behar zuten, baina euri asko egin du eta, ondorioz, oraindik ezin dute belarra jarri.

marrazkiz

Unai Busturia



blog

## 187.000

**Imanol Murua Uria**
www.berria.info/blogak/imanol

Euskal Herritik kanpo harrapatu nau zoritxarreko berriak. Lerrotxo hauek besterik ez, itzuli bitartean, urrutiko ziberkafe honetatik.

1- "Prozesuaren alde" eskatu du botoa ezker abertzaleak, kanpaina osoan, ANV-rentzat. "Prozesua herritarren babesarekin hornitzeko".

2- 187.000 botoak ezker abertzaleak "prozesuaren alde" egindako lanaren saria zirela esan zuten ezker abertzaleko buruzagiek hauteskunde ostean.

3- Botoak "prozesuaren alde" bildu eta bost egunera, prozesua hautsia dagoela eta ibilbiderik ez duela esan zuen ezker abertzaleko talde negoziatzaileak.

4- Prozesurako baldintzarik ez dagoelako su-etena hautsi du ETAk.

Jakin nahiko nuke, Accion Nacionalista Vascaren 187.000 boto emaileen artean, zenbatek daukaten adarra jo diotelako sentipen amorragarria.

## Eta zer?

**Joxe Aranzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Gaur gero gutariko gedozein izan daiteke berriro ETAren jopuntu. Atzo bertan –hauteskundeak egin ondoren, badaezpada–, ETAk jakinarazi zigun su etena, tregoa, menia edo dena delako hori hautsita dagoela. Hemendik aurrera, hortaz, espero izatekoak izango dira atentatuak, estortsioak, bahiketak eta hilketak. Edo modu *jasoagoan*

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

plazara

Bergarako Udalak eta Mankomunitateak Debagoienean dauden etorkinen egoera sozio-demografikoa aztertzen duen txostena egin dute. Hori oinarri hartuta, etorkin horien egoeraren gaineko hausnarketa egin du Jon Lopezek. Mezu eskuindarrak saltzen dizkigun topiko eta beldurrek gurean ere eragina dutela dio. Kultura aniztasunaren aldeko apustua egin behar dugula gehitzen du.

**Jon Lopez ***

# Euskaldunak eta egungo etorkinak

Dagoeneko baditugu irakurgai gure bailarako etorkinen egoera sozio demografikoaren azterketa egiten duten bi txosten; batak, 2006ko Bergarako egoera jasotzen du; besteak, bailara osoarena.

Datu interesgarrien artean Debagoieneko etorkinen kopurua (%3,2) EAEkoa (%3,9) edota bereziki estatu espainolarena (%8,7) baino askoz baxuagoa dela aipatu beharra dago. Bestetik, Debagoieneko etorkin langabetuen tasa bertakoenaren gainetik dagoela ere azpimarratuko nuke. Zeren eta egoera ilegalean aurkitzen direnak ez daude hemen zenbatuta, eta hala ere gainetik!

Adierazitako datu hauei beste zertzelada pare bat gehitu nahi dizkiot, zertzelada hauek ez dira txostenetan aurkitzen baina sinistu gure eguneroko errealitatearen datu gordinak direla:

Lehena lanaren ingurukoa da; sekulako trabak aurkitzen dituzte euren egoerak legeztatzeko, ondorioz lan baimenik gabe aritzen saiatzen dira (merkatuko egoerarik kaxkarrenetan), eta lan baimena lortzen dutenek ere ia edozein gauza onartzera behartuta aurkitzen dira, prekarietatea nagusi da.

Etxebizitzaren arazoa da bestea; itzelezko arazoak dituzte etxeak lortzeko, orokorrean etxeak garesti badaude pentsa ezazue zer izango den hilean huskeri bat kobratu eta familia bat mantendu behar duen pertsona batentzako. Horrela, etorkinak etxea konpartitu beharrean aurkitzen dira, pilatuta baldintza ezin txarragoetan,...

Zer dela eta holako datuak mahai-gaineratzea? Mezu eskuindarrak saltzen dizkigun topiko eta beldurrak gurean ere eragin handia duela ohartu naizelako, laneko mostradorean zein tabernako barran etorkinek babes ofizialeko etxeak kentzen dizkigutela, edozein preziotan lan egiten dutela, dirulaguntzetatik bizi direla, inbaditzen ari direla edota gure kulturara egokitu beharra dutela sarri ari naizelako entzuten. Hau da, Sarkozyri hauteskundeak irabazteko balio izan zaion diskurtso berbera gure inguruan ere oso errotuta dagoela ohartu naizelako.



MIKEL ARROIABE

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako egunerokotasunak ordea, beste errealitate bat aurpegiratzen digu etengabe; ez diegula etxeak alokatu nahi, edota etxe kutre eta karuak alokatu beharrean aurkitzen direla, edozein lan balditzetan aritzera behartzen ditugula, paperik gabe ezin dutela ohiko dirulaguntzarik jaso, ...

**"Etorkinen harira, mezu eskuindarrak saltzen dizkigun topiko eta beldurrek gurean ere eragin handia dute"**

**"Ibarreko udal eta mankomunitateko politika ez da kulturaniztasunaren ildotik bideratu"**

Mezu eskuindarrak saltzen dizkigun topiko eta beldurrak gurean ere eragin handia du

Bestalde, Mexiko DFko Euskaletxeak bere ehungarren urtemuga ospatzen duen honetan, badirudi ahaztu dugula euskalduna herri inbaditzailea izan dela, atzerrian ere euskal izaera mantendu nahi izan duen herria.

Kulturaniztasunak kulturen arteko hartu emana izan behar du, hau da, kultura ezberdinek egin behar dute elkar ulertzeko esfortzua. Alderantzizkoa, etengabe kultura espainolaren mehatxupean aurkitzen den euskal kultura ahularentzat kaltegarriago izango litzatekeelako.

Debagoieneko azken urte hauetako udal eta mankomunitateko politika ordea ez da kulturaniztasun ildo honetatik bideratu; Mundumira bezalako ekimen pribatu eta interesatuak antolatzea ez da nahikoa.

Hauteskundeetako propaganda elektoralean etorkinena gai garrantzitsutzat izan dute alderdi politiko guztiek, hala ere, gutxik egin dute proposamen zehatzik irteera egoki baterako bidean. Bada ordua gaiari heltzeko, garaiz gaude, errealitate konplexuagoa izan arren oraindik estatu espainoleko inmigrazio tasa erdia dugu. Beraz, besteak beste, hemen ere izango dute erronka, etorkinak bezala, lege interesatu baten ondorioz ilegalak izan diren gure bailarako agintari berriek, animo!

*Jon Lopez, Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate Saileko teknikaria

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Zer da injustizia? Asko dago?

| | |
|---|---|
| BAI | %100 |
| EZ | %0 |

**> GAUZA ASKO**
Injustizia asko dago munduan baina nik bat aipatuko dut: oraindik ere emakumezkoa gizonezkoen pare ez kontsideratzea. Emakumezkoek gizonezkoek besteko goreneko kargurik duten ala ez begiratu barik, eguneroko gauzarik ohikoenetan argi geratzen da ez daudela parean.
**Mirian**

**> SOLDATA EZBERDINTASUNA**
Gutxi batzuek irabazten dituzten dirutzak, gainerakook irabazten dugunarekin alderatuz gero. Mirianek dioenaren harira, soldata kontuetan ere nabari da gizon eta emakumezkoen arteko ezberdintasuna: emakumezko alargun batek gizonezko alargunak baino gutxiago kobratzen du.
**Amaia**

**> ETXEBIZITZEN PREZIOA**
Mundu honetan injustizia asko dago, baina gure inguruan, etxebizitzen prezioa da handienetakoa.
**Aitor**

**DATORREN ASTEKOA: Zer deritzozu ETAk su-etena hausti izana?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

esanda (*Berria*-tik hartuta):

*ETAk su-etenaldi iraunkorra bertan behera uzten duela eta 2007ko ekainaren 6ko 00:00etatik aurrera Euskal Herriaren defentsan fronte guztietan aritzeko erabakia hartu duela adierazi nahi du.*

Orain hamalau hilabete ETAk su eten iraunkorra aldarrikatu zuenean, eszeptizismo puntu batez geratu nintzen. Orain okerrago nago. Ez dakit nork duen haustura horren errua, pentsatzen dut denok izango dugula erruaren parte bat, baina badakit ez dudala nahi inor tiroka ibiltzea nire izenean edo Euskal Herriaren defentsan, Euskal Herria askotarikoa baita.

## Izotza

**Edorta Arana**
www.goiena.net/blogak/hamaika

Su etena "hautsi" izanak duen alde ona (...) berriro ere aldarrikatu daitekeela jakitea da.

Modu horretara, T4an eginiko atentatuaren ondorioz sorturiko egoeratik (su etenean egotea baina atentatuak egiteko aukera irekita daukala jakitea) atera ahal izango zen.

Lerro hauek idazten nabil su etena amaitu dela argitara eman den egunean, ez dakit hala dela frogatzeko atentatuak hasten direnean zer idazteko gogoa izango dudan.

Hipotesirik optimistena, seguru ilusoena, txoroena baina desiratuena, su etena hautsi izana frogatu aurretik ere, behin betiko irtenbidea aurkitzea litzateke.

Irratira itzuliko naiz gero, lanetik bueltan, azterketa politikoak egiteko nik baino gaitasun gehiago dutenen hitzak entzutera.

koplak

**Enaitz Alustiza**

## ... eta ETA

ETAk su eten etena egin
duela jakin badakit
hori albiste txarra da oso
ta arrazoi askogatik.

Konponbidera ailegatzeko
galdu da aukera polita
kondenatzea ederki dago
baina egin autokritika.

Preso, tortura eta De Juana
merke daudenik ez uste
truke txanponik nahi ez dutenek
komodin asko dituzte.

Berriz zulora ez erortzeko
gure bide gogor hontan
gauzak aldatu beharko dira
asko ta leku askotan.

Urte luzetan iragartzen dut
Euskal Herrian negua
bi aldetatik batek bakarrik
egiten badu tregua.

Egi osoa ez du osatzen
alde bateko egiak
nik ez dut ezer justifikatzen
baina zabaldu begiak.

# Gipuzkoa ekologikoa?

**Peio Rubio Urbieta**
(Biolur Gipuzkoako presidentea)
Bergara

Nekazaritza ekologikoa gora doa Gipuzkoan. Hamar urte pasatxo direla hasi ginen lanean eta gaur egun 60 baserritarretik gora lan egiten gabiltza ingurumena, bizimodua eta baserriak modu ekologiko batean zaintzeko asmotan. Zenbaki apalak dira, baina beste sektoreekiko nekazal munduak duen egoera kontutan hartuta nabarmena da gorakada.

Gutariko gehienok Biolur Gipuzkoako kideak gara, baserritarrez eta kontsumitzaileez osatua dagoen eta Gipuzkoan nekazaritza ekologikoa hedatzeko helburua duen elkartea, hain zuzen. Biolur izan da hamarkada pasatxo honetan gure apustu ekologikoa bideratzeko aukera bakarretakoa.

Biolur Gipuzkoa elkarteak, ibilbide honetan, administrazioak bete izan ez duen papera bete du: nekazal eredu berri bati ekin eta tendentzia bati erantzun, hain zuzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako lau txakur txikirekin eta elkartekide askoren eskuzabaltasunari esker, lan polita egin dugu eta emaitzak egunero ikusten ditugu; izan ere, gero eta baserritar gehiago, gero eta proiektu gehiago, gero eta lan ildo gehiago dauzkagu esku artean.

Politiko eta beraien menpe dauden teknikariek, azken hamarkadetan saldu diguten nekazal eredu produktibistak dakartzan arazo anitzak konpontzen galtzen dituzte baliabideak. Nekazaritza ekologikoak erantzun argia ematen die arazo hauei, bilatzen duen ekoizpen sistemak ez bai du lurra eta ingurua kutsatzen. Gainera, elikagai osasungarriak ematen dizkigu eta baita gure baserritarrei bizimodu duin bat eskaini ere. Hain modan dagoen jasangarritasun hitza borobiltzen duen nekazal eredu bakarra da.

Administrazioak nekazal eredua ekologikorantz zuzendu behar denaren ideia gurekin konpartitzen omen du; apustua hortik bideratu nahi omen dute; etorkizuneko bidea hori omen da. Hitz politak. Baina benetan konpromiso serioago bat eskatzen diegunean, ezezkoa dator eta puntu: baliabide gehiago? Ez; Laguntza administratibo eta ekonomiko gehiago? Ez. 2007an, berriz ere, Biolurrek aurrekontu barregarri batekin Nekazaritza Ekologikoaren alde lan egiten jarraituko du.

Paper berdedun txortan saltzen digute gure politikoek Gipuzkoa. Turismoa, ingurugiroa, garapen jasangarria. Izan ere, buruan daukagun Gipuzkoako irudi bukolikoa berdea da, baserriz josia. Bazenekiten Gipuzkoak duen azaleraren %80a baino gehiago gure baserritarrek kudeatzen dutela? Ba al dakizue Aldundiak duen aurrekontu osotik zenbat bideratzen den nekazal arloetara? %1a, atera kontuak.

Momentu honetan horrenbeste promesa egiten dabiltzan politikoei esan, ondo pentsa dezatela hitz egin aurretik. Azkenean gezurrak entzuteaz nazkatuko gara eta etxera bidaliko ditugu.

Prest gaude zinegotzi guztiekin lan egiteko, baita udal politika sozial bat bultzatzeko eta ezkerreko bidetik indarrak batzeko.

Udala eta berak kudeatuko dituen baliabideak herritarrenak direnez, antzuolarrak informatuta edukitzeko, lantaldeetan beren parte-hartzea errazteko eta zinegotzien lana kontrola ahal dezaten bideak zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu.

Ahalegin honetan, beharrezkoak zaituztegu eta zuen laguntza espero dugu.

# Markak hausten

**Aitor Ugalde** (Txirrinka Oñatiko bizikletazaleen elkartearen izenean)
> Oñati

Markak hausten gabiltza egunero gure joan-etorrian. Kirola egitea gustatzen zaigu bailara honetan, baina izerdia eta galtzak jantzi behar ditugu jarduera hori egiteko. Bitartean, gure egunerokotasunean autoa dugu bide lagun eta udal agintariei aparkalekuak egiteko eskatzen diegu; noski, politikariek autoei baliabide guztiak ematen dihardute.

Aurrekontu potoloa darabilte eginkizun horretarako, baina aparkaleku gehiago egitea ez da soluzioa, epe motzean beterik daudelako eta beste batzuek egiteko eskaera zabaltzen delako.

Soka eteteko ordua da eta oinezkoak eta bizikletazaleen tokian jartzekoa ere; bitartean, guk ere gure jardunean bizikleta erabili eta udal agintariek baliabideak jarri behar dituztela eskatzen gabiltza.

Bilera mordo bat izan dugu gure herriko agintariekin: mugikortasun foroan ibili ginen, bertan lan handia egin zen, baina ezertarako; ekimen hau atera zenetik ezer gutxi egin dela aitortzea, baita adarra jo digutela ere ozen esaten dugu.

Adibide gisa Kalegoienan bidegorri bat zihoan, baina "ahaztu egin zitzaien"..., luze joango ginateke.

Orain berriz gaia serio hartzeko prest daudela aditzera eman digutenez itxaroten gaude.

Bitartean, segi dezagun gure joan-etorrian bizikleta erabiltzen eta aurrekontuak...

# Antzuolako herriari

**Pilar Etxaniz**
(Zutik, Ezker Batua-Berdeak eta Aralarren izenean)
Antzuola

Zorionak EAE-ANVri lortu duen emaitzagatik.

Eskerrak gugan sinistu dutenei eta Udalean lan egiteko aukera eman digutenei. Gure aldetik, saiatuko gara huts ez egiten. Pozten gara aurkeztu garen Antzuolako alternatiba guztiak Udalean ordezkatuta egon ahal izango dugulako. Aniztasun hau ona da, ikuspuntu ezberdinak egoteak gaiak sakonago aztertzera eramango gaituelako eta herritar guztiak kontuan hartzera.

# Bergarako Musika Eskolari

**Elisabet Agirre**
Bergara

Estimatzekoa da eskolan lan egiten duzuen irakasle guztion lana. Txalotzekoa, ume eta gazteak erakarri eta musika ikasten motibatzeko egiten dituzuen ahaleginak. Zoriontzekoak, sortu dituzuen hainbeste talde: orkestra sinfonikoa, musika banda, haur abesbatza, akordeoi orkestra, soka taldea... Eskertzekoa, talde horiek eskaintzen dizkiguten entzutesaioak.

Baina beste gauza bat da hartzen dituzuen erabakiak gurasoon jakinaren gainean jartzeko erabiltzen dituzuen metodoak. Ez nuke lehen aipatutako inongo aditzik erabiliko kalifikatzeko.

Bigarren nibeleko diploma lortzeko Hizkuntza musikala 5. maila, Instrumentua 6. maila, Korala 1. maila eta 2. maila behar dira. Kurtso hasieran azalpen eske joan ondoren, Korala egiteko bi aukera genituela esan zenidaten: edo bi urte Korala egin matrikula ordainduz, edo aurten hasi eta 3 urte Koro egin ondoren, ordaindu gabe, konbalidatzea eta diploma lortzea.

Hainbat gurasoren erabakia bigarrengoaren aldekoa izan zen. Hara non, gurasoen gaizki ulertzea egon omen zen (Koroan dauden ikasleen gurasoena?). "Sentitzen dugu, baina...".

Arazoa konpondu duzue. Erabakia hartuta dago: beste bi urte egin beharko dituzte, 20 euro hilabete bakoitzeko ordainduz (eta aurten Koroan 3. urtea egin dutenek, berriz, beste urtebete egin beharko dute, hileko 20 euro ordainduz, noski).

Erabaki duzue. Behin betikoz. Hitzak haizeak daramatza.

# Txapela antolatzaileei

**Migel Mari Jauregi, Julen Iparragirre eta Jose Mari Iturbe**
Antzuola

Urtero bezala, eta badoaz batzuk, Olade pilota elkarteak antolatu, epaile lanak egin eta afari gozoa eskaini digu. Guk partaide bezala ez dugu joko zirraragarririk erakutsi, zenbaitetan Valentin aspertu ere egingo genuen, baina gustuko dugun kirola eginez gazte eta hain gazte ez garenok txantxa, desafio eta paretabiko gutxi batzuekin gozatu dugu, eta zer esanik ez inguruan sortzen den lagunartearekin.

Lau lerro merkeak dira, baina ondo merezitako esker ona antolatzaileei, Parte hartu dugunon aldetik.

# Zorionak!

**Ander Arantzabal**
Bergara

Garaipen handia lortu dute Bergarako eskubaloi talde nagusiekoek. Euren ligako onenak izan dira eta datorren urtean Euskadiko Txapelketa jokatuko dute. Zorionak, hortaz, Bergarako eskubaloi talde nagusiko jokalariei eta, bereziki, taldeko entrenatzaile eta herriko eskubaloi saileko arduradun denari: Josetxo Muniategiandikoetxeari.

Sekulako meritua dauka Muniategik, urte piloa daroatza-eta Bergarako eskubaloian eta harengatik izango ez balitz, zalantza handiak dauzkat Bergaran eskubaloirik izango ote zen.

# Giroa pil-pilean

**Igor Larrañaga**
Bergara

Bergarako jaietan ekitaldi ugari egon da aurtengoan, baina nik lehiaketa bati buruz idatzi nahi dut: elkarteen arteko bakailao lehiaketa.

Aurten, lehenengoz hartu dut parte lehiaketa horretan, koadrilako hiru lagunekin, eta benetan harrituta gelditu naiz lehiaketa horretan dagoen irabazteko grinarekin. Gu jai giroan aurkeztu ginen bertara (lo egin barik, egia esan) goiza ondo pasatzeko, eta ondoren, lagunekin bazkaltzera joateko asmoarekin. Hasteko, txistorra jaten eta banatzen hasi ginen inguruan zeuden lagunei.

Orduan etorri ziren lehenengo kexak: gu lau pertsona ginela eta bi bakarrik izan behar zirela, hesitik barrura ezin zela inor egon. Batzuk nire lagun baten aita ikusita beldurtu egin ziren itxuraz, eta horrelakoak, baina guk geurearekin jarraitu genuen umore onean, bakailaoari *meneo* pixka bat emanez. Egia esan, itxura ona zeukan gure bakailaoak, baina han zegoen maila ikusita bagenekien ez genuela saririk izango.

Eguerdirako, jende multzo polita bildu zen San Martin plazan eta sari banaketaren ordua iritsi zen. Denon ezusterako, Gorla elkarteak (geureak) hirugarren saria lortu zuen. Jendeak txalo ugari egin zigun, baina batzuei ez zitzaien asko gustatu. Ez da nire asmoa polemika sortzea, baina epaimahaia horretarako dago eta errespetatu egin behar da bere epaia. Bukatzeko, zorionak Hermandad Pertxa eta Artatse elkarteei lortutako sariagatik.

A, gure bakailaoa *rico-rico* zegoen.

# ZUZENKETA

Joan zen egubakoitzeko GOIENKARAko *Aretxabaleta* atalean udako kanpaina jarri zuela abian Kirol sailak albistea argitaratu genuen. Iazko uztailean ateratako artxiboko argazkia jarri genuen albistean, patinaje ikastaroko ikasleak eta Mikel Morras irakaslea. Gaizki ulerturik egon ez dadin argitu nahi dugu aurten patinaje ikastaroak ez dituela Mikel Morrasek egingo.

GOIENKARIA

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

# Nahi al duzu gasolina edo diesel Credikutxa bat ?

Auto berria, motorra, karabana...
Nahi duzun guztia duzu **kutxa**n. Ez daukazu urrunago joan beharrik.

Jarri martxan zure **Credikutxa Automobila**, baldintza bikain-bikainetan eta abiadura bizkorrean:

- Telefonoz: **902 10 32 10**.
- **kutxanet** bidez.
- Zure ohiko **bulegoan**.
- Eta **kutxazainetan**.

credikutxa

*Gauzak, erraz.*

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

**5 ateko Opel Astra Edition Berria** duzu orain, **ekipamendu osoenarekin**, bakarrik **14.550€*** ordainduz.

• Klimatizadorea • 16''-ko aleaziozko llantak • ESP®Plus Egonkortasunerako kontrol elektronikoa TCPlus Trakziozko kontrol elektronikoarekin • IDS Txasisa • Gurutzaldi-abiaduraren kontroladorea • Barruko ordenagailua • CD Irratia • Larruzko bolantea integratutako aginteekin • 6 airbag

Edo, nahiago izanez gero, Opel Astra bat duzu **12.570€**-tik aurrera**

**Horrez gain, 2008ra arte ez duzu ordainduko****

EURO NCAP www.euroncap.com ★★★★★ EuroNCAP "5 Izar"-eko kalifikazio gorena talka probetako alboko eta aurrez-aurreko ingoaktuetan eta umeen babeserako sedan konpaktuen mailan.

Fabrikatzaileari gomendatutako salmenta prezioa Penintsula eta Balearretan 07/06/30era arte. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, osagarrien kit-a, promozio-deskontua eta Prever Plana barne *5 ateko Astra Enjoy 1.4 90cv eta **5 ateko Astra Essentia 1.4 90cv autoetarako. *** Finantziazio-promozioa GMAC-rekin finantzatutako operazioetan 07/06/30era arte. Lehen ordainketa 2008ko urtarrilean. Gama Astra: Kontsumo mixtoa (l/100km) 4,8tik 9,4ra arte. CO2 (gr/km) emisioa 130etik 226ra arte.

GMAC

**Giauto**

www.giauto.es
clientes@giauto.es

salmentak: 902 345 123
tailerra: 902 345 125

ELGOIBAR Olaso 25
EIBAR Otaola 27
ANOETA-TOLOSA Benta-Aldea Ind. 3
ARRASATE San Andres 10D
BERGARA Olabarrena
OLABERRIA Karobi Ind.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Tfnoa. 943793090
www.debagoiena.net

## Lanbide profilak

**Arrasateko Lanbide Hastapeneko zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:**

**1. maila**
- **Industri mekanikako laguntzailea**
- **Eraikuntzen oinarrizko mantenua**

**2. maila**
- Behe tentsioko instalazio elektrikoen laguntzailea
- Iturgintzako laguntzailea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

**AURREMATRIKULA**

**Ekainaren 14tik 30era**

Non: Udaletxeetan. (Enplegu edo gizarte zerbitzuak)

*Izen emate orriak udaletxean bete behar dira




LANBIDE HASTAPENA Nafarroa etorbidea, 19 20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA) Tfnoa. 943792890 - 943793090

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39

**> ARETXABALETA**
EAEko zinegotziek argi daukate Udalean egon behar dutela **> 30**

**> ESKORIATZA**
Kirol elkartekoek denboraldiko sariak banatu zituzten **> 35**

**> ANTZUOLA**
Parrokiari 25 urtean dirulaguntza ematea erabaki dute **> 35**

**> ELGETA**
Aralarrek gobernuan sartzea proposatu die beste biei **> 37**

**ARRASATE** > II. ELKARTASUN EGUNA

# Presoen aldeko oihartzuna, egitarau zabala bilakatuta

**ADIN GUZTIETARAKO**
Musikaz gain, umeen gunea, herri kirolak eta herri bazkaria

**MANIFESTAZIO ISILA**
Antolatzaileek eskatu dute manifestazioan esku hartzeko

**19 IKUSKIZUN**
17:00etatik 19:00etara bitartean 19 ikuskizun zenbait tabernatan

**HERRIKO MUSIKARIAK** Herriko hainbat musika taldetako ordezkariak Elkartasun Egunaren aurkezpenean. IKER BARANDIARAN

**I.B./U.M.** > ARRASATE

Zapatuan, ekainaren 9an, Elkartasun Eguna egingo dute bigarren aldiz Arrasaten. Elkarte eta herritar asko ordezkatzen dituen Portaloira Topaguneak antolatu du.

Egunaren helburua da herriko preso politikoen eskubideak aldarrikatzea. Hain zuzen ere, zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak edota larri gaixorik daudenak askatzea eta gainontzeko presoak Euskal Herriko espetxeetara ekartzea eskatzen dute.

Aldarrikapen hori zabaltzeko hainbat ekimen antolatzen dihardute, baina handiena Elkartasun Eguna da. Helburu horrekin egun osoko egitaraua antolatu dute adin guztietako herritarrendako. Zapatuan umeendako tailerrak eta puzgarriak, koadrilen arteko herri kirolak, herri bazkaria eta beste egingo dituzte. Iazkoa oso arrakastatsua izan zen, eta aurtengoa ere hala izango dela uste dute.

**HERRITAR ASKOREN NAHIA**

Portaloira Topagunea herritar askok osatzen dute, eta ondoriz, jende askok egiten du lan Elkartasun Eguna osatu eta hobetzeko.

Joan den urtean, esaterako, 150 boluntario ibili ziren egunetan, eta 9an, 225 herritar egon ziren herri bazkarian, 600 pertsona arratsaldeko kontzertuetan, 1.300 lagun manifestazioan eta 1.500 gaueko kontzertuan, besteak beste.

**AURTEN BIDEOKLIPA EGIN DUTE**

Bestalde, iazko edizioan Elkartasun Egunaren gaineko kantua sortu zuten. Aurten, berriz, kantu hura oinarri hartuta bideoklipa egin dute iazko irudiak erabilita. Hain zuzen ere, jendaurrean aurkeztu dute asteon Kulturaten, prentsaurrekoan. Ekitaldian herriko hainbat musikari batu ziren, herriko musika taldeak direlako eguneko protagonista garrantzitsuenetakoak.

**19 IKUSKIZUN 19 TABERNATAN**

Izan ere, iaz arratsaldean musika kontzertu ugari egin zituzten tabernetan eta aurten kopuru hori biderkatu egin dute. 17:00etako txandak betetzen,

(34. orrialdean jarraitzen du)

## Gau eta eguneko plana, zapatuan

**9, zapatua**

11:00 Umeen txokoa Seber Altuben: puzgarriak, tailerrak, ipuin kontalariak...

11:30 Koadrilen arteko herri kirolak Kondekua zelaian.

14:30 Herri bazkaria Kondekua zelaian.

17:00 Tabernetan kontzertuak:
Dat: Orreaga 778.
Ekaitz: Gose.
Iturriotz: Default.
Etxerat: Paki Kolibri.
Ederra: Jim TNT.
Monte: Otitis Redding.
Gure Leku: Denial.
Gaztetxea: Sospechosos.
Iluntz: Last Rebels.

18:00 Tabernetan kontzertuak:
Irati: The 5 Twisters.
Biona: Aggressive Combat.
Taupa: Fly Shit.
Jai Zale: Plan B.
Basati: Lost Souls.
Itzala-Kajoi: Bertso trama.
Haizea: Show Business.
Ostantz: Enboskada.
Lora: Los Cretinos.

19:30 Manifestazioa Seber Altubetik abiatuta.

Kalejira Orcresta Nacionalekin (Electrotuna ohia)

22:00 Kontzertua Monterron parkean: Des-Kontrol (Euskal Herria), The Business (Ingalaterra), Frontkick (Berlin) eta Never Surrender (Euskal Herria).

## ARRASATEKO PRESO POLITIKOAK

Biharko ekimenaren helburua elkartasuna adieraztea da. Kasu honetan, herriko presoei erakutsiko diete elkartasuna. Oro har, preso guztiei, baina bereziki egoera okerrenean daudenak izango dituzte gogoan eta haien eskubideekiko errespetua aldarrikatuko dute.

Elkartasun hori babestu dute, besteak beste, 25 erakunde, elkarte eta sindikatuk. Batzuk aipatzearren: Eusko Alkartasuna, Ezker Batua, Aralar, Zutik, Eusko Abertzale Ekintza eta Batasuna alderdiek.

**> JOSU URIBETXEBERRIA BOLINAGA (LANGRAITZ)**
Orain dela bi urte giltzurruneko minbizia diagnostikatu zioten. Ebakuntza egin zioten eta orain giltzurrun bakarrarekin bizi da. Bizi osorako jarraipen medikua behar du. Hala ere, 92. artikulua ez diote aplikatzen.

**> JOSE INAZIO GAZTAÑAGA BIDAURRETA (GRANADA)**
2006ko martxoaren 29an kalean egon beharko luke, baina *Parot doktrina* aplikatu eta beste 13 urteko kartzela zigorra betearazi gura diote.

**> GABRIEL URIZAR MURGOITIO (JAEN) ETA JESUS MARI ZABARTE (HUELVA)**
Zigorraren hiru laurdenak aspaldi beteta dituzten arren, kartzelan jarraitzen dute biek; gainera, Arrasatetik ehunka kilometrotara dauden kartzelatan.

**> JON AGIRRE AGIRIANO (LANGRAITZ)**
62 urte ditu eta dagoeneko 26 urte egin ditu kartzelan. Larri gaixo dago. Hala ere, ez diote aplikatu 92. artikulua, eta orain, *Parot doktrina* aplikatu eta beste lau urtez kartzelan egon behar duela erabaki dute.

**> LUIS MARI AZKARGORTA (ZARAGOZA)**
Zigorraren hiru laurdenak bete ostean, askatu egin zuten. Baina handik gutxira atzera ere espetxeratu zuten, ezarritako zigor osoa bete dezan.

**> UNAI PAROT NAVARRO (KORDOBA)**
Bere izena daraman *Parot doktrina*-ren eraginez, bizi osorako espetxe zigorra ezarri diote.

**> AMAIA ARRIETA GONZALEZ (PALENTZIA)**
Jarrai-Haika-Segi auzia dela-eta, urtebetez aske egon ostean, atzera ere espetxeratu zuten. Palentziako kartzelan dago, zortzi hilabete dituen Ilargi alabarekin.

**> GAINERAKO PRESO ARRASATEARRAK**
Gogoan izango dituzte baita ere: Kepa Urra Guridi (Cadiz); Aratz Gomez Larrañaga (Asturias); Premin Sanpedro Larrañaga (Algeciras); Txus Goikoetxea Garralda (Albacete); Josu Arkauz Arana (Alacant); Kristina Goirizelaia Gonzalez (Fleury) eta Igor Letona Biteri (Nanterre).

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 9 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 10 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 11 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 12 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 13 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 14 | Español | Araba 14 | 943 79 18 65 |
| Egubakoitza, 15 | Ruiz | Magdalena 31 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 9 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 10 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 11 | Urrutikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 12 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 13 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 14 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 15 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 9 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 10 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 11 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 12 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 15 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 9 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 10 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 11 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 12 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 13 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 14 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 15 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia) ..... 943 46 11 11
DYA (Antzuola) ..... 943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) ..... 943 76 55 76
Suhiltzaileak ..... 943 78 28 00
Ertzaintza ..... 943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala ..... 943 03 53 00
- Antzuola ..... 943 76 62 23
- Aramaio ..... 945 44 53 40
- Aretxabaleta ..... 943 71 19 59
- Bergara ..... 943 03 54 00
- Elgeta ..... 943 03 54 00
- Eskoriatza ..... 943 71 44 52
- Leintz Gatzaga ..... 943 71 47 46
- Oñati ..... 943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola ..... 943 76 62 46
- Arrasate ..... 943 79 14 39
- Aretxabaleta ..... 943 71 18 63
- Bergara ..... 943 77 91 06
- Eskoriatza ..... 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ..... 943 71 47 46
- Oñati ..... 943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA ..... 902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate ..... 943 79 12 22
- Aramaio ..... 945 44 50 33
- Aretxabaleta ..... 943 77 12 64
- Bergara ..... 943 79 12 22
- Eskoriatza ..... 943 71 40 59
- Oñati ..... 943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea ..... 943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) ..... 943 78 15 12
Nekazaritza ganbera ..... 943 76 10 15
Zerga Bulegoa ..... 943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate ..... 943 77 11 43
- Bergara ..... 943 76 44 42
- Oñati ..... 943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio ..... 945 44 53 35
- Arrasate ..... 943 77 16 77
- Aretxabaleta ..... 943 71 26 28
- Bergara ..... 943 76 56 41
- Elgeta ..... 943 76 82 84
- Eskoriatza ..... 943 71 53 28
- Oñati ..... 943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola ..... 943 76 60 65
- Aramaio ..... 945 44 53 74
- Arrasate ..... 943 77 01 05
- Aretxabaleta ..... 943 71 10 27
- Bergara ..... 943 77 91 58
- Eskoriatza ..... 943 71 46 88
- Leintz Gatzaga ..... 943 71 47 46
- Oñati ..... 943 78 03 53

Udalak
- Antzuola ..... 943 76 62 46
- Aramaio ..... 945 44 50 16
- Arrasate ..... 943 79 09 00
- Aretxabaleta ..... 943 71 18 62
- Bergara ..... 943 77 91 00
- Elgeta ..... 943 76 80 22
- Eskoriatza ..... 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ..... 943 71 47 46
- Oñati ..... 943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN

**Zapatua, 9**
Azken egunotan egin duen egunik beroena egingo du. Horrek eraginda, baliteke iluntzean ekaitza sartzea. Dena den, oro har, egun polita izango dugu

**Domeka, 10**
Ekaitz arriskua izango dugu egun guztian, baina ez leku guztietan berdin, sakabanatuta, baizik. Dena den, gerta liteke euririk ez egitea.

### EUSKAL HERRIAN

Azkenaldian horrenbestetan eskatu dugun beroa etorriko zaigu zapatuan. Sargori eta guzti egingo du. Baina, era berean, horrek ekarriko du ekaitza egiteko arriskua, bereziki, domekara begira. Halaber, domekan igarriko dugu beherakadatxoa berotasunean.



### TENPERATURAK

| | |
|---|---|
| **MINIMOA** Eguena, 31 | **8 ºC** |
| **MAXIMOA** Eguaztena, 30 | **23 ºC** |
| **ASTEKO EURIA** (l/m²) | **20 L** |

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 30** | 23 ºC | 10 ºC | - l/m² |
| **Eguena, 31** | 20 ºC | 8 ºC | 13,1 l/m² |
| **Egubakoitza, 1** | 20 ºC | 11 ºC | 6,3 l/m² |
| **Zapatua, 2** | 17 ºC | 12 ºC | 0,2 l/m² |
| **Domeka, 3** | 20 ºC | 11 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 4** | 16 ºC | 13 ºC | 0,4 l/m² |
| **Martitzena, 5** | 21 ºC | 13 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA EKAINEAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 8 | 15 | 22 | 1 |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Turismo Bulegoa zabalik egongo da irailaren 30era arte**

Udako denboraldia bukatu bitartean zabalik egongo da Turismo Bulegoa. Dena den, hainbat egunetan itxi egingo dute. Ekainari dagokionez, itxita egongo da 10ean, 17an eta 24an.

OÑATI
**> Herri batzarra deitu du Ezker Abertzaleak martitzenerako**

Hilaren 12an, martitzena, egingo dute herri batzarra, 19:00etan, Arrano elkartean. Landuko dituzten gaiak dira: hauteskundeek lagatako egoera eta aurrera begira herrian abiaraziko duten lan ildoa.

ANTZUOLA
**> 'Enplegu bat lortu' delako ikastaroa egingo dute KZgunean**

Hilaren 14an, eguena, egingo dute ikastaro hori, 18:00etatik 20:00etara. Euskaraz izango da, eta leku libreak daude.

OÑATI
**> Borondatezko alkohol probak**

Bihar, zapatua, borondatezko alkohol probak egingo dituzte Korpus jaien barruan. Unibertsitate etorbidean egingo dituzte, doan, eta norberaren odoleko alkohol maila jakiteaz gain informazioa ere emango dute. Besteak beste, aditzera emango dute positibo emanez gero zenbat denbora behar den alkohola metabolizatzeko. 00:00etatik 03:00etara egongo dira.

OÑATI
**> Arrantza txapelketarako izenematea zabalik dago**

Hilaren 17rako arrantza txapelketa antolatu dute Alzu arrantza dendak eta Pago Uso elkarteak. Arantzazu errekan izango da, 09:00etatik 12:00etara. Interesatuek Alzu arrantza dendan eman dezakete izena hilaren 14a baino lehen.

ARETXABALETA
**> Lorezaintzaren gainekko ikastaroa antolatu du Loramendik**

Hilaren 20an eta 27an izango da, 18:00etatik 20:00etara. Lehenengoan kanpoko loreen gainean jardungo du Blanca Perak; bigarrenean, barrukoen gainean. Izenematea zabalik dago eta doan da.

ARRASATE
**> Nagusien danborradarako entseguak hasi dira**

San Juanetako danborradarako helduendako entseguak dagoeneko hasi direla gogorarazi nahi die SUDCek herritarrei. Astelehen eta eguaztenetan izango dira, 20:30ean, San Viatorren, Arrasate pasealekuan.

ARRASATE
**> San Juanetako erretiratuen omenaldirako izenematea zabalik**

Urtero bezala, 80 urtetik gorako herritarrak omenduko dituzte San Juan jaietan, ekainaren 24an. Hori horrela, Udaletik jakinarazi dute parte hartzeko izenematea zabalik dagoela hilaren 19ra arte, BAZen. Beharrezkoa izango da nortasun agiria aurkeztea.

ARRASATE
**> Arrasate Musikalen matrikulazio epea irekita**

Ekainaren 21era arte egongo da zabalik matrikula egiteko epea. Astelehenetik eguenera izango da hori, 17:00etatik 20:00etara. Hain zuzen, 4 urtetik gorakoendako instrumentu eta ballet eskolak daude. Baita helduendako talde bereziak ere.

BERGARA
**> Irteera Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeekin**

Ekainaren 16an eta 17an egingo dute irteera, Sierra de Hijar-Alto Campora. Irteera ordua 18:00etan izango da, Fraiskozuritik. Izena emateko jo Pol-Pol taldearen bulegora.

BERGARA
**> Argazkilaritza ikastaroa antolatu du Pol-Polek Udalaren laguntzarekin**

Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa izango da, 24 ordukoa, hilaren 11tik 28ra arte. Prezioa 50 euro da –35 erretiratu eta langabeendako–. 15 lagunendako lekua dago. Izena emateko dirua sartu behar da kontu korronte honetan: 2101 0070 84 0010740827 –*Argazki ikastaroa* hitzak eta jarraian ikaslearen izen-abizenak zehaztuta–. Ordainagiria kultura etxera eraman beharko da. Bergararrek lehentasuna dute.

BERGARA
**> Kilometroen aldeko herri jaialdia egingo dute gaur, eta han aurkeztuko dute jaiaren kantua**

Jaialdia 22:00etan hasiko da eta Kilometroak 07ren kantua aurkeztuko dute. Asier Elortzak, Belceblues taldeko kideak, egin du musika eta hitzak, Jarduneko bertso eskolak. Sarrerak salgai daude: pilotalekuan, Elkar liburu-dendan eta Aranzadi Ikastolako idazkaritzan. 5 euro nagusiendako eta 3 umeendako.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# AHTren galdeketa debekatu arren, egin beharko litzateke?

**Garazi Eriz**
Ikaslea
Aramaio

Bai, herri galdeketa egin beharko litzatekeela uste dut. Aramaio herri kaltetu bat da eta zeresan handia dauka egitasmo horretan. Bakoitzak bere iritzia emateko aukera izan beharko luke.

**Mirian Robledo**
Ikaslea
Aramaio

Bai. Kontsulta egin beharra dagoela iruditzen zait. Horren bitartez, proiektu horren inguruan jendeak zer pentsatzen duen jakingo genuke. Herritarrek eskubide osoa daukagu iritzia emateko.

**Maitane Errasti**
Ikaslea
Aramaio

Bai. Herritarren iritzia entzun behar delako eta azkenean, etorkizunean guztiei eragiten digulako Abiadura Handiko Trenak. Aramaioko inguruneari eta herritarrei eragingo dio horrek.

**Karmelo Bideburu**
Langilea
Aramaio

Trenaren kontra nago, ingurune guztiak hondatuko ditu-eta. Proiektua bertan behera uztearen alde nago. Hasieran ez bada gelditzen, gero zaila izango da hori bertan behera uztea.

**Jose Olaizola**
Langilea
Aramaio

Bai, nik pentsatzen dut egin egin beharko luketela, herritarrek tren horren gainean zein iritzi eta jarrera duen jakin dezaten. Herriak eskubidea du bere iritzia zein den esateko.

txistuak

GOIENKARIA

## Amillaga kaleko espaloia hondatuta dago

Bergarako Amillaga kaleko espaloietaz kexu da irakurle bat. Oso egoera txarrean aurkitzen dela eta beraz, handik ibiltzea zaila dela salatu du. Gainera, euria egiten duenean putzuz betetzen dela dio Ahalik eta bizkorren konpon dezatela eskatu du irakurleak.

usteak uste

Iker Barandiaran

## Eskema itxiekin ez goaz inora

Orain dela gutxi domeka eguerdi baten bidegorritik bueltatxo bat ematera joan ginen bikotea eta biok. Halako baten, ezagun batzuekin tril egin eta hara zer esan ziguten: "Berandu zabitze, e!". Momentuan ez nien ezer berezirik erantzun, baina gero pentsatu nuen gehienok zelako *buru-laukiak* garen eta zelako eskema itxiak ibiltzen ditugun. Ordu batzuk gauza zehatz batzuetarako, adin batzuk gauza batzuetarako... norberak sudur-puntan jartzen zaiona egin beharrean, guk geuk mugak jartzen ditugu... eta ez dut uste hori osasungarria denik.

Inoiz halakorik ere esan didate kontzertu bat ikusten nagusiena izan naizenean, baina emanaldia ikusi gura badut, ez dit axola.

Bestalde, eskema itxiei dagokionez, nire ustetan akats oso handia da ETAk su-etena apurtzeko hartutako erabakia; oso handia, kontuan hartuta bide armatuaren alde gero eta jende gutxiagok egiten duela Euskal Herrian.

Bestalde, EAJk eta PSOEk argi izan beharko lukete Euskal Herriko arazo nagusiak konpontzeko ezinbestekoa dela benetan konponbidea aurkitu gura izatea, eta ez bakarrik itxurak egitea. Bada ordua guztiak lanean hasteko!

5 galdera...

## Santi Sarmiento

Gurutze Gorriko arduraduna
Elorregi

**1. Uda gertu dago. Nola jokatu behar dugu bero bolada baten aurrean?**

Bazkaldu ostean kalera irtetea saihestu behar da. Gorputza ondo hidratatuta izatea ere funtsezkoa da. Horretarako, likido asko edan behar da, egarri ez bagaude ere. Alkohola beroaren etsaia da, izerdia botatzea ez du-eta laguntzen.

**2. Zer egoeratan aplikatuko ditugu esandako neurri horiek?**

Tenperaturaz gain, hezetasunak ere eragina du. Hezetasuna handitzen den heinean, gero eta izerdi gutxiago botatzen dugu eta horrek gorputzaren tenperatura mantentzea oztopatzen du. Hala ere, pertsona bakoitzari era ezberdinean eragiten dio beroak. 29-30 gradutik aurrera sufritzen hasten den jendea badago.

**3. Zer egin behar da ondoko norbait zorabiatzen bada beroagatik?**

Lehenik eta behin, konortea duen edo ez konprobatu. Alegia, besoak mugitu, hitz egin edo bista mantentzeko gauza den. Etzanda izan eta ur hotzeko oihalak jarri behar zaizkio kopetan edo garondoan. Horrela gorputzaren tenperatura jaitsiko da. Ez bada osatzen, 112ra deituko dugu berehala.

**4. Udako hilabeteetan, zeintzuk dira arrisku handien duten taldeak?**

Nagusiez, umeez eta haurdun dauden emakumeez gain, arazo kardiobaskularrak eta neurologikoak dituzten pertsonak. Giltzurrunetan arazoak dituztenak eta diabetesa dutenak ere zerrenda horretan sartzen dira. Barizeak ere ez dira batere onak, beroarekin handitu egiten dira-eta.

**5. Zeintzuk dira gorputzerako bero bolada arriskutsuenak?**

Urteko lehen bero bolada arriskutsuenetarikoena dela frogatuta dago. Gorputza oraindik ez dagoelako ohituta tenperatura altuetara. Lehen eguna gogorrena izaten da, gorputza apurka-apurka ohitzen delako. Bero bolada ohi baino gehiago luzatzen bada ere, gorpuak igarri egiten du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 30.000

Arrikrutzeko koban hartz eta pantera hezurdurak aurkitu badituzte ere, aurkikuntzarik garrantzitsuena da orain dela 30.000 urte inguru hildako leize-lehoi baten hezurdura. 3,5 metro luze eta 400 kilo ingurukoa lehoiarena. Estatuan aurkitutako leize-lehoi hezurdura bakarra da.

**INGURUMENA** > ASTE BERDEA 2007

# Ikutixora bihar, zapatua, eta erreka garbitzera etzi, Aste Berdea amaitzeko

Gaur, berriz, 19:00etan da hitzordua, Kulturaten; 'Basajaunaren ametsa' dokumentala emango dute, basoen eta gizakiaren eraginaren gainekoa




**PLANOA** Argazkian, Ikutixoko ibilaldiaren nondik norakoa. ARRASATEKO UDALA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Neurrigabeko kontsumoa, iraunkortasuna eta, oro har, ingurumenaren gaineko hausnarketa bultzatu du Udalak, asteon, Aste Berdearen bueltan antolatutako ekitaldien bitartez.

Bada, oraingo asteburuan beste hiru hitzordu egin dituzte, eta horiekin borobilduko dute Aste Berdea 2007.

Batetik, gaur, egubakoitza, *Basajaunaren ametsa* izeneko dokumentala emango dute Kulturaten, 19:00etan. Adin guztietarako egokia da.

**IKUTIXO INGURUTIK ZEHAR**

Bestetik, biharko, Ekutioarroa edo Ikutixo inguratuz, mendi ibilaldia antolatu dute. 09:00etan egin dute hitzordua, udaletxe aurrean; eta, aurreikusitakoaren arabera, sei kilometroko ibilaldia egingo dute. "Adin guztietarako da egokia; horretan pentsatzen antolatu dugu ibilaldia", azaldu dute Ingurumen Sailetik.

Azaldu dute, baita ere, Ikutixo ezagutzera joatearen zergatia: "Ikutixo aukeratu dugu, hura delako Uribarri auzoan geratzen den puntu berde ia bakarra. Eta Uribarri aukeratu dugu "zigor" handia jasan duen auzoa delako, enpresa asko dago, orain Garaia ere egiten dabiltza... oro har, esan dezakegu zeharo artifizializatuta dagoen auzoa dela".

**IKUTIXOREN ABERASTASUNAK**

Eta Ikutixo da justu kontrakoa. Natura aldetik aberastasun handia duen gunea da. Adibidez, ditu sei errekasto, eta, gainera, ubidean interbentziorik ez dutenak. Ur horietan bizi dira, besteak beste, baso-igel gorriak, amuarrainak eta ezkailuak.

Animaliekin jarraituz, azeriak, lepazuriak, orkatzak eta basurdeak ere badira Ikutixon.

Zuhaitz edo zuhaixka aldetik ere badu kontuan hartzeko zerrendatxoa: gorostiak, haltzak,arteak, haritzak, urkiak eta gaztainondoak. Eta lau zorbide ere baditu eta inguruari izena ematen dion Ekutio baserria da auzoan geratzen den familia ustiapen bakarra.

**ERREKA GARBITZERA**

Aste Berdearekin bukatzeko, etzi, domeka, erreka garbitzera joateko dei egin du Ingurumen Sailak. Iaz moduan, Eroski hipermerkatuaren ondoan garbituko dute erreka. Hala, hitzordua da 10:00etan Eroski ondoko berdegunean. Bukatutakoan, batutako zaborra erdigunera eramango dute, herritarrek ikus dezaten.

ERREKAREN EGOERA

## Iazko erreka garbiketan, 200 metroan 500 kilo zabor batu zuten 17 lagunen artean

Iazko Aste Berdearen hitzorduetako bat izan zen Deba ibaiaren zatitxo bat garbitzea. Eta kezkagarria da benetan handik atera zuten material mota eta kopurua. 200 metro erreka garbitu zuten eta 500 kilo zabor atera zuten handik, bi orduan. Tartean, batu zituzten plastikozko eskularruak, poltsak, latak, brikak, burdinak, autoen bateriak eta beste. Guztia ere kutsagarria oso errekarendako. Eskoletako 17 ikasle eta gurasok parte hartu zuen ekintzan. Garbiketa lanak egin eta gero, material guztia Monterrongo parke aurrera eraman zuten, herritarrei erakutsi eta guztion kontzientzia pizteko.

>OSASUNA

## Diabetea zela zaindu esplikatuko dute Abaroan, eguenean

Datorren eguenean, ekainaren 14an, diabetearen gainean jardungo du Javier Vilches adituak, Abaroan. Besteak beste, azalduko ditu diabetea duten gaixoek egin beharreko zaintzak zeinzuk diren.

Hitzaldia hasiko da 17:30ean, Abaroako bosgarren aretoan eta interesa duen edozeinendako izango dira ateak zabalik.

Kutxaren eta Nazaret zentroaren laguntzarekin antolatu dute Abaroan hitzladi hori.

Bestalde, bezperan, ekainaren 13an Cantabriara txangoa egingo dute Abaroatik.

Bukatzeko, gogoan izan ekainaren 19an bukatzen dela San Juan jaietan 80 urtetik gorako omenaldirako izena emateko epea. Biztanleen Arreta Zerbitzuan egin behar da hori.

> GIZARTEA

## Bihar, zapatua, Atzegiren Eguna ospatuko dute

Bihar, zapatua, ospatuko dute aurtengo Atzegiren Eguna, 13:00etatik aurrera.

Hitzordua egin dute Uarkape pilotalekuaren kanpoko aldean. Han elkartuko dira neskamutikoak eta haien senideak ospakizunaren antolatzaileekin, SUDC elkarteko kideekin. Hala, guztiek batera kalejira egingo dute trikitilariek lagunduta, 14:30 ingurura arte. Orduan, Alkartu elkartean dute hitzordua, SUDCeko kideek prestatutako bazkaria zain zango dute-eta. Bazkalostean, berriz, Uarkape frontoira joango dira atzera, eta hantxe ibiliko dira jolasean eta lagunartean, 19:00ak ingurura arte, jaia bukatu arte.

Bestelako urteetako ospakizunetan moduan, 40 bat lagunen partaidetza espero dute.

HARREMAN

## Bidaia, 1.069 zenbakiarendako

Oraindik ez da azaldu orain dela bi asteburuko Elkartasun Egunean zozkatu zuten bidaiaren irabazlea. Andorran bi lagunendako egonaldia lau izarreko hotelean zozkatu zuten eta zenbaki irabazlea izan zen 1.069. Kontua da domekan bukatzen dela saria eskuratzeko epea. Hura agertu ezean, 3.043 zenbakiaren jabeari emango diote oparia.

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

OGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**HIRIGINTZA** > ETXE BERRIAK SAN ANTOLINEN

# San Antolingo proiektuari ezetz esan diote hainbat auzotarrek

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Musakolako San Antolingo hainbat auzotarren artean galdeketa sinbolikoa egin zuten joan den zapatuan, Institutuan. Brues enpresa eraikitzaileak aurkeztutako proiektuaren gainekoa izan zen galdeketa. Hau da, San Antolingo etxeak bota eta berriak egiteko proiektuaren gainekoa.

**ARRAZOI ASKO KONTRA**

Batzarra antolatu zuen proiektu horren kontra dagoen auzotar talde batek. "Hainbat aditurekin berbetan izan gara proiektuaren gainean, abokatu, aparejadore eta besterekin, eta haiek emandako informazioa azaldu genuen batzarrean. Jendeak ikus dezan egoera ez dela Bruesekoek esandakoa bezain polita", jakinarazi du taldeko kideetako batek. Adibide batzuk ere ipini ditu: "Bruesen proiektua errentagarri izateko, eraiki beharko lukete guri esandako etxebizitza kopuruaren hirukoitza. Hipotekaren bat dutenen egoeraren gainean ez dute ezer esan. Arrasateko Egitamu Orokorra aldatu egin beharko litzateke, eta abar".

**ERABATEKO ADOSTASUNIK EZ**

Auzoko 200 familietatik 88ren ordezkariek parte hartu zuten batzarrean. Bozketaren emaitza honakoa izan zen: 68k proiektuari ezetz esan zioten, 14k alde bozkatu zuten eta 6k, berriz, zuri. "Datu horiek estrapolatuz gero, emaitzak ikusgarriagoak izango lirateke; besteak beste, ezetz esango lukete 154 familiak".

Horrela, Bruesek oso zail dauka egoera. Ekimen pribatua izanda, beharrezkoa da proiektua gauzatzeko erabateko adostasuna lortzea-eta bizilagunen artean.

GOIENKARIA

## 75 urte bete dituztela-eta, omenaldia Udalpe elkartean

2007an 75 urte bete edo beteko dituztenak omendu zituzten zapatuan Udalpen. Ezkerretik hasita: Patricio Etxabe, Lorentxo Altube, Pedro Etxagibel, Jabier Arizabaleta, Jose Zubizarreta, Jose Ramon Mendizabal (lehendakaria), Inazio Zubillaga, Jesus Goñi eta Prudencio Zeziaga. Martin Arana eta Orlando Hernandez ere omendu zituzten, baina haiek ez ziren joan.

ARIZMENDI

## Arizmendikoak garaile, Zernolan

Arizmendi Ikastolako San Viator guneko DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek irabazi egin dute Elhuyar Fundazioak antolatutako Zernola olinpiada. Are gehiago, lehenengo, bigarren eta laugarren postuak eskuratu dituzte. Euskal Herriko 43 ikastetxetako ikasleak lehiatu dira zazpi hilabetez. Zientziaren gaineko olinpiadak dira horiek, "zientzia era atseginean landu eta teknologia berrietan trebatzeko". Saria eman zien Luis Sautuk, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendariak (argazkian).

> EMAKUMEAK

## Nutrizioaren gainean jardungo dute datorren martitzenean Kulturateko areto nagusian

*La dieta inteligente* izenburuarekin, nutrizioaren gainean jardungo du datorren martitzenean Antonio Palomar mediku, osasun hezitzaile eta Sumendi elkarteko kideak. Hitzordua da Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita.

Hala, hark aztertuko du antzinako Grezian erabiltzen zuten dieta; nutrizioaren arloan egin dituzten azkeneko aurkikuntzak berbagai izango ditu eta azalduko ditu jakiek osatzeko dituzten gaitasunak. Horrekin batera, ohiturei aurre egiteko irizpideak ere esango ditu eta kontuan hartuko du nutrizioaren ikuspegi ekosoziala: arlo biologikoak, psikologikoak, ingurumenaren gainekoak eta beste.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

BERGARA AUTOAK
• AUTO BERRIEN ETA AUKERAKOEN INPORTAZIOA: TURISMOAK, FURGONETAK ETA MONOBOLUMENAK
• GARANTIA IDATZIZ
• FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
• PREVER PLANA • ELBARRITASUNAGATIK DESKONTUAK

Autoen eskaerak aukeran:
jlegana@terra.es
Amillaga, 10 • BERGARA • ☎ 943 76 04 58

## Presoen aldeko oihartzuna, egitarau zabala bilakatuta

(15. orrialdetik dator)

tik 19:00etara 19 ikuskizun egongo dira tabernetan. Gose, Default, Jim TNT, Anger, Denial, Last Rebels, The 5 Twisters, Aggressive Combat, Lost Souls, Enboskada eta Los Cretinos talde arrasatearrek egingo dituzte kontzertuak. Horiez gain, kanpoko talde batzuek ere: Orreaga 778, Sospechosos, Show Business, Fly Shit eta Plan B taldeek.

Hortaz, Arrasateko tabernetan mota askotako musika estiloak entzuteko aukera egongo da: punk-rocka, rock-and-rolla, elektronika, trikia, heavya, poprocka, street-punka, deatha, metala, hardcorea eta beste.

**MANIFESTAZIO ISILA**

Arratsaldeko musika maratoiaren ostean, 19:30ean manifestazio isila egingo dute. Portaloira Topagunekoek nabarmendu dute oso garrantzitsua dela ekintza horretan jende asko batzea.

Gauean, berriz, kontzertu erraldoia egingo dute. Monterron parkean izango da, 22:00etan. Punk eta oi! doinuak izango dira nagusi, eta atzerriko talde indartsuek ere esku hartuko dute.

Ingalaterrako The Business da horietako bat. Punkaren bigarren belaunaldiko (70eko bukaera) talde hori, Sham 69 eta Cockney Rejectsekin batera, lehenetarikoa izan zen street-punka lantzen. Hegoaldeko langileriaren ahotsa aldarrikatzen hasi zen, eta Mickey Fitz karismatikoak gidatuta, diskoak kaleratzen eta zuzenean jotzen jarraitzen dute.

**BERLIN ETA LONDRES**

The Businessekin batera, Frontkick talde berlindarrekoek hegazkina hartuko dute kontzertu bakarra egiteko, Arrasatekoa. Bitxikeria moduan, Frontkickeko abeslaria Mallorcako Oi! The Arrase taldeko kide ohia da. 1999an sortu zuten taldea, eta oso ibilbide arrakastatsua izan dute. Punk-rock eta oi! zaleak, biak, agertoki parean batu eta txundituta uzteko gai dira. Aspaldian Slamtilt! punk-hardcore taldeko Stephan baxu jotzailea batu zaie; eta emaitza indartzea lortu dute. Horiekin batera, Des-Kontrol eta Never Surrender talde arrasatearrak ere izango dira agertokian.

**MUSIKA** > ARRASATE MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUAK

# Arrasate Musika Eskolak, astebetean sei emanaldi

Ikasturte bukaera ospatzeko hainbat kontzertu egingo dituzte egunotan

Musika Eskolan, Caja Navarran eta Amaia Udal Antzokian izango dira emanaldiak

**ESKOLAKOAK MUSIKALDIAN** Musika Eskolako ikasle ugari Erandioko musikaldian izan ziren. ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Ikasturtearen bukaera heltzera doala-eta, Arrasateko Musika Eskolako ikasleek hainbat eta hainbat kontzertu egingo dituzte hurrengo egunotan.

Astelehenean, hilaren 11n, musika eskolako hainbat ikaslek kontzertua egingo dute eskolan bertan, 19:15ean. Biolin, akordeoi, klarinete, piano, biola eta bestelako instrumentuen doinuak izango dira entzungai.

Martitzenean, berriz, ikasle talde batek kontzertua egingo du Caja Navarrak Arrasateko Garibai kalean duen aretoan, 18:00etan. Han, oboeak, tronpetak eta beste instrumentuekin musika saioa egingo dute. Eta egun berean, Musika Eskolan, tronboi, tuba eta bonbardino kontzertua egingo dute, 18:15ean.

Kulturatera ere egingo dute kontzertua Musika Eskolakoek. Eguaztenean klarinete eta saxofoi ikasleek emanaldia egingo dute han, 18:30ean. Eta bukatzeko, datorren asteburuari dagokionez, egubakoitzean Amaia Udal Antzokian izango dira, 18:30ean. Ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute; eta, besteak beste, ballet taldeak eta ume abeslariek esku hartuko dute. Eta zapatuan, bukatzeko, banda umeen danborradan arituko da.

**JAIAK** > SAN JUANETAKO EGITARAUA

## Ekainaren 14-15ean etxez etxe bidaliko dute egitaraua

Jaietako ekimenak iragartzeaz gain, egitarauan azalduko dira iazko argazkiak

**U.M.** > ARRASATE

Azken ukituak ematen ibili eta gero, Udala oraingo astean zen San Juan jaietako egitaraua inprentara bidaltzekoa. Hori horrela, ekainaren 14an hasiko dira etxerik etxe banatzen, eta ekainaren 15erako bukatuko dute banaketa. 9.000 ale inguru argitaratuko dituzte aurten.

Egitarauaren azalerako erabiliko dute jaietako kartel iragarlea, Elixabete Villar elorriarrak egindako irudia, hain zuzen ere. Barruko aldea, berriz, iazko jaietan ateratako zenbait argazkirekin ilustratuko dute.

Bestalde, horrekin batera, azken lau urteotan alkate lanak egin dituen Inazio Lakuntzak azkeneko agurra egingo du egitarau horretan.

**KARTELA** Jaietako aurtengo kartela.

**ZENBAIT EKITALDI, BITERIN**

Edukiei dagokienez, berriz, ekainaren 15ean hasiko dira jaien bueltan antolatutako ekitaldiak. Bukatu, berriz, ekainaren 26an bukatuko dira. Udaleko Kultura Sailak 175.000 euro inguruko aurrekontua erabili du ekitaldiok antolatzeko.

Ohi moduan, neska-mutiko, gazte, heldu zein pertsona nagusiendako moduko ekitaldiak antolatu dituzte. Berritasun moduan, ekimenetako batzuk Biteri plaza berrituan egingo dituztela iragarri dute Kultura Sailetik. Esaterako, Eguzkilaruk Biterin gauzatuko du egitarauaren atal bat, xake txapelketa ere Biterin jokatuko dute eta segway ibilgailua ipiniko dute Biterin, gura duenak proba dezan.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

((112))
SOS DEIAK



ANDAMIORIK GABEKO LANAK



ÑAÑARRI
LAN BERTIKALAK

680 641 401
676 952 968
www.nanarri.com

**Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak**

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak
Tximiniak • Altuerako kimatzeak

UDAL EUSKALTEGIAK UDAKO IKASTAROAK

Euskara ikasteko biderik gertukoena, erosoena eta errazena

etxean bezala

25 urte Bekak HABEko diplomak...

Cristina López (Elgoibar), Oscar Tena (Tolosa), Leticia Viafara (Leintz),
Juan Andrés Rodríguez (Azpeitia), Mari Carmen Barreiro (Pasaia), José Valdivielso (Legazpi), Jesusa Esnaola (Lasarte).

matrikula zabalik

UDAL EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

HABEren dirulaguntzaz.

Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

**2007**
**Udako Euskara Ikastaroak**

**ESKAINTZA**
- EGA, taldea ia osatuta dago, deitu azkar.
- HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK: Osakidetza / Hezkuntza / IVAP
- Mintzamena
- Arrasateko euskalkia
- Darabilgun euskara hobetu: okerrak zuzendu, hiztegia aberastu
- Hitanoa

**MATRIKULA EPEA**
Maiatzaren 28tik ekainaren 15era

**BULEGO ORDUTEGIA**
Goizez:
10:00-13:00

Arratsaldez:
15:00-18:00

Arrasateko Udal Euskaltegia 25. urteurrena

**Beka sistema daukagu.**
**Informa zaitez Euskaltegian.**

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

**ZALDIBARKO TXAPELKETA** > FINALA

# Bigarren aldiz eman du Driblingek kolpea

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

**Kopan nagusitu eta gero, Driblingek zapatu arratsaldean erakutsi zuen ligan ere eurak direla jaun eta jabe. Final parekatua jokatu zuten Betrayerren kontra, baina azkenean, elastiko laranja jantzitako mutilak nagusitu ziren (4-2).**

Zaldibarko Txapelketan, partidua indartsu hasten duenak asko izaten du irabazita, nahiz eta, noski, hori ez den erabakigarria. Hori jakinda, Driblingek Betrayerrek baino hobeto hasi zuen zeingehiagoka. Duela gutxi kopako finala jokatu berri, horrelako hitzorduei neurria hartuta dietela erakutsi zuten lehenengo minutuetatik. Hori horrela, seigarren minuturako aurretik zen Dribling. Betrayerrek hori behar izan zuen esnatzeko, gola jasotzea, baina esnatu orduko Driblingen bigarren kolpea etorri zen (2-0).

Emaitza horrekin atsedenaldira joatea zigorra zen, eta hori saihestu guran egin zuen Betrayerrek lehenengo gola (2-1). Hala, alde txikiarekin amaitu zen lehenengo zatia; bigarrenean edozer gerta zitekeen.

**BETRAYERREN ERREAKZIOA**

Bigarren zatian Betrayerrek egin zuen gogor. Ramon Tenak –finaleko jokalari onena– hirutan bidali zuen baloia langara, eta hortxe izan zuten partiduari buelta emateko aukera. Aukera hori aprobetxatu barik, minutu gutxira partidua berdintzeko gauza izan ziren (2-2), baina poztasun horrek ez zuen luze iraun (3-2).

Eta, bi taldeetako aurrelariak minutu horietaz baliatu ziren kontraerasoan gora egin, eta atzelarien nekeaz baliatuta gol aukerak egiteko. Hain zuzen ere, minutu horietan erakutsi zuten atezainek eurak ere protagonista izateko gauza direla, eta, geldiketa erabakigarriak eginda, markagailua ez zen askorik aldatu. Asko diogu, oraindik Driblingen azken gola geratzen zelako, 4-2 erabakigarria.

**ILUNTZ HIRUGARREN**

Finala baino lehenago, Iluntz eta Iriztu lehiatu ziren hirugarren postuagatik (2-1). Kopa finalean galduta, Iluntzek merezitako hirugarren postuan amaitu du urtea. Bestalde, hauek izan dira, antolatzaileen ustez, txapelketako jolalari onenak: Antonio Frutos (Betrayer), Julio Hernandez (Iluntz), Roberto (Dribling), Egoitz Apraiz (Saukelu), Ito (Iriztu), Rivas (McAuen) eta Sabilo (AT Celaya).

Finala jokatu zuten bi taldeetako jokalariak, urtero egiten den erretratuan. ZALDIBARKO ANTOLATZAILEAK

FERNANDO ZUFIRIA

## Zilarrezko domina atletismoan

Eskola Arteko Euskadiko Txapelketa egin zuten asteburuan Durangon, eta erretratuan dituzuen Arizmendi Ikastolako atletak zilarrezko dominarekin itzuli ziren etxera. Podiumeko bigarren maldara igo ziren Iñigo Uribarren, Chen Jian, Josu Revuelta, Gaizka Donai, Andoni Perez, Rafa Cordero, eta Asier Amutxastegi.

**ATLETISMOA** > ESPAINIAKO INFANTIL MAILAKO TXAPELKETA

## Lore Marrek 2,80 metroko marka hobetu gura du

Lloret de Marren egingo duten txapelketan egingo du saiakera

**X.U.** > ARRASATE

Asteburuan jokatuko dute Lloret de Marren (Katalunia) Espainiako infantil mailako txapelketa, eta Arrasateko atletismo taldean lehiatzen den Lore Mar atleta gazteak Euskadiko Selekzioa ordezkatuko du. Pertika jauzian, aretxabaletar gazte horren marka 2,80 metrokoa da, eta duen adinerako oso kontutan hartzeko moduko marka bada ere, asteburuan marka hori gainditzea izango du helburu. Jonathan Perezen aginduetara dagoen atletak gaitasun ikaragarria erakutsi du atletismorako. Hori bai, duen adinarekin, kirol horretan ondo pasatzea da garrantzitsuena.

**JOAN DEN ASTEAN MINTXETAN**

Arrasateko taldeko kideak Mintxetan izan ziren joan den asteburuan lehian. Atletismo txapelketetan parte hartu zuten Leire Altzolak, Izar Gorroñogoitiak –zilarrezko domina irabazi zuen luzera jauzian–, Malen Azuak, Naiara Zubizarretak, Maddi Garrok, Nagore Barrenak eta Meritxel Ayalak.

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

bote prontuen

**Carlos Gomez** > Los Vaqueros dendako arduraduna

# "Praka estuak azken moda dira aurten"

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

**Hamalau urte pasa dira Carlos Gomez gasteiztarrak Los Vaqueros arropa denda zabaldu zuenetik. Datozen hilabeteetarako joerak azaldu ditu elkarrizketa honen bitartez.**

**Zer saltzen da gehien Los Vaqueros dendan?**

Modako prakak. 20 eta 40 urte bitarteko jendearentzat eginiko prakak.

**50 bat urteko pertsona batek ezer aurki dezake han?**

Bai. Agian, aukera gutxiago topatuko du, baina klasikoagoak diren jantziak ere baditugu pertsona horiendako.

**Zu zeu Los Vaquerosen janzten zara?**

Bai, noski!

**Janzteko, zein kolore gustatzen zaizu gehien?**

Kolore ilunak, baina oso aldakorra naiz. Joan zen neguan, adibidez, marroiak eta berdeak jantzi nituen, modan zeuden koloreak ziren-eta. Uda honetan, bestalde, zuria asko erabiltzen dut.

**Urte asko daramatzazu Arrasaten...**

Hala da. Lehen denda Arrasaten zabaldu nuen, orain dela 14 bat urte. Ondoren, Laredon, Mirandan, Galizian eta Gipuzkoako beste zenbait herritan zabaldu genituen.

**Janzteko orduan nola ikusten dituzu arrasatearrak?**

Klasiko samarrak dira. Gasteizen, Zarautzen eta Donostian ausartagoak dira, joeren arabera janzten dira. Arrasate, Tolosa eta Azpeitikoei joera horiek jarraitzea gehiago kostatzen zaie.

**Zeintzuk dira udako joerak?**

Koloreei dagokienez, zuria, beltza eta gorria izango dira gehien ikusiko direnak; neskendako, behintzat. Soineko eta kamiseta estanpatuek arrakasta izango dute. Horretaz gain, praka estuak eta *pirata* gisa ezagutzen direnak ere modan daude.

**Praka zabalak erabiltzen dituztenek, beraz, estiloa aldatu behar dute...**

Hala da, joerei kasu egiten badiete. Praka estuak funtsezkoak dira armairuan.

bere ustez

**Aitor Izagirre**

## Bejon degigula Arrasaten!

Bejon degigula! Hautes-kundeek ere agur esan digute eta politikariek bake ederra emango dute aldi baterako behinik behin. Oraingo honetan, ordea, ezohiko azterketa batekin natorkizue.

Mondragoeko udalbatza hogeita bat zinegotziz osatzen da. Horietatik, hogei ei dira euskal hiztunak eta bakarrak ez daki euskaraz. Bost soilik izango dira 'konstituzionalista' deritzen horietakoak. Honela, euren burua ezkertiar duten alderdiek hamasei ordezkari izango dituzte. Emakumezkoak, aldiz, bederatzi izango dira. Azken datu honi erreparatu nahi diot.

**"1900. urtetik 32 alkate ezberdin egon dira Arrasaten, denak gizonezkoak"**

Dena beharko lukeen moduan badoa, emakumezko bat izango dugu lehenengo aldiz alkate lanetan. Udaleko webgunearen arabera, 1900. urtetik 32 alkate ezberdin egon dira Arrasaten, denak gizonezkoak. Ekainaren 16an, beraz, gure historiarekin geneukan zor handi bat kitatuko du Ino Galparsorok.

Bergara eta Oñatiko alkateak ere emakumezkoak izango dira ezustekorik ezean, beraz, bailarako hiru herri populatuenetan izango dute emakumeek alkatetza. Asko dago oraindik egiteko, baina gure ibarrean badirudi dagokien lekua hartzen ari direla, zorionak!

hau be badaukogu

## Londres bisitatu dute Helduen Heziketa Iraunkorreko ikasle eta irakasleek

**Helduen Heziketa Iraunkorreko Arrasateko ikasleak, irakasleak eta zenbait lagun, guztira 30, Londresen izan dira ikasturte amaierako bidaian. Lau egun eman dituzte han. Hiriko lekurik ezagun eta esanguratsuenak bisitatzeko aukera izan dute. Besteak beste, Big Ben dorre famatua, Londresko dorreak (London Tower Bridge), Parlamentua eta Candem Town eta Portobelloko merkatu ikusgarriak ezagutu dituzte arrasatearrek. Gainera, ikasleetariko batzuek ikasturtean zehar ikasitako ingelesa praktikatzeko aprobetxatu dute egonaldia. Erretratu bat bidali digute, Londresko dorreen ondoan ateratakoa.**

GOIENKARIA

Pando Errotuloak
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

KONTRATAK
IRVROK S. L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

**ZERBITZUAK** > TELELAGUNTZA ZERBITZUA

# Bakarrik bizi direnen bizimodua erraztu nahi du telelaguntzak

Eskaera egin dutenek 65 urtetik gora dute, baina datuek diote erabiltzaile gehienek 80 eta 90 urte bitartean dutela, bakarrik bizi direla eta emakumeak direla



**TELELAGUNTZA** 24 orduz dago martxan telelaguntza zerbitzua. GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Bergarako Gizarte Zerbitzuek pertsona nagusiei eskaintzen dizkieten zerbitzuen artean telelaguntza zerbitzua ere badago. Helburua da bakarrik edo mendekotasun egoeran bizi diren herritarrei euren eguneroko bizimodua erraztea. Egun, herriko 65 lagunek dute telefono bidezko zerbitzua etxean.

**BIZIMODUA ERRAZTEKO**

Xabier Legorburu udal gizarte laguntzaileak azaldu duen moduan, berez herritar guztiendako zerbitzua da, "baina batez ere bakarrik bizi edo eguneko ordu gehienak bakarrik egiten dituztenendako eta osasun arazoak edo mendekotasuna dutenendako da. Normalean, 65 urtetik gora dute eskaera egiten dutenek, baina estatistika datuek diote erabiltzaile gehienek 80 eta 90 urte bitarte duten eta bakarrik bizi diren emakumeak direla".

Telelaguntza zerbitzua eskatzeko baldintzak dira, besteak beste: Bergaran erroldatuta egotea, aparailua erabiltzeko murrizketa fisikorik ez izatea eta etxean telefono linea izatea; segapotoek ez dute balio zerbitzu horretarako. "Zerbitzu hau guztiz bateragarria da etxez etxeko laguntzarekin, eguneko zentroarekin edo etxea behar fisikoetara egokitzearekin. Helburua pertsona etxean egotea da, baina gutxieneko baldintzak ere izatea", argitu du Xabier Legorburu udal gizarte laguntzaileak.

**APARAILUA, ALDEAN UNE ORO**

Telelaguntza zerbitzua izateko, telefonoaren antzerako aparailu bat jartzen diote herritarrari etxean. Baina laguntza beharra duenean ez du aparailua dagoen tokira joan beharrik: laguntza abisua bidaltzeko, programatuta dagoen lepokoa edo erlojua sakatu behar du.

"Komeni da lepokoa edo erlojua beti aldean eramatea, ordu oro. Abisuak normalean izaten dira erori egin direlako edo bihotzekoa dutelako. Lepokoa nahiz erlojua oheko mahaitxoaren gainean uzten badute eta komunean erortzen badira, ezin dute laguntzeko abisurik bidali", azaldu du Xabier Legorburuk. Abisua SOS Deiak zerbitzuak hartzen du. "Pertsona horri buruzko datu guztiak dituzte han eta lau pauso jarraitzen dituzte: lehenengo, abisua eman duenari deitzen diote etxera, nahi gabe izan den edo ez jakiteko; ez badu erantzuten, pertsona horrek emandako erreferentziazko hiru telefonoetara deitzen dute; ez badute erantzuten, etxeko giltzen kopiak dauden tokira deitzen dute; hor ere ez badute erantzuten, ertzainei bidaltzen diete abisua, eurak joateko pertsona horren etxera", dio udal gizarte laguntzaileak.

Berez udalen konpetentzia da zerbitzu hori, baina, Eudelekin egindako akordio bati esker, Diputazioaren esku utzi dute udalek laguntza kudeatzea. Udalek laguntzaren funtzionamendua arautzen dute; denek dute araudi bera.

DATUA

**65**

**HERRITARREK DUTE**

Momentu honetan, 65 herritarrek dute telelaguntza zerbitzua etxean. Beharra duenak eskatu behar du laguntza hori; une honetan, itxaron zerrendan ez dago inor.

**AHOTSAK** Unamuno, Rodriguez, Elortza eta Azkarate grabatzen. GOIENKARIA

**KILOMETROAK 07** > *ARGI DA* DA ABESTIAREN IZENBURUA

## Kilometroetako abestia aurkeztuko dute gauean

**O.E.** > BERGARA

Gaur, egubakoitza, 22:00etan frontoian egingo duten jaialdian aurkeztuko dute Kilometroetako abestia. Asier Elortzak eta Aranzadiko irakasleek egin dute musika eta letra, Jarduneko bertso eskolakoek. 20 lagunek baino gehiagok hartu dute parte grabazioan eta guztiak egongo dira jaialdian.

**FUTBOLARI BETERANOEI DEIA**

Ekainaren 23an Realak eta Bergarak beteranoen futbol partidua jokatuko dute Kilometroen alde Agorrosinen eta antolatzaileek dei egiten diete 35 urte inguru eduki eta futbolariak izandakoei partidu horretan parte hartzeko. Interesatuek, Aranzadira deitu behar dute: 943 76 90 71.

GOIENKARIA

## Fatxada konponduko diote

Guipuzcoano banketxea dagoen plazako eraikinaren fatxada konpondu egingo dute. Aste honetan hasi dira aldamioak jartzen eta datorren astean hasiko dituzte eraberritze lanak. Gasteizko enpresa batek egingo ditu lan horiek. Duela hilabete batzuk, urgentziazko tratamendua aplikatu zuten egoera txarrean zeuden zatietan, ez erortzeko.

EKI LUR
PARAFARMAZIA · BELAR-DENDA · DIETETIKA
Marian Ortiz Iriondo
Farmazian lizentziaduna
1.578 elkargokide zenbakia
San Pedro 4 Bergara • Tel.: 943 76 44 41
e-posta: eki-lur@hotmail.com • www.eki-lur.com

Esku aldaketagatik eskaintza berezia
%10eko beherapena
txartel hau ekarrita
* beste eskaintzekin ez da bateragarria izango
* epea: 2007ko ekainaren 1etik ekainaren 15 arte

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

**BULEGOA** Udako ordutegian dago zabalik turismo bulegoa. GOIENKARIA

**TURISMOA** > IRAILAREN 30ERA ARTE

# Turismo Bulegoak hasi du uda denboraldia

## Ordubeteko bisitan, herriko monumentu eta eraikin esanguratsuenak ikusten dituzte turistek, Bergara ezagutzeko

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Turismo Bulegoak hasi du uda denboraldia; zabalik dago irailaren 30era arte. Joan den asteburuan hasi ziren Turismo Bulegoko teknikariak udako ordutegian lanean eta dagoeneko turista talde bat izan dute. Eta bihar, zapatua, beste bi talde datoz Bergara ezagutzera.

**ORDUBETEKO BISITAK**

Turista gehienek ez dute Bergarari buruzko erreferentziarik izaten, eta horregatik, herriko monumentu eta eraikin esanguratsuak ezagutzeko bisita dute antolatuta turismo bulegoko langileek. Ordubete inguru irauten dute bisita gidatu horiek.

Bisita horrez gain, herriaren inguruak ikusteko bi ibilaldi ere proposatzen diete Turismo Bulegokoek bisitariei: Debarroa eta Urola ibarra mendizerratik lotzen dituen tumuluen ibilbidea eta trenbidearen ibilbidea, goiko estaziotik Osintxura. Ibilbide horiek euren kasa egiten dituzte turistek, ez dute Turismo Bulegoko inoren laguntzarik izaten, baina bulegoan ibilbideen gaineko informazio guztia dute. Lo egiteko tokietako eta jatetxetako telefono eske ere joaten dira turistak Turismo Bulegora, eta horiek ere badituzte.

**EGUN BATZUETAN, ITXITA**

Turismo Bulegoa 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era dago zabalik aste barruan eta 11:30etik 14:30era domeka eta jaiegunetan. Hala ere, itxita egongo da egun hauetan: ekainaren 10ean, 17an eta 24an; uztailaren 4an, 8an eta 15ean eta irailaren 2an, 9an eta 23an. Edozein informazio izateko, hauxe da Turismo Bulegoko telefonoa: 943 77 91 00.

**JAIAK** > ELOSUKO OTABA JAIAK

# Laja eta Landakandari omenaldia zapatuan Elosun

## Herri kirolak eta pilota partiduak ere antolatu dituzte Otaba jaiak ospatzeko

**O.E.** > BERGARA

Otaba jaiak ospatuko dituzte asteburuan Elosun, eta zapatuan, Laja eta Landakanda trikitilariak omenduko dituzte. Jaialdia iluntzeko zazpietan hasiko da, ondoren afaria egingo dute frontoian eta 22:30etik aurrera trikiti jaialdia egingo dute. Parte hartuko dute: Abarka dantza taldea, Laja II eta Joseba, Izer eta Alabier, Edurne Iturbe eta Andoni Elortza, Epelde, Lutxurbio eta Iturbide eta Elusu Trikiti Band-ek.

**HERRI KIROLAK**

Zapatuan hasi eta domekan eta astelehenean jarraipena izango dute Elosuko Otaba jaiek. Domeka eguerdian, esaterako, pilota partiduak egongo dira eta arratsaldean, 18:00etan, herri kirolak. Astelehenean, berriz, elkarrekin bazkalduko eta afalduko dute auzotarrek; eta jatorduen artean, *dultzemeneoa* eta puzgarriak izango dituzte.

> SAN MARTZIALAK

## San Martzialgo kantinaren eskaera egiteko epea, zabalik

San Martzial egunean hango kantinaren ardura hartu nahi duenak izena eman dezake dagoeneko. Udalak jakinarazi du izena eman dezakeela San Martzial egunean hango kantina eta txosnaren ustiapenaz arduratu nahi duen herriko irabazi asmorik gabeko edozein entitate edo elkartek. Epea zabalik dago eta ekainaren 20ra arte egin ahal izango da eskaera. Eskaeraren orriak eta baldintzen orriak udaletxeko idazkaritzan jaso ditzake interesa duen edozeinek. Aurten, uztailaren 1ean ospatuko dute San Martzial eguna.

> KONPONKETAK

## Herriko arketak konpontzeko eskaera egin nahi du Udalak

Herriko kaleetan eta errepideetan dauden kutxak edo arketak konpondu nahi ditu Udalak. Arketa horiek hainbat enpresetakoak dira, adibidez: Euskaltel, Telefonica, Iberdrola eta Naturgas. Arketa horietako batzuk holgura dute eta zarata ateratzen dutelako kexak jaso dituzte udaletxean. Hori kontuan izanda, tokiko gobernu batzordeak erabaki du enpresa horiei abisua ematea arketa horiek konpontzeko. Hori egiteko, udaltzaingoarekin harremanetan jartzeko ere eskatuko diete enpresei, lanak koordinatzeko.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA


Parket flotatzaileak
AZKARATE
AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
Arotz lanetan behar duzun guztia
Ateak • Leihoak
Horma-armairuak • Tarimak
Parketak • Sukaldeak
www.goiena.net/blogak/azkarate

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

**EUSKARA** > KOLDO ELEIZALDE 22. LEHIAKETA

# Uzta oparoa Koldo Eleizalde lehiaketan

## Zapatuan egin zuten sari banaketa ekitaldia; 489 lan jaso dituzte, 380 ipuin tartean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Koldo Eleizalde lehiaketako sariak banatu zituzten zapatuan. 489 lan jaso dituzte aurten, horietatik 380 ipuin. Saridunak hauek izan dira ipuinen atalean: 1999an eta 2000. urtean jaiotakoen artean, Naiara Azkarate, Maddi Arzelus eta Ainhoa Gallastegi; 1997 eta 1998koen artean, Andoni Muxika, Itxaso Calvano eta Miren Gonzalez; Karmele Uribesalgo, Amaia Igartua eta Oier Ugalde (1995-96); Iratxe Aiastui, Joane Amasorrain eta Xabi Berasategi (1992-94); eta, azkenik, 1991n edo aurretik jaiotakoetan, Olatz Etxeberria, Andoni Iparragirre eta Aintzane Oregi eta Miren Juldain (3. saria *ex-aequo*).

Komikien atalean 87 lan jaso dituzte; lehen taldean, (1995-97) Jone Eguren, Carlina Mahecha eta Joseba Osaren lanak saritu dituzte eta bigarren taldean (1992-94) Aitzol Gutierrez izan da irabazlea eta Ander Barrusok eskuratu du bigarren saria.

**SARI BANAKETA** Irudian aurtengo saridunak Zabalotegin, zapatuko sari banaketa egin ostean. OIHANA ELORTZA

Bertsotan, lehen taldean (95-97), Irati Rodriguez eta Ainhoa Etxeberria izan dira sarituak; 2. taldean (92-94), Marina Retolatza eta Beñat Etxabe; eta hirugarren taldean, Aitzol Iturbe eta Julian Ramirez de Okariz. Hamar bertso sorta izan dira lehian.

Ipuin kontaketan 12 lan aurkeztu dituzte; San Martin Herri Eskolakoak saritu dituzte lehen taldean (2001ean edo ondoren jaiotakoetan); 2. taldean (1993 edo aurretik), Aranzadi Ikastolako bi talde saritu dituzte eta 1991n edo aurretik jaiotakoetan Mariaren Lagundiakoak izan dira irabazleak.

BENITO CANTERO

## Saritutako argazkiak Aroztegin

Bergara Hiria Argazki Lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur, egubakoitza, Aroztegin, 20:00etan. Koloretan, Felix Idigoras bergararra izan da irabazlea *Itsasontzia* lanari esker eta Isabel Diezek eta Urdin Badiesek jasoko dituzte 2. eta 3. sariak. Herriko onena Benito Cantero izan da. Zuri-beltzeko lehen saria ere jaso du Canterok (*Elurra Peru Saroin,* goian); Imanol Mondragon bergararra eta Iñaki Kaperotxipi bigarren eta hirugarren sailkatu dira eta herriko onena Juan Antonio Untzurruntzaga izan da. Lehiaketara aurkeztutako argazki onenak domekara arte izango dira ikusgai Aroztegin.

> ERAKUSKETA

### Fernando Azkarate eta Pili Azkarate: aitaren eta alabaren azken margoak Nahikari tabernan

Fernando Azkarate eta Pili Azkarateren erakusketa zabalik dago Nahikarin: Fernandok olio koloretsuak jarri ditu ikusgai Masterrekan eta haren alaba Pilik bere azken lanak zintzilikatu ditu. Rikardo Azkargortaren ikaslea da Pili Azkarate.

> IKASTAROA

### Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa hurrengo astetik aurrera eta Photoshop ikastaroa urrian

Bergarako Udalak, Pol-Pol Argazki Elkartearen laguntzarekin, hainbat argazki ikastaro antolatu ditu: oinarrizko argazkilaritza (ekainaren 11tik 28ra, leku mugatuak); eta argazkilaritza Photoshop bitartez, hastapen maila (urriaren 1etik 11ra) eta sakontze maila (urriaren 15etik 31ra). Argibideak: 943 77 91 81.

> JARDUN

### Debagoieneko Trikitixa Eguneko zozketa: 4.690 eta 4.770 izan dira zenbakia sarituak

Debagoieneko III. Trikitixa Egunean egindako zozketan, 4.690 zenbakiarentzat izan da lehen saria; Ispazterreko nekazal turismo baten aste bukaera bat igarotzeko aukera. Bigarren saria (bi lagunendako afaria) 4.770 zenbakiarentzat izan da.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Uda osoko beltzaran-kolorea erakuts ezazu!
Bost minutuan bakarrik
Oso kolore naturala
%100 naturala (azukre-kanaberarekin egindakoa)
Estetika zentroa Igaro

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Bernardo Atxagaren

**Markak. Gernika 1937**

**Asteleheneko Goienkariako harpideduna izateagatik, astelehenean BERNARDO ATXAGA-ren azken liburua jaso ahal izango duzu!**

***ADI! 5 liburu zozketatuko ditugu!***

**Irabazleen izenak Asteleheneko Goienkarian kaleratuko ditugu.**

Harpidedun egiteko: **902 36 38 51** 09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota: **35 euro** 2007 bukaera arte

Asteleheneko Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa

PAMIELA argitaletxea

**FUTBOLA** > EUSKADIKO INFANTILEN TXAPELKETA

# Neskek gertu dute txapelketa, arabarren aurka irabazi ostean

## Bihar, zapatua, bizkaitarren kontra lehiatuko dira infantil mailan jokatzen duten bergararrak

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Denboraldi bikaina egin dute infantil mailan aritzen diren neskek. Partidu gehienak erraz irabazteaz gain, Gipuzkoako txapeldunak dira, eta egunotan, gainera, Euskadiko txapelketa jokatzen ari dira.

Joan zen asteburuan lehen partidua izan zuten Getxon, Mendebaldeko talde arabarraren kontra. Arazo barik nagusitu ziren Mikel Fernandezek, *Pope*, entrenatzen dituen neskak. Hain zuzen, 9-2 gailendu ziren. Arantzabalek lau gol sartu zituen, Ane Vicentek bi eta Txintxurretak, Arregik eta Nereak bana. Mikel Fernandez, hala ere, ez zen gustura geratu egindako lanarekin, "jokalari bakoitza bere aldetik ibili zen-eta", adierazi du.

**GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK** Taldea, txapelketa irabazi ostean. GOIENKARIA

**AUTOBUSAK**

Horrenbestez, biharko partiduan "hobeto" jokatzeko eskatu die neskei. Bizkaitarren kontra lehiatuko dira, 09:00etan, Getxon. Joan zen asteburuan bezala, autobusak antolatu dituzte bergararrak animatzeko. 07:00etan irtengo dira igerilekuetatik.

Bizkaitarrei irabaziz gero, Euskadiko txapeldunak izango dira eta Kanariar irletan egingo den Espainiako txapelketan parte hartuko dute.

Pozik dago Fernandez taldearekin. Denboraldiaren lehen fasean 143 gol sartu zituzten bederatzi partidutan. Ane Vicentek 85 egin zituen. Bigarren fasean ere berdintsu ibili ziren. Maiatzeko azken asteburuan, Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten, Añorgari 2-1 nagusituta.

GOIENKARIA

## Igeriketan ere txapelketa egon da

Hilaren 2an, Euskadiko igeriketa txapelketa izan zen Getxon. Jon Muxikak 200 bizkar eta 100 bizkar lasterketetan parte hartu zuen. Hirugarren eta seigarren izan zen. Xabier Labaka, berriz, 100 bular eta 100 librean aritu zen. Zazpigarren eta bederatzigarren izan zen. Irudian, Muxika eta Labaka, Mikel Kortabarria eta Leire Aperribairekin batera.

GOIENKARIA

## Ariznoako neskak ederto ibili dira Euskadiko txapelketan

Denboraldia amaitu aurretik, Euskadiko txapelketan parte hartu dute gimnasia erritmikoko neskek eta emaitza bikainak lortu dituzte. Infantiletan, Ariznoa B taldeak txapela lortu du uztaiarekin. Ariznoa A laugarrena izan da. Bakarkakoetan, Cristina Etxebarriak bigarren postua lortu du.

Kadete mailan ere lehena izan da bergararren taldea. Gazteetako neskak, berriz, txapeldunordeak dira. Irudian, Izaskun Fernandez, Jennifer Pineda, Josune Cantero, Nagore Etxezarreta eta Cristina Souto txapeldunak.

> AGORROSIN

## Bainuetxearen eta berdegunearen irekiera atzeratu da

Agorrosingo bainuetxea zapatuan inauguratu behar zuten, baina astebete atzeratu da. Urontzi barruko hodi baten hausturak eragin du atzerapena. Hilaren 16an, bestalde, berdegunea inauguratu behar zen, baina euriagatik oraindik ezin dela jarri esan du hortaz arduratzen den enpresak. Ekain amaieran edo uztail hasieran irekiko da.

**KLORO KUTSADURA**

Martitzenean, bestalde, Agorrosingo kirol eremua itxita egon zen, kloro kutsadura batengatik. Kloroa aireratu eta zenbait erabiltzaileri eragin zion, begietan azkura eta eztarria lehorra zutela. Arazoa konpondu ostean, ohi bezala zabaldu zuten gunea eguaztenean.

> UDA KANPAINA

## Udako kirol jardueretarako zozketa egingo da gaur

Bergarako Kirol Zerbitzuak udako kirol jardueren inguruko zozketa egingo du gaur, ekainak 8. Ekintza bakoitzean parte hartuko duten pertsonak aukeratuko dira horretan.

Zerrendak datorren astelehenean, hilak 11, argitaratuko dira *www.bergara.net* webgunean eta Agorrosin Ekintza Gunean. Hortik aurrera, libre geratu diren plazak bete ahal izango dituzte aurretik izenik eman ez dutenek zein izena eman bai baina gura zuten ekimenetik kanpo geratu direnek.

Ekintzak bi zatitan bereizten dira: gazteei zuzendutakoak txanda bakarrekoak dira edo bi txandatan banatuta daude. Nagusien ekintzek, bestalde, hilabeteko iraupena dute.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

JAUJA
KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

Kanpotarrak Bergaran

**Victoria Justiniano**> Boliviarra da Bergaran bizi da

# "Sorterria uztea oso gogorra da beti, asko tiratzen du horrek"

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

**Gustura dago Victoria Justiniano boliviarra Bergaran. Hasieran jaioterritik irtetea kostatu bazitzaion ere, orain ederto bizi dela eta hemengo bizimodura ohitzen hasi dela azaldu du. Ez daki, ordea, non amaituko duen.**

Zapatuann Bergaran egin zen trikiti jaialdian izan zen Victoria, alaba eta bilobarekin. Eta trikiti eta panderoaren soinu alaiak gogoko izan zituela azaldu du. Boliviara bisitan joaten denean Euskal Herriko musika eramango duela erabaki zuen zapatu hartan, "hangoek hemengo musika entzun dezaten". Sorterria utzi zuenetik behin baino ez da bueltatu hara, eta, beraz, bisitan berriro joateko gogoa duela adierazi du.

Uztailean lau urte egingo ditu Bergaran. Lagun baten bidez etorri zen, bakarrik, Loiuko aireportura, seme-alabak Santa Cruzen utzi zituela. Jakien denda bat zuen han. "Laguna Bergaran bizi zen eta nik ez nuen besterik ezagutzen. Beraz, hemen geratu nintzen", dio. Lanean hasi zen eta urtebete geroago, familia etorri zen ibarrera. Bi alaba eta ilobarekin bizi da eta Labegaraietan egiten du lan orain Victoria Justinianok.

**"Hiru urte eta erdi egon naiz emakume euskaldun batekin lanean eta hark euskarazko hitz solte batzuk erakutsi dizkit"**

Irudian, Victoria Justiniano.

**"ESKUZABALAK"**

Euskal herritarrak "eskuzabalak" diren arren, hemengo bizimodura moldatzea ez dela batere erraza izan azpimarratu du: "Sorterria uztea oso gogorra da, asko tiratzen du", esan du. Bolivia eta Debagoiena artean ez du parekotasunik sumatzen. Santa Cruz laua da eta han ez dago eraikin askorik. Gurera etorri zenean, ordutegi aldaketa izan zen gehien igarri zuena.

Euskarazko hitz solteak ikasi ditu Victoriak: "Hiru urte eta erdi egon naiz emakume euskaldun batekin lanean eta hark gauza batzuk erakutsi dizkit". 14 urteko alaba bat du, "hizkuntzarekin arazorik ez duena".

Hau be badaukogu

## Ondarroara joan ziren pasa zen domekan San Martin Agirre herri eskolakoak

**Joan zen domekan, ekainak 3, Bergarako San Martin Agirre herri eskolakoak Ondarroan ospatutako Euskal Eskola Publikoaren jaialdira joan ziren. Bergaratik hiru autobus abiatu ziren. Agorrosin Gurasoen Elkarteak irteera antolatu zuen eta familien aldetik erantzun "ezin hobea" jaso zuela jakinarazi du. Egun "borobila" pasa zuten haurrek eta nagusiek. Umeak txalupan eta tirolinan ibili ziren. Pailazoekin eta *Betizu* ikuskizunarekin ere primeran pasa zuten. Ondarrutarrek esaten dutenez, *Dra!* asmatu egin zuten egun hartan. Irudi bat bidali dute, egindako atsedenaldi labur batena.**

TXATXILIPURDI

bere ustez

Andres Osa 'Sakona'

## Herritarren botoa errespetatu

Pertsona bat boto bat, ez da errespetatu. Orain-dik oraintsu Ezker Abertzalea erakundeetan ikusi nahi zuten, orain berriz hor sartzen ez diote uzten. Boto baliogabetua ahaztua izango da poltronan ipurdia berotzearen truke. Boto 'legalizatuak' berriz, sekulako jipoia eman du, errespetatuko ote da? Debaldeko bazkaria jan eta ordainez ezpainak igurtzi eta bapo, negoziatzera! Horretarako nahi da bakea?

Hauteskunde gauean miraria gertatu zen. Sekulako boto pila galdu eta irabazi egin dutela! Adibidez, bi batean elkartu eta 2003an Ezker Batuak bakarrik emaitza askoz hobeak jaso.

**"Politikoa gezurretan ibiltzea ohikoa da. Soziologo katedradunak ere bai?"**

Eta soziologoen jardunak entzun ahal zenituzten? Politikoak gezurretan ibiltzea ohikoa da baina, soziologo katedradunak ere bai? Adibide bat. Gipuzkoan Ezker Abertzalea bigarren indarra izan da, %22 ingurukoarekin. Datu hau ez balitz bezala puzzlea egiten jardun zuten. Kalabazak nori? Ikasleei? Ez motel!!

Kontxo! beste gauzatxo bat. San Prudentzioko jendeak Oñatira joateko aurrena Arrasatera joan behar izaten du eta hortik Oñatira. Eta alderantziz berdin. Arazo zaila munduan zailik bada! konponbidean omen da!!!

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA BURDINDEGIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

MIZPILDI OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

**EAE-ANV** Argazkian, Eusko Abertzale Ekintzako lau ordezkariak: Larraitz Arando, Anjel Bergaretxe, Iñaki Iturri eta Nerea Altuna. M.A.

**HAUTESKUNDEAK** > ELKARRIZKETA GARAIA

# EAEko ordezkariek argi daukate Udalean egon behar dutela

Kale agerraldia egingo dute bihar, 18:30ean, herriaren hitza errespetatzeko eskatuz

Aralarrek dio lan egingo duela herritar guztiek izan dezaten ordezkaritza Udalean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Hilaren 16an osatuko dituzte datozen lau urteotarako udalbatzak, eta alderdiek elkarrizketarako garaia dute, adostasunak lortzeko. Hala, legez kanpo dagoen Eusko Abertzale Ekintzak Udalean egon gura duela lanean adierazi die herritarrei.

**IRTENBIDEAK BILATZEKO GERTU**

Alderdien Legeak legez kanpo utzi zuen EAE; hala ere, 849 boto jaso zituen maiatzaren 27an, eta garaile atera zen lau ordezkari lortuta. Badakite Udalean sartzea ez dela samurra izango: "Bizi dugun egoera antidemokratiko honetan guri dagokigun bezala lan egiteko oztopoak ditugu", adierazi zuten martitzenean. Hala ere, zailtasun horiei irtenbideak bilatzeko gertu daude, "argi dugulako Eusko Abertzale Ekintzako lau zinegotziok Udalean egon behar dugula". Eta diote oso ezberdina dela Espainiako legediarentzat legala dena eta herriarentzat legitimoa dena.

Eskuratutako lau ordezkariak Aralar, EA, EAJ eta Ezker Batua/Zutik taldeen artean banatu ditu Alderdien Legeak. Aipatutako taldeok "ilegalizazioaren aurka daudela esaten dute behin eta berriz", diote Eusko Abertzale Ekintzako ordezkariek; hori horrela, deialdia egin gura diete hitzez esan dutenaren aurrean urratsak emateko: "Hau da, lege antidemokratikoen gainetik, aretxabaletarron hitza errespetatzeko".

Horregatik, biharko deialdia egin diete herritarrei; hain zuzen ere, *Apartheidik ez, herriaren hitza errespetatu* lelopean kale agerraldia egingo dute Herriko Plaza azpian, 18:30ean.

**ARALARREN PROPOSAMENA**

Aralar alderdia, berriz, hainbat alderdirekin elkarrizketatu da. Hala, EAE eta EArekin egon ondoren, eta herrian dagoen jakin-mina ikusita, agiria banatu du etxe guztietara. Bertan, udal gobernua osatzeko duen proposamena jaso du.

Aralarrek onartzen du Eusko Abertzale Ekintzak jaso dituela boto legitimo gehien Aretxabaletan, eta ondorioz ez du hartuko laugarren zinegotzia, aurreko agintaldian bezala. Gainera, adierazi du 849 herritarren ordezkaria alkate izatea begi onez ikusten duela, horretarako adostasuna lortuz gero. Aralarren iritziz, herritar guztiek izan behar dute ordezkaritza Udalean datozen lau urteotan, eta gertu dago horren alde bideak zabaldu eta lan egiteko.

**ELKARBIZITZARAKO DEIA**

Aralarrek azaldu du "herrian elkarbizitza-aro berri bati ekin gura diogulako" egin duela proposamena. Eta baldintza bat jarri dietela guztiei: elkarbizitza errespetatzea eta errespeta dadin lan egiteko konpromiso zintzoa.

Eskainitakoa ez badute onartzen gainerako alderdiek, beste bide batzuk aztertuko dituztela adierazi dute Aralarko kideek. Eta hau gaineratu dute: "Lehenengo helburua ez da izango alkatea gurea izatea, aretxabaletarron elkarbizitzarako eta herriaren garapenerako onena den akordio eta elkarlana lortzea baizik". Baina, hori bai, argi dute oposiziotik edo alkatetzatik Aretxabaletaren alde lan egingo dutela.

**EA-REN JARRERA**

Eusko Alkartasunak ere alderdiaren jarrera azaldu gura die herritarrei. EAren ustez, "edozein akordio politikok baldintzatuta egon behar du partaideek printzipio demokratikoetara aldez aurretik erakusten duten atxikimenduagatik". Hala nola: edozein motatako biolentziaren aurkako jarrerekin bat egitea; hauteskundeetan izandako emaitzek islatzen duten borondatea onartzea; eta esparru politikoan ere erantzukizun sozialaz jardutea.

EAk eskatu zion Aralarri irizpideok helarazteko EAEko kideei, haiek ere bat egin zezaten. Hala gertatuz gero, Eusko Alkartasunak bere gain hartuko lituzke: hirugarren zinegotziari uko egitea; eta EAE, Aralar eta EAn sostengatutako udal gobernua laugarren alderdi bati zabaltzea, honako helburua lortzeko: Foru Aldundi eta Jaurlaritzarekiko harremanetan behar bezalako eraginkortasuna bermatzea.

**EGOERA ALDAKETA**

Su-etenaren hausturaren iragarpenak, baina, egoera aldatu egin du. Aurrez aipatutako irizpideen atxikimendua exijitzea inoiz baino beharrezkoagoa dela dio EAk, eta "ezinezkoa zaigu EAEri atea zabalik mantentzea baldin eta ETAk euskal politikagintzaren jardun librea baldintzatzeko asmoaren aurrean euren jarrera argitzen ez duten bitartean".

Ondorioz, hona EAkoen jarrera berria: Aralarri eskatzen diote elkarbizitza eta politikagintza gidatu behar dituzten printzipio demokratikoei erantzukizun sozialez eta irmotasunez hel diezaiela; eta EAEri eskatzen diote –koalizio gobernu bat osatzeko edozein elkarrizketari ekin aurretik–, argitu dezala bere ekarpena gidatuko duten printzipioak eta jarrera zeintzuk diren elkarbizitza baketsu eta demokratiko bat lortzeko.

Printzipio horiei atxikimendua adieraziz gero EAren babes irmo eta leiala izango dutela adierazi dute. Eta batzuekin edo besteekin "Aretxabaleta biziberritzea" beste asmorik ez dutela, "gure eskuan dagoen neurrian elkarbizitzarako bidezko giroa sortuz, demokrazia partehartzaile eta edozein eratako biolentziarik gabeko marko berri batean".

**HEZKUNTZA** > MUSIKA LANTZEN

# Musika tresnak eta dantzak ezagutzen dabiltza Pausoka haur eskolako umeak

Euskal dantzak eta sevillanak zelan dantzatu ikasi dute, eta Aretxabaleta Abesbatzako hainbat kidek emanaldia egin diete astean

**BIOLONTXELOA** 2 eta 3 urteko umeak biolontxeloaren doinuei adi-adi. PAUSOKA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Inolako zalantza barik musika oso garrantzitsua da umeen heziketan. Oraingoan, baina, umeen kantuetatik harantzago joatea erabaki dute Pausoka haur eskolan, eta musikarekin zerikusia duten guztia ezagutzen dabiltza.

Klarinetea, akordeoia, biolontxeloa, txirula, adarra, alboka… Horien eta musika tresna gehiagoren emanaldia izan dute azken asteotan 2 eta 3 urteko umeek. Senideak eta lagunak etorri dira erakustaldia eskaintzera. Eta dantzak ere ikasi dituzte; egun batean euskal dantzak –Txulalai eta abar– eta hurrengoan sevillanak. Aste honetan bertan, Aretxabaleta Abesbatzako hainbat kideren bisita izan dute, eta emanaldi bikaina eskaini diete.

**BELDURRAK KENTZEKO**

Musika lantzeak hainbat helburu izan ditu, Pausokako hezitzaileen esanetan: lotsa eta beldurra kendu eta ingurukoekin harremanak lantzea, familiako kideak umeen ikastetxera hurreratzea… Polikipoliki bukatzen dabiltza proiektua, nahiz eta oraindik bisita batzuk izan. Hurrengo hilabeteotan, urak egiten duen ibilbidea aitzakia hartuta –mendian jaio, herritik pasatu, itsasoan hil–, baserria eta herria landuko dituzte, eta kurtsoa hondartzan bukatu.

KURTZEBARRI ESKOLA

## Ume txikiak oso gustura masajearekin

Hilabete eta lau hilabete arteko umeendako masaje ikastaroa egin dute Kurtzebarri eskolan. Prestakuntza duten irakasle bi ibili dira dinamizatzaile lanetan: Txaro Urrutia eta Mari Carmen Gutierrez. Guraso eta seme-alaben arteko lotura goiztiarra landu dute masajea tresna hartuta. Izan ere, umeen behar biologikoen artean behar afektiboak daudela diote adituek, eta kontaktua, komunikazioa eta zentzumenen garapena bideratzen laguntzen du masajeak. Aretxabaletar askok hartu du parte, eta pozik daude antolatzaileak.

> UDALA

### Azken osoko bilkura egingo du udalbatzak eguaztenean, hilak 13, aurreko aktak onartzeko

Bukatzera doan agintaldiko azken osoko bilkura egingo du udalbatzak eguaztenean, 18:30ean. Aurreko osoko bilkuretako aktak onartzeko bakarrik izango da, eta elkarri agur esateko. Izan ere, ekainaren 16an datorren lau urteotarako osatuko den udalbatzan gehienak ez dira egongo.

> HIRIGINTZA

### Hil honetan bertan hasiko dira Urkulutik Ugastegira doan bidean hormigoia botatzen

Udalak orain hilabete batzuk hartu zuen Ugastegiko bidean hormigoia botatzeko erabakia hainbat herritarren eskaerari erantzuteko asmoarekin, eta Agustin Bengoa eraikuntzak enpresari eman dio lanen ardura. Hil honetan bertan hasiko dituzte lanak, eta 138.000 euroko aurrekontua daukate.

> LANGILEAK

### Lau peoi hartuko ditu Udalak hiru hilabetean lan egiteko Inemen dirulaguntzari esker

Udalak lau peoi gura zituen uda parteko hilabeteetan lan egiteko, eta Inemi egin zion eskaera. Onartu egin dio eskaera, eta datorren astean hasiko dira bi langile lanean. Beste biek uztailera arte itxarongo dute eta irailean bukatu. Bestalde, artxibo historikoa osatzen joateko ere hartuko dute beste langile bat.

Zenbaki Aholkulariak
TÜV Internacional Grupo TÜV Rheinland — EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• **Juridikoa:**
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, …
•**Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, …
•**Fiskala:** Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•**Kontalibilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

**Unai Mendikute** > Akordeoilaria

# "Arrasateko akordeoi lehiaketara aurkeztu gura dut senior mailan, baina datorren urtean izango da"

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Ikasketak eta akordeoia ditu lehentasun 17 urte dituen Mendikutek. 6 urterekin hasi zen akordeoia jotzen, eta orain txapelketaz txapelketa dabil sariak eskuratzen; azkena maiatzean, Lleidan.**

Unai Mendikute Galizian jasotako saria eskuan duela. GOIENKARIA

**Noiz hasi zinen akordeoia jotzen?**

Juan Jose Orobengoaren akademiara 6 urte nituela etorri nintzen, eta hizkuntza musikala eta akordeoia ikasten hasi.

**Eta oraindik jarraitzen duzu?**

Bai, baina abendua ezkero hamabostean behin Irunera joaten naiz beste irakasle batengana, Miren Iñargarengana. Orobengoak berak proposatu zidan, irakasle berriak beste kontu batzuk erakutsiko zizkidalako. Hala, astean zehar Orobengoarekin egiten ditut entseguak, eta hamabostean behin Irunera joaten naiz ikastera.

**Hainbat txapelketatan ibili zara, ezta?**

Bai, aurten bitan egon naiz: apirilean, Galiziako Cedeiran; eta maiatzean, Lleidako Sant Anastasi herrian.

**Eta sariak ekarri dituzu...**

Bai. Galizian junior mailako txapeldun izendatu ninduten, eta Lleidan bi sari jaso nituen: bata, txapelketako akordeoilari onenarena; eta bestea, instrumentu onenarena. Izan ere, azken txapelketa hartan beste instrumentu batzuek ere hartu zuten parte: biolinak, gitarrak…

**Arrasateko txapelketan ere parte hartu izan duzu.**

Bai, taldean Aretxabaletako Akordeoi Orkestrarekin eta bakarka. 2001ean bigarren izan nintzen infantil mailan eta 2002an lehenengo; eta 2005ean junior mailako onena. Orain, senior mailan aurkeztu beharko nintzateke, eta badut asmoa. Baina ez aurten, ondo gertatu behar dut-eta.

**"Astean zehar Orobengoarekin ikasten dut eta hamabostean behin Irunera joaten naiz"**

**"Galizian junior mailako txapelduna izan nintzen, eta maiatzean, Lleidan, bi sari jaso nituen"**

**Maila handia egoten da Arrasaten?**

Bai, oso handia. Junior mailan 20 minutuz jo behar izan nuen akordeoia epaimahaiko kideen aurrean, eta senior mailan, ordu erdi izango da. Gainera, maila handiko errusiarrak eta serbiarrak etortzen dira.

**Zelan gertatzen zara txapelketarako?**

Lehenengo, partiturak ikasi behar ditut; gero, partitura barik jotzen; eta azkenengo, xehetasun txiki guztiak. Gainera, irakasleak hainbat aholku ematen dizkit: ez jotzeko automatikoki, musika bizi izanaz baizik, eta halakoak. Txapelketa aurretik zapatu osoa egon izan naiz gertatzen.

**Ordu asko eskatzen dizu akordeoiak; hala ere, jarraitzeko asmoa daukazu?**

Bai, oraingoz behintzat bai. Batxilergoan nabil eta ordutegi malgua dudanez bateratzeko aukera ematen dit. Eta denbora daukadanean bizikletan ibiltzea dut gogoko.

**Akordeoi Orkestran ere ibilitakoa zara; jarraitzen duzu?**

Bai, noski. Bertan gabiltzanok gustuko dugulako jarraitzen dugu, eta benetan giro polita daukagu. Azaro inguruan Mexikora joango garelakoan nago hainbat kontzertu eskaintzera. Eta Gabonetan, urtero moduan, herrian bertan joko dugu.

> GAZTEAK

## Gertu daukate Atxagazte gaztelekuan Udaero 07, uztaileko oporretarako egitaraua

Aretxabaletako gaztelekuak, Eskoriatzakoarekin batera, Udaero 07 gertatu du. 12 eta 16 urte arteko gaztetxoendako uztailerako egitaraua da. Hona hainbat ekintza: uztailaren 3an Gamarrara irteera; 4an, mendi irteera; 5ean, paint-ballean jolas egin eta hondartzara; 10ean, Landara; 11n, surf ikastaroa Zarautzen; 12an, afari-merienda eta film emanaldia; eta 18an, Gorlizera irteera.

Gurasoei aurkeztuko diete egitaraua eguaztenean, hilak 13, eta izena emateko gaztelekura jo behar da aste bukaeran edo Gazteria Zerbitzura, astelehen eta eguaztenetan. Egitarau guztian izena emanez gero 65 euro ordaindu beharko dira, baina, gura izanez gero, ekintza batzuk bakarrik aukeratu ahal izango dira.

> PILOTA

## Juantxu eta Uriarte, Lizarralde eta Elortzaren aurka bihar esku pilota txapelketako finalean

Bihar, zapatua, jokatuko dute Udaleko Kirol Sailak antolatutako lagun arteko esku pilota txapelketako finala. Arrasateko Juantxuk eta Aretxabaletako Unai Uriartek Oñatiko Arkaitz Lizarralde eta Axibar Elortza izango dituzte aurrez aurre. 12:00etan izango da partidua, Iturrigorri frontoian.

Finala baino lehen, 11:00etan, hirugarren eta laugarren postua zeinek eskuratu jokatuko dute, Iturrigorrin bertan. Iñaki Korta eta Iraultza Iturbe arrasatearrek Unai eta Rober Gomez bergararrak izango dituzte aurkari.

Debagoieneko sei bikotek hasi zuten txapelketa apiril bukaeran, horietatik hiru ziren aretxabaletarrak, eta bihar, zapatua, bukatuko dute finala jokatuta.

M.A.

## Hasi da lanean futbol eskola

8 eta 10 urte arteko neska-mutiko asko elkartu ziren astelehenean futbol eskolaren aurkezpenean. UDAko presidente Jokin Antxiak egin zien ongietorria eta eskolaren nondik norakoak azaldu. Ibarra futbol zelaiko lanak hasi bitartean, astelehenero elkartuko dira 17:00etatik 18:30era, eta gero irailean izango du jarraipena eskolak.

Mitartegarai
Baserri turismoa eta taberna

• Batzar gela.
• Jangela.
• Logelak.
• Etxeko produktuen salmenta.

Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51

**TURISMOA** > UDAKO KANPAINA AURKEZTU DUTE

# Oñati, Arantzazu eta Arrikrutz dira aurtengo udako eskaintzak

## Herriko 14 jatetxerekin akordioa egin dute eta 15 eta 30 euroko menuak emango dizkiete turistei

## Natur ibilbideak ere egingo dituzte aurten; egun erdikoak izango dira, Arrikrutzetik abiatuta

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Arrikrutz koba izango da aurtengo udako turismo eskaintza berria. Horixe esan dute Turismo Bulegoko eta Agentziako langileek udako kanpainaren aurkezpenean. Aurtengo udan, beraz, Oñati, Arantzazu eta Arrikrutz erakutsiko dizkiete turistei Turismo Bulegoko gidariek.

**JATETXEEKIN AKORDIOA**

Turismo Bulegoko arduradun Iñaki Igartuak azaldu duen moduan, Espainian eta Frantzian izan dira Arrikrutzen berri ematen. "Frantsesak, esaterako, zaleak dira kobak bisitatzen eta dagoeneko bi talde apuntatu dira", azaldu du Iñaki Igartuak. Bestalde, aurten ere informazio puntua jarriko dute unibertsitatearen aurrean uztaileko astebruetan eta abuztuko arratsalde guztietan.

Aurten, lehendabiziko aldiz, akordioa egin dute turismoko teknikariek eta Oñatiko jatetxeek: "Herriko 14 jatetxek 15 eta 30 euro bitarteko menuak eskainiko dituzte bisitariendako", jarraitu du Igartuak. "Gainera, 20 lagun baino gehiagoko taldeendako *pack* bat ere prestatu dugu: Oñati, Arantzazu eta Arrikrutz ikusteko aukera eta jatetxeko bazkaria sartzen dira *pack* horretan", gaineratu du Edurne Gorostidik.

**AURKEZPENA** Udaletxean egin zuten aurkezpena turismoko arduradunek. GOIENKARIA

**NATUR IBILBIDEAK ERE BAI**

Horrez gain, Natur Eskolarekin batera prestatutako natur ibilbideak ere eskainiko dituzte aurtengo udan. Ibilbide guztiak egun erdikoak izango dira eta Arrikrutzeko aparkalekutik abiatuko dira. Lehen ibilbidea uztailaren 7an izango da eta azkena, abuztuaren 19an. Bestalde, aurten ere Gorpuzti eguneko prozesioko santuak nola janzten diren erakutsiko dute Turismo Bulegoko gidariek. 09:45ean izango da. Kanpotar batzuek eman dute jada izena.

> ENPRESAK

### Eguenean inauguratuko dute Ulma berria

Ekainaren 14an inauguratuko dute Ulma taldearen egoitza berria, Garagaltza auzoan egin dutena. Inaugurazio egunean Ainhoa Garmendia sopranoaren kontzertua egongo da parrokian eta hurrengo egunean, ate irekien jardunaldia egingo dute erretiratu eta bazkideendako. Ulma Packaging-eko teknologia zentroa, promoziozkoa eta zerbitzu orokorrak daude han.

> ZUBIKOA

### Igerilekua eta sauna itxita egongo dira zapatu arratsaldean

Zubikoa kiroldegiko igerilekua eta sauna itxita egongo dira zapatu arratsaldean, igeriketa probak daudelako. Txantxiku sariaren 21. edizioa jokatuko dute Gipuzkoa osotik etorritako 12 taldek. 50 metroko probak gainditu behar izango dituzte igerilariek 15:30ean hasita. Zapatu goizean eta domekan beti bezala zabalduko dituzte.

**ONDAREA** > PARROKIA BERRIZTATZEN

# Bi hilabete barru bukatuko dute parrokia konpontzen

## Kupulan uste baino lan handiagoa zegoelako eta laserra ere behar dutelako atzeratu dira lanak

**O.E.** > OÑATI

Gorpuzti jaietarako bukatu gura zituzten Mikel Goiaingerua parrokia konpontzeko lanak, baina zenbait gunetan uste baino lan handiagoa topatu dute –kupulan, esaterako–, eta beste bi hilabete inguru beharko dituzte guztia bukatzeko. Parrokiako portikoan dauden irudi batzuk ere uste baino egoera okerragoan zeuden: "Goiaingeruak, adibidez, sulfato asko du eta harria lehertu du zati batzuetan; eskua apurtuta zuen. Irudi hori eta beste batzuk laserrarekin garbitu gura ditugu eta horrek denbora luzea behar du, poliki-poliki egin behar daeta", azaldu du Aitor Gazteluk, obrak egiten ari den Teusa enpresako teknikariak. Portikoan dauden Ama Birjina eta ondoko bi santuak igeltsuzkoak direla ere konturatu dira langileak. Kupula, klaustroa eta portikoa konpondu dituzte eta orain, Unibertsitateko etorbidera ematen duten paretak garbitzea falta da.

**PARROKIA** 2006ko urrian hasi ziren parrokia konpontzen. O.E.

BAKARNE SANTAKRUZ

# Bigarren jaunartzea, Oñatiko ohitura

Maiatzaren 20an bigarren jaunartzea egin zuten 11 urteko hainbat gaztetxok, eta oñatiar batek egun horretako argazkia bidali digu, katekistei eskerrak emateko, bide batez.

Bigarren jaunartzea Oñatin mantentzen duten ohitura da. Herri gutxitan jarraitzen dute egun hori ospatzen. Ibarreko herri batzuetan galdetuta, adibidez, erantzun digute Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran eta Antzuolan ez dutela egiten.

ZERO km-a
Errementari plaza 8, Oñati
Tel.: 943 53 22 47
• Kirol denda
• Zapalketaren azterketa
• Arreta pertsonalizatua

GINEKOLOGIA KONTSULTA BERRIA OÑATIN
J. Rodriguez Santos doktorea
Ginekologoa
Atzeko kalea 6, behea • ONATI
Tel.: 943 78 24 89 (ordua eskatzeko)
Kontsulta egunak: ostiraletan
9.00etatik 13.00etara
Eta 15.00etatik 18.30era
Aseguruak:
Lagun Aro, Adeslas, Aegon, Mapfre, Winterthur, Foru Aldundia, Sanitas, DKV.

**KIROLA** > TXIKIRRI-TXIKIRRI MENDI IBILALDIA

# Txikirri-Txikirri, hildako mendizaleen omenezko ibilaldia

## Udalerritik 07:00etan abiatuta, Kurtzebarri, Degurixa, Kurtzeta eta beste zeharkatuko dituzte bi urtean behin egiten duten zazpi orduko ibilaldian

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Etzi, domeka, Txikirri-Txikirri mendi ibilaldiaren seigarren edizioa egingo dute. Ibilaldi hori bi urtean behin antolatzen du Eskoriatzako mendizale koadrila batek. "Lagun talde bat aspalditik joaten gara mendi ibilaldiak egitera. Orain dela 12 bat urte gure lagun Bittor Arrieta hil zen, eta haren aurretik beste bi lagun Perdidon hil ziren. Hala, haien omenezko zerbait egitea pentsatu genuen", azaldu digu Iñaki Agirianok.

"1995ean egin genuen lehena, hildako mendizale eskoriatzarren alde, eta hala jarraitu dugu".

Ibilaldiaren izenaren gainean galdetuta, Agirianok azaldu digu *txikirri-txikirri* takarradan suabe egitea dela. Euren koadrilan hala esaten dutela, eta herrian dagoeneko esamoldea ezagun egin dela.

**IBILBIDE BERA BI NORANZKOTAN**

Beti ibilbide bera egiten dute, baina ediziotik ediziora noranzkoa aldatzen dute. Etzi, domeka, Eskoriatzatik Kurtzebarrira joko dute; handik Degurixara; Mugarriluze eta Leixargaraten barrena Bentafria, Jarindo eta Kurtzeta atzean utziko dituzte; gero Apotzagatik udalerrira jaitsiko dira.

Ibilaldian esku hartzeko 5 euro ordaindu beharko dira. Izenematea domekan bertan izango da, 06:00etatik 07:00etara bitartean. Hain zuzen ere, irteera 07:00etan egingo dute, eta zazpi bat ordu beharko dituzte ibilbide guztia egiteko. Horren ostean, izena eman eta ibilbidea bukatzen duten guztiei diploma bana emango diete. Horrez gain, parte-hartzaile guztien artean hiru sari zozkatuko dituzte.

Aurreko edizioetan 250 bat lagunek esku hartu dute; gehienak eskoriatzarrak, baina baita Debagoieneko, Bilboaldeko eta Donostialdekoak ere.

**SASOIAN** Antolatzaileek jakinarazi digute ibilaldia egiteko sasoian egon behar dela. 2005eko edizioko argazki bat. GOIENKARIA

SALON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

**UMEAK POZIK** Jaia noiz heldu pozik daude ikasleak. IKER BARANDIARAN

**AISIALDIA** > GAZTETXOAK

# Luis Ezeiza herri eskolaren jaia egingo dute zapatuan

## Aurtengo jaiko berrikuntzak aparraren festa eta soka-zubi tiroldarra izango dira

**I.B.** > ESKORIATZA

Luis Ezeiza herri eskolak urteroko jaia egingo du bihar, zapatua. Jai horren helburua da ikasturteari bukaera ematea, nahiz eta eskolak hilaren 22an bukatuko dituzten. "Ekainean herrian ekitaldi ugari egoten dira, eta guk data hau aukeratu genuen jaia egiteko", azaldu ziguten eskolako arduradunek.

**10:00ETATIK 20:00ETARA**

Eskolako arduradunek nabarmendu dute ikasle, irakasle eta gurasoez gain, jaia herri guztiari zabalduta dagoela.

10:00etan ikasleek ikuskizunak egingo dituzte eskola barruan eta baita jolastokian ere. 2tik 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoek antzerkia, musika eta beste landu dituzte ikasturtean, eta ikasitakoa jendaurrean erakutsiko dute.

Eguerdi partean, berriz, ping-pong txapelketa, arku tiroketa eta beste hainbat joko izango dituzte aukeran. Horren ostean, herri bazkaria egingo dute bi txandatan: bat, helduendako; eta bestea, ikasleendako.

Horren ostean, aparraren festa egingo dute, eta jarraian disko jartzaileak izango dira. Horrez guztiaz gain, egun osoan soka-zubi tiroldarrean ibiltzeko aukera izango da. Horretarako, kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

**JAIAK** > ESALDI LEHIAKETA

# San Pedro jaietarako esaldiak aukeratu dituzte

## Aurtengo lehiaketan 86 esaldi aurkeztu dituzte, iaz baino 39 esaldi gehiago

**I.B.** > ESKORIATZA

Udaleko Euskara Zerbitzuak ezagutzera eman ditu San Pedro jaietarako aukeratu dituen esaldiak. Irabazi duen esaldia Txitxingorri taldearena da, eta hala dio: *San Pedroi egiteko ohore/atarako gara plazara dotore, jaixei emuteko indar ta kolore*. Taldeko kideak Ainitze Lucero, Edorta Barandiaran eta Iñaki Kortazar dira.

**PEGATINAK EGITEKO ESALDIAK**

Pegatinak egiteko erabiliko diren esaldiak ere saritu dituzte. Eta honako hauek dira: batetik, Berebere taldearen *Giro sanue/ekintza mordue/aillegau jaku/sanpedrotako ordue*; eta *Hi niretzat goxoki/Ni hiretzat...ba-neki!*; eta bestetik, Antxo taldearen *Kaleko euskerie galdu ez dadin/asko edo gutxi/hitz potoluekin edo fin/lagun artien berba egin*!.

Txitxingorrikoek San Pedro jaietan egin beharreko afaria irabazi dute; eta pegatinetako esaldien egileek, 50 euro.

Euskara Zerbitzuak jakinarazi du aurten 86 esaldi aurkeztu dituztela, iaz baino 39 gehiago, hain zuzen ere.

**KIROLA** > DENBORALDI BUKAERAKO OSPAKIZUNA

# Kirol elkartekoek denboraldiko sariak banatu zituzten bazkalostean

Jesus Arroiabe 'Matxain' txirrindulari ohi eta plater tiratzaileari aipamen berezia egin zioten; horrez gain, beste 24 sari banatu zituzten

**25 SARI** Argazkian, kirol elkartearen sariak jaso zituztenak Al-Andalus elkarteko agertokian, Arrasaten. JOXEBI

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Joan den zapatuan Eskoriatzako Kirol Elkarteak urteroko bazkaria egin zuen Arrasateko Al-Andalus elkartean. Ohitura duten moduan, bazkariaren ostean denboraldiko sariak banatu zituzten.

**JOKALARIEK AUKERATUTAKOAK**

Guztira, 25 sari banatu zituzten ekitaldi hartan. Nabarmendu beharra dago talde bakoitzeko ordezkariek eta jokalariek erabakitzen dutela sariak zeini eman, eta ez taldeko zuzendaritzak. Horien artean, jokalari onenak, entrenatzaile eta zelaiko ordezkari onenak eta bestelako laguntzaileak saritu zituzten. Aipamen berezia Jesus Arroiabe *Matxain* eskoriatzarrari egin zioten, hainbat urtean txirrindularitzan eta plater tiroketan egindako lan guztiagatik. Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente Manolo Muñozek nabarmendu zuen *Matxain*-ek herriko kirolagatik asko egin duela, eta Eskoriatza Kirol Elkarteko bazkide ere badela aspalditik. Horrez gainera, futboleko jokalari onenaren saria Jon Barandiaran arrasatearrari eman zioten; saskibaloiko jokalari onenaren saria Aitziber Sorianori; eta denboraldiko pilotari onena Oiartzabal izan zen, hain zuzen ere.

Sariak jaso zituzten beste kirolariak honako hauek izan ziren: Arkaitz, Cesar, A. Tena, Maite Carreras, Olatz Heriz, Ixone, X. Agiriano, Osune Pildain, Mirian Isasmendi, Nerea Etxebarria, Kevin, Jorge Sanchez eta E. Tena.

**JOKALARIEK AUKERATUTAKOAK**

Horrez gain, aipamen berezia egin diete Carlos Sanchez eta Juani Murillo zelaiko ordezkariei eta Fernando Raso eta Antonio Regaño entrenatzaileei.

Bestalde, Udaleko Kultura Sailari, Edurne estetika zentroari eta TKV Logistika enpresari kirol elkartearen laguntzaile onenen sariak eman zizkieten, hain zuzen ere.

**ALDARRIKAPENA** > ASTE ZAPATISTA

## Zapatua: Aste Zapatistaren bukaera eta egun handia

Mexikoko jakiekin herri bazkaria eta hainbat musika talderen kontzertuak Herriko Plazan

**I.B.** > ESKORIATZA

Aste Zapatista bukatzera doa, baina oraindik mota askotako ekimenak falta dira. Astelehena ezkero ekitaldi ugari egin dituzte, baina onena astebururako utzi dutela esan digute antolatzaileek. Gaur, egubakoitza, umeendako tailerrak jarriko dituzte Herriko Plazan. 18:00etan izango da hori, eta *Munduari oparia* eta *Ludoteknia* tailerrak izango dira aukeratutakoak. Horrez gain, 19:30ean, AHT izango dute berbagai kultura etxean.

**HERRI BAZKARIA ETA MUSIKA**

Zapatu goizean txalapartariek kaleak alaituko dituzte. 14:30ean, mexikar erako herri bazkaria egingo dute; eta iluntzean, perkusioa, Afrikako dantzak eta funky, rap eta bestelako estiloak entzungai izango dira plazako kontzertuan.

## Albarracinera eta Teruelera, Amuskakoekin

Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko 37 emakumezko eta gizonezko Albarracinen eta Teruelen izan dira. Eskoriatzako Amuska emakumezkoen elkarteak antolatu du bidaia, eta oso gustura ibili dira.

Amuskakoek esan digute Albarracin eta Teruel herriak ikaragarri politak direla, ez zutela halakorik espero. Horrez gain, azaldu digute Teruel urrun dagoen arren, merezi duela hara joatea; eta lagunarteko giroa izan dutela.

AMUSKA

ILE APAINDEGIA
APAINDU
San Juan kalea 12c behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 08 26 40

**UDALA** > DIRULAGUNTZAK

# Parrokiari 25 urtean zehar dirulaguntza ematea erabaki dute

## Guztira, 150.000 euro emango dizkio Udalak parrokiari; urtean, 6.000 euro inguru

## Isidro Legorburu fundaziotik jasotzen duen dirua erabiliko du Udalak parrokiari bideratzeko

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Errukizko Amaren parrokiak eraberritze lanen premia duela eta, batzorde bat osatu zuten herrian eta eraberritze lanen proiektua jendaurrean aurkeztu zuten apirilean.

Lanen aurrekontua da 1.400.000 euro inguru. Batetik, Diputazioaren laguntza izango dute: 700.000 euro, hain zuzen ere. Bestetik, herritarrei ere eskatuko diete euren laguntasuna.

**UDALAK, 6.000 EURO URTERO**

Maiatzaren 23ko osoko bilkuran, Udalak erabaki zuen 150.000 euro ematea parrokiari. Diru kopuru hori, baina, ez diote emango aldi baten, 25 urtean zehar baizik. Gutxi gorabehera, urtero 6.000 euro emango ditu Udalak. Erabaki hori hartu zuten, kontuan hartuta Antzuolako ondare artistikoa duen eraikin garrantzitsua dela Errukizko Amaren parrokia.

**ISIDRO LEGORBURU FUNDAZIOA**

Parrokiari Udalak bideratuko diona da Isidro Legorburu fundazioaren eskutik urtero jasotzen duen dirua. Isidro Legorburu parrokoa izan zenak lagatako diruak bere izena daraman fundazioak kudeatzen ditu. Isidro Legorbururen nahia izan zen, diru horrek sortutako interesen zati bat Udalarendako izatea. Orain, Udalaren erabakia izan da diru horri uko egitea, Elizaren onuran.

**UDAN HASIKO DITUZTE LANAK**

Basili Ormazabal batzordeko kideak azaldu digunez, lanak lehiaketara atera dituzte eta laster jasoko dituzte enpresen proposamenak. Behin lanak esleituta, batzorde kideek espero dute udan lanekin hasteko moduan egongo direla. Lehenengo fasean, kanpoko aldea eraberrituko dute eta gero, barruko aldea. Bestalde, aipatzekoa da lanekin hasten direnean joko dutela herritarrengana, dirulaguntza eske.

**LANAK** Udan hasiko dira kanpoko aldea eraberritzeko lanekin. GOIENKARIA

**JINKANA** Korpus jaiak jinkana jokuarekin hasiko dira. GOIENKARIA

**JAIAK** > ONDARREKO JAIAK

# Ondarren Korpus jaiak asteburuan

## Umeendako hiru igerileku jarriko dituzte zapatu arratsaldean; pailazoen emanaldia ere egongo da

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Bihar, zapatua, hasiko dira Ondarreko Korpus jaiak. 12:00etan, jinkana jokatuko dute. 16:00etan, hiru igerileku jarriko dituzte; 17:45ean, krosa egongo da umeendako eta 18:00etan, Apika taldeko pailazoen emanaldia eta merienda ume guztiendako. 20:00etan, trikitilariekin kalejira egingo dute eta ondoren, auzoafaria. Afalostean, Jexus-en Jazzbanarekin erromeria egongo da.

Domekan, 12:00etan, prozesioa egingo dute eta dantzarien saioa izango dugu. Ondoren, salda banatuko dute herritarren artean.

> PILOTA

### Iparragirre eta Jauregi txapelketako irabazleak

Julen Iparragirrek eta Migel Mari Jauregik irabazi dute aurtengo Herri Mailako Eskuz Binakako Txapelketa. Hain zuzen, Jose Manuel Aranburu eta Juan Simon Aristiri 18-11 irabazi zieten. Horren ondoren, afaria egin zuten Olalde elkartean parte-hartzaile guztiek.

> IMSERSO

### Imsersoko bidaietan parte hartzeko izena emateko aukera

Imsersok antolatzen dituen bidaietan lehenengo aldiz parte hartu nahi dutenek ekainaren 30a baino lehen eman behar dute izena, udaletxeko gizarte zerbitzuen bulegoan. Penintsula, Balearrak, Kanariar Irlak, Portugal, natura turismoa eta kultura bidaiak jarri dituzte aukeran.

> ERAKUSKETA

### 'Ura eta Antzuola' liburua eta erakusketa

*Ura eta Antzuola* izenburuaren pean, liburua eta erakusketa aurkeztuko dituzte datorren egubakoitzean. Iñigo Ramirez Okarizek eta Udaleko aparejadore Valen Moñuxek prestatu dituzte bai liburua, bai erakusketa. Olaran etxean, hilaren 15ean, egingo dute aurkezpena, 19:00etan.

> ANELKAR

### Anelkarrekoek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei

Hilaren 27an, 750 euroko salmentak egin zituzten Anelkarrekoek, Bidezko Merkataritzako postuarekin. Horregatik, herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete. Gogoratu, bestalde, Kutxan eta Euskadiko Kutxan ere sar daitekeela dirua.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

bere ustez

Geaxi Ezpeleta

## Gaur amets egin dut

Gaur amets egin dut gurea zen herri batean esnatzen nintzela. Non ez zen herri eta agintari arrotzen inposaketarik, non legeak ez ziren boteredun batzuen jostailu soilak, non askatasun eta eskubide guztiak bermatuak zeuden, bertan herriak herritarrek erabakitako norabidea jarraitzen zuen. Gure herria zen, askatasunez eraikitako Euskal Herria. Errealitateari so geratu naiz gero ordea. Bertan ikusi dudan herriak ez zuen ametsetakoaren antzik. Inposaketa eta ilegalizazioak ikusi ditut. Hauteskunde ez demokratikoen ondorengo egoera injustuaz jabetu naiz. Hori gutxi balitz, herria ordezkari izan beharko luketen agintarien nahien noranzkoan pausoak ematen ikusi dut gainera. Amets gaiztoa iruditu zait ikusten ari nintzena. Alderdiak konponbidearen aldeko pausorik eman gabe merituak aitortzen eta errua nola ez, erruak guretzat gordetzen, guztiak hauteskundeetako garaipenak ospatzen, gureak diren botoak beraientzat hartzen. Ez dugu ahaztu behar emaitza positiboak lortu diren arren ilegalizaziorik ezean botoak eta egoera desberdinak izango liratekeela. Hauteskunde hauek eta beraien ondorioak ez direla ez justu, ez bidezkoak.

**"Hauteskunde hauek eta beraien ondorioak ez dira ez justu, ez bidezkoak"**

((112))
SOS DEIAK

**UDAL HAUTESKUNDEAK 07** > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

# Oxel Erostarbe: "Sinistuta gaude herrirako onena gobernu akordio zabala lortzea dela"

Aralarrek gobernuan sartzeko proposamena egin die Elgetako beste bi indar politikoei, eta haien erantzunaren zain dago egunotan

**OXEL EROSTARBE** Elgetako alkate izan daiteke 28 urterekin. L.Z.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Datorren astean, zapatuan, egingo dira inbestidura ekitaldiak udaletxeetan. Elgetan, maiatzaren 27an, Aralar izan zen indar bozkatuena. Oxel Erostarbe Aralarko zerrendaburuak argi dauka eurei dagokiela gobernu berria osatzeko ardura eta esan du proposamena egin dietela bai EAJ eta EAk osatutako koalizioari bai EAE-ANVri.

"Sinistuta gaude herrirako onena akordio zabal batera heltzea dela", esan du Erostarbek. "Gobernu zabal hori osatzea da lehenengo gauza". Hala, udal gobernuan parte hartzera gonbidatu ditu Aralarrek bai Patxi Basauriren taldea bai EAE-ANV.

**LEHEN INPRESIOA, POSITIBOA**

Aralar pozik agertu da lehenengo bilera horietan jasotako erantzunarekin: "Lehenengo jarrera ona izan da eta uste dugu hori positiboa dela", esan du Erostarbek. "Ez du behintzat hasieratik inork ezetz esan. Orain, ikusi egin beharko da programetan adostasunik aurkitzen dugun ala ez. Erantzunen zain gaude".

**ARALARREN PREMISAK**

Aralarrek argi dauka ezinbestekoa dela Udalaren egoera ekonomiko zehatza zein den jakitea, eta azterketa abiaraziko du horretarako. "Jakin nahi dugu zein konpromiso dauden hartuta, norekin, eta horrek zenbateraino lotzen gaituen. Horrek erakutsiko digu eta jarraitu beharreko bidea", esan du Erostarbek.

Bestetik, uste dute osoko bilkurak erabakitzeko gaitasun handiagoa beharko lukeela. Horregatik, gobernu batzordeak kentzearen alde agertu dira. Batzordeen funtzionatzeko moduarekin ere ez daude ados.

**BATZORDEEN BANAKETA**

Galdetuta, Erostarbek ez du ukatu batzordeen banaketak tirabirak sortuko ez dituenik: "Denekin egin gura dugu lan eta lehenengo jakin nahi dugu nortzuk dauden prest gurekin batera gobernu berria osatzeko. Gero erabakiko dugu batzordeen banaketa", esan du.

Aralarrek jakinarazi du ez duela banaketarik inposatuko, baina ez du ezkutatu minimo batzuk exijituko ez dituenik: "Gure borondatea gainerako alderdiekin batzorde banaketa egokiena adostea izango da. Agian, aztertu ere egin beharko da batzorde bakoitzaren zeregin zehatza".

GAINERAKO ZERRENDABURUEN IKUSPUNTUA



**Patxi Basauri**
Elgetako Abertzaleak

### "Gobernu taldean edo oposizioan, herriaren alde egingo dugu lan"

Patxi Basaurik onartu du uste baino emaitza kaskarragoak lortu dituztela hauteskundeotan. Espero zuten gutxienez lau zinegotzi lortzea. "Herriak Aralar nahi du buru Elgetako Udalean eta ez dugu hori oztopatuko. Beraz, Oxel Erostarbe izango da alkate berria". Agintaldi berriari begira bi aukera aztertzen ari da Basauriren taldea, gobernuan sartu edo oposizio lana egin. "Aralarrengandik jaso dugu eskaintza, baina aztertu beharra daukagu", esan du. 31 urtez alkate izan ostean, oposizioan egotea egokitzen bazaio berria izango da hori Basaurirendako. "Adaptatzeko gai izan behar du pertsonak eta oposizioa egiteak ez dit beldurrik ematen".

**Edurne Alberdi**
EAE-ANV

### "Adostasunetara iristeko alde guztien borondatea da beharrezkoa"

Edurne Alberdik uste du ezker abertzaleak base fidelak dituela Elgetan. “Apartheid egoeran egon gara eta hauteskunde ez demokratikoak izan dira hauek. Emaitzak hobeak izan zitezkeen arren gure balorazioa positiboa da. Hirugarren zinegotzia lortzetik oso gertu geratu gara!”, adierazi du. Hurrengo agintaldian “politika ezkertiar eta abertzaleari eutsiz” lan egingo dutela esan du eta alkate berriari eskatzen dio “herriari galdegitea erabaki garrantzitsuen inguruan eta herritarrak informaturik mantentzea". Ordezkari eta agintari lanak ez nahastea ere eskatzen dio, “alkatea ordezkaria baita eta herria agintaria".

> HITZALDIA HILAREN 12AN

## Oroimenaren galera izango dute berbagai 17:00etan udaletxean

Kutxak antolatuta, aditu batek oroimenaren gaineko hitzaldia egingo du hilaren 12an, martitzena, Elgetan.

Erizain batek egingo du hitzaldia, Elgetako udaletxean. 17:00etan hasiko da mintzaldia eta ordu eta erdiz oroimen galera zergatik gertatzen den azalduko du adituak. Aldi berean, galera hori ekiditeko zer egin daiteken azalduko du.

**PUBLIKO GUZTIARENDAKO**

Oroimena galtzen joatea naturala da oso. Adinarekin gertatzen den fenomenoa da. Hitzaldia, baina, ez dago soilik pertsona nagusiei zuzendua. Publiko guztiarendako prestatuta dago. Ateak zabalik aurkituko dituzue.

> ZERGAK

## Azken eguna ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko

Ekainaren 10era bitarte dago zabalik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea. Domeka honetarako, beraz, ordainduta beharko dute ordainagiri guztiek.

Elgetako Udalak jakinarazi du borondatezko epe hori amaitutakoan ordaindu bako ordainagiririk badago premiamendu bidera joko duela.

Aurten, Elgetako Udalak 72.219 euro bilduko ditu trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren bitartez. Hau da, iaz baino 4.185 euro gehiago.

> ESKOLA TXIKIEN FESTA

## Domekan 38 lagun joango dira autobusez Zubietako festara

Domekan, hilaren 10ean, Eskola Txikien Festa egingo dute Zubietan. Maala Guraso Elkarteak autobusa antolatu du eta 38 lagunek eman dute izena.

Bestalde, gaur, barikua, da azken eguna Zubietako Eskola Txikiak salgai jarritako ipuin liburua eta CDa erosteko. Udal Liburutegian daude salgai 10,50 eurotan.




Ipuin liburua eta CDa salgai. L.Z.

**IA BUKATUTA** Etxe berrietako bat ia bukatuta dago; haren modukoak izango dira gainerako guztiak. U.M.

**HIRIGINTZA** > ETXE BERRIAK IBARRAN

# Ibarraren fisionomia eraldatuta izango da datorren urterako

51 etxebizitza eraikitzen dabiltza kalean; 44 etxebizitza Pedro Inazio Barrutian eta beste zazpi Iturroste baserriaren aurreko aldean

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Datorren urterako, Ibarrako itxura aldatu egingo da nahikotxo, Pedro Inazio Barrutia kalean eta Iturroste baserriaren aurrean egiten dabiltzan obrak direla-eta. Batean zein bestean, etxebizitzak eraikitzen dabiltza. Pedro Inazio Barrutia kalean babes ofizialeko 44 etxebizitza, trastelekuekin eta garajeekin. Eta Iturroste baserriaren aurreko aldean, berriz, zazpi etxe, errekaren eta saihesbidearen arteko lurzoruan, urbanizazio berrian.

**BABESTUTAKOENDAKO, 26 HIL**

Babes ofizialeko etxebizitzei dagokienez, maiatzean hasi dira haiek eraikitzen, askoren pozerako. Izan ere, orubea urbanizatu zenetik, urtebete inguruan geldi egon dira lanak. Etxeok eraikitzen dabilen Olabarri enpresak azaldutakoaren arabera, segurtasunik eza atzeman zuten urbanizazio obretan. Hala, orubea behar bezala egokitu behar izan dute berriro, eta, hori egin ostean, Udalak abenduan eman zion eraikitzen hasteko lizentzia enpresa eraikitzaileari. Hura maiatzean hasi da eraikitzen, eta, Jaurlaritzak zehaztutako epeen arabera, asko jota 26 hilabete dituzte lan guztiak bukatzeko.

Eraikitzen dabiltzan 44 etxebizitzen artean, sei izango dira logela bakarrekoak (60 m²); 36, bi logelakoak (71 m²) eta beste bi, hiru logeladunak (90 m²). Hori horrela, prezioak daude finkatuta logela kopuruaren arabera: logela bakarrekoek 67.122 euro batez beste; bi logelakoek 79.044 euro; eta hiru logelakoek, 91.530 euro. Prezio horiek dira etxebizitzenak bakarrik; hau da, garaje eta trastelekuak ez daude sartuta.

Inguruko urbanizazioari dagokionez, berriz, lehen esandako moduan, etxeak eraiki aurretik egin zituen lanok Amenabar enpresak. Etxeek behar dituzten azpiegiturak sartzeaz gainera, egokitu zuten parke txikitxo bat (iturriduna) eta aparkaleku bat (kultura etxe ondokoa). Horrez gainera, falta da egokitzea berdegunetxo bat, errekaren ondoko etxeendako.

**ELKARRI ATXIKITAKOAK**

Errekaren eta saihesbidearen artean eraikitzen dabiltzan etxeen lanak, berriz, nahiko aurreratuta doaz; dagoeneko etxe bat ia bukatuta dago eta ikus daiteke zelako itxura izango duten orokorrean hango etxeek. Lehen fasean eraikitzen dabiltza sei etxe elkarri atxikitakoak eta beste bat, independentea.

Promociones Aramaixo enpresa dabil lanok egiten. Hango arduradun Migel Angel Burgik jakinarazi duenez, aurreikuspenen arabera 2008ko udazkenerako bukatuko dituzte zazpi etxeok. Dena den, eraikitzailearen asmoa da guztira 11 etxe eraikitzea. Hala, interesa duenak oraindik badu bat erosteko aukera (630 31 13 18 edo 659 93 53 70).

Etxe horiekin batera, urbanizazio aldetik, eraiki behar dute zubi bat Olabetxo ondotik, handik bideratzeko urbanizazio berrirako zirkulazioa. Era berean, errekaren eta etxeen artean beste kale bat sortuko dute: Osteta. "Eta erreka kontrarako zati bat izango da lorategi eta beste bat erabiliko dugu aparkalekuak egiteko", dio Burgik. "Horrez gainera, Udalari egokitzen zaio egitea beste zubi bat oinezkoendako, farmaziaren paretik urbanizazio berriraino".

**KULTURA** > HERRIKO JAIAK

# Jaiei azken ukituak egiten dabiltza

Aurreikusitakoaren arabera, ekainaren 18an etxerik etxe banatuko dute egitaraua; herriko elkarte ugarik parte hartuko du jaietan

**U.M.**> ARAMAIO

Ia gainean ditugu herriko zaindariaren jaiak, San Martinak. Herriko hainbat elkarte eta Udala badabiltza azken hilabeteotan jaiei begira ordurako ekitaldiak antolatzen.

Hain zuzen ere, aurten, lau eguneko egitaraua prestatzen dabiltza, ekainaren 29tik uztailaren 2ra artekoa.

Udalak 23.500 euroko aurrekontua gorde du, lau egun horietan gastatzeko; iaz baino 1.500 euro gehiago.

**ELKARTE UGARI LANEAN**

Udaletik jakinarazi dute egitarauari azken ukituak egiten dabiltzala egunotan eta oraingo astean inprentara bidaltzekotan zirela. Hori horrela, ekainaren 18an etxez etxe banatuko dituzte.

Azken urteotan moduan, Udalaz gainera, jaietan herriko hainbat elkarte parte hartzen dabil ekintzak egin edo antolatzen. Gazte Asanbladak, adibidez, Koadrilen Arteko Pikie, triki poteoa, umeendako jolasak eta beste antolatuko ditu. Txirritola Euskara Elkarteak Txirritolinpiadak ekarriko ditu, erretiratuek karta joko txapelketak, bertso elkarteak bertsoak eta, besteak beste, Papargorri abesbatzak neskamutikoen ahots gozoak.

Edozelan ere,esandako moduan, ekainaren 18an bidaliko dituzte xehetasun guztiak.

GOIENKARIA

## Aramaioarrak laugarren, xiban

Ikastolen Federazioak antolatutako xiba jokoan laugarren lekuan geratu ziren Aramaiotik joandako 14 gazte joan den zapatuan, Gasteizen. Horren ondorioz, Euskal Herriko txapelketarako txartela eskuratu zuten. Dena den, erabaki dute ez joatea Euskal Herriko txapelketara, hura Aramaioko jaiekin batera izango delako.

> GIZARTEA

## Koadrilako emakumeen topaketarako izenemate epea bukatuko da datorren astean

Zuiako Koadrilak dei egin die koadrilako herrietan bizi diren emakumeei aurtengo topaketetan parte hartzeko. Hain zuzen ere, topaketak izango dira ekainaren 22an; hala, izena emateko azkeneko eguna da ekainaren 14a. Udaletxean bertan eman daiteke izena, doan. Ohi moduan, Aramaiotik ere pasako da autobusa emakumeak hartzera. Hitzordua da 15:10ean, eskolan. Oletarrek, berriz, auzoan bertan hartu ahal izango dute autobusa, 15:25ean, plazan.

XII. aldia dute aurten emakumeen topaketok. Ekimenaren helburua izaten da koadrilako emakumeak elkar ezagutzea edo haien arteko harremanak indartzea.



**TXAPELKETA** Lagun arteko eskuz binakako txapelketa jokatuko da Gatzagako pilotalekuan. GOIENKARIA

**KIROLAK** > LAGUN ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

# Hilaren 16ra atzeratu dute pilota txapelketa, ez dagoelako nahikoa bikote

Aste bukaera honetan egin behar zuten lagun arteko txapelketa, baina izenemate epea luzatzea erabaki dute bikote gehiagok jarduteko

**MIRARI ALTUBE** > GATZAGA

Astebetez luzatu dute pilota txapelketan izena emateko epea, eta antolatzaileek uste dute gehiago animatuko direla hilaren 16rako.

**BIKOTE BI BAKARRIK**

Urtero antolatzen dute lagun arteko eskuz binakako pilota txapelketa Gatzagan. Herritarrak izaten dira protagonista, eta inguruko auzoetakoek ere jarduten dute txapelketan. Aurten, baina, bikote bik bakarrik eman dute izena, eta, hori dela eta, antolatzaileek hilaren 16ra atzeratzea erabaki dute: "Txapelak erosita ditugu eta gure asmoa jokatzea da, baina bikote birekin ezin da", azaldu digu Jose Inazio Beloki antolatzaileak. Izena Labidea dendan eman behar dute interesatuek, bikoteko 12 euro ordainduta.

Aurten, gainera, bi egunean egin beharrean bakarrean jokatuko dituzte partidu guztiak; hau da, kanporaketak eta finala.

**PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK**

Hurrengo aste bukaera osoa izango da pilotari eskainitakoa; izan ere, hilaren 17an, domeka, infantil mailako txapelketako finalak jokatuko dituzte Gatzagako pilotalekuan. Ez dira partiduak bakarrik izango, ospakizun handia egingo dute-eta: bazkaria, trikitilariak… Aparteko giroa sortuko dute, eta, zalantza barik, etxeko pilotari gazteek zaleen berotasuna izango dute alde.

**GUREL** > IKASTAROAK

# Ume txikiendako masaje ikastaroa hasiko dute laster

Hilabetetako umeak dituztenendako izango da, eta data oraindik ez dute zehaztu masajeak emango dituenarekin

**M.A.**> GATZAGA

Euskal dantzen ikastaroa bukatu zuten joan zen egubakoitzean, eta masaje ikastaroa jarriko du abian guraso elkarteak datozen egunotan. Ume txikiendako izango da.

**DATA ZEHAZTEKO**

Ikastaro bi antolatu zituen Gurelek udaberrirako, eta euskal dantzena dagoeneko bukatu dute. Gatzagan bertan bizi den Idoia Armendariz izan dute irakasle ikastaroan ibili diren hiru heldu eta bost umeek, eta giro paregabean jardun dute dantzan hainbat egunean. Joan zen egubakoitzean bukatutzat eman zituzten eskolak.

Orain, masaje ikastaroa hasiko dute. Hilabetetako umeak dituztenendako izango da, eta gatzagar batek emango du. Data oraindik ez dute zehaztu irakaslearekin, baina lehenbailehen hasi gura dute: "Herrian hiru ume ditugu txikiak, baina, beharbada, handitxoagoa duen norbaitek ere ikasi gurako du masajea ematen, eta ateak ez dizkiogu inori itxiko", azaldu du Gureleko presidente Gurutze Orbegozok.

**UZTAILEKO IRTEERA GERTATZEN**

Behin ikastaroak bideratuta, udaberriko irteera antolatzen hasi gura dute Gureleko kideek. Uztailaren 7an egingo dute, zapatua, eta Balmaseda aldera joango dira: La Encartada lantegia bisitatu, herriko txoko esanguratsuenak ikusi eta arratsaldean hondartzara. "Autobusaren kontua eta ikusi gura ditugun museoen ordutegiak ez ditugu zehaztu oraindik, eta hasi beharrean gaude", adierazi digu Orbegozok. Izenemate epea laster zabalduko dute.

> UDALA

## Zazpi hilabete pasatxoan herrian hainbat lan egingo dituen langilea hartu du Udalak

Peoi lanak egingo dituen langilea hartu du Udalak, Inemek ematen duen dirulaguntzari esker. Gatzagarra da aipatutako langilea, eta egunean lau orduz jardungo du hainbat lanetan: margotu, sasiak moztu… Zazpi hilabete eta erdirako dauka kontratua, eta, hala, uda eta udazken partean pilatzen diren lanetan lagunduko dio aurretik dagoen langileari. Orain langile bakarra hartu arren, aurretik ere izan ditu Inemen bitartez hartutako langileak Gatzagako Udalak.

Ekainaren 11:
133 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, ekainaren 11 sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

132 zozketako saridunak

**Mundumira jaialdiko bost kamiseta**

- Imanol Kortabarria Anduaga (Oñati)
- Fernando Iñurrategi (Arrasate - Garagartza auzoa)
- Kontxita Arana Azkarate (Arrasate)
- Ana Oianguren Arruabarrena (Bergara)
- Miguel Lete Azkarate (Antzuola)

**EUSKAL HERRIA aldizkarirako urtebeteko lau harpidetza.**

- Alberto Elizburu Oianguren (Bergara)
- Jone Gantxegi Lasaga (Arrasate)
- Jabier Madina Elorza (Oñati)
- Nuria Aldai Mendizabal (Aretxabaleta)

**EUSKAL HERRIA aldizkariaren bost pack: Urteko aldizkari guztiak.**

- Nestor Iñurrieta Labaien (Bergara)
- Jose Luis Aizpurua (Bergara)
- Marta Usabiaga Yerobi (Eskoriatza)
- Ekaitz Gredilla Girado (Aramaio)
- Iñaki Artzamendi Madinabeitia (Arrasate)

Baldintzak

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
35 euro
2007 bukaera arte

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**TXIRRINDULARITZA** > EUSKAL BIZIKLETA

# Euskal Bizikletak Udanatik Kanpanzarrera egingo du bihar

**11:00ETAN** Antolatzaileek zehaztu dute txirrindulariak ordu horretan iritsiko direla Udanara; eta gero Kanpanzarrera egingo dute handik

**IRIZAR ETA VELASCO** Ibarreko ziklistekin izan gara, egin berri duten Italiako Giroaren eta Euskal Bizikletaren gainean berbetan

Iazko Euskal Bizikletako tropelari egindako erretratua, Arrasaten Eroski paretik igarotzen; Irudi

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

Aurreko urteotakoa baino motzagoa izango da gaur bertan hasi duten Euskal Bizikleta. Iaz lasterketa horrek protagonismo berezia izan zuen gurean, Leintz Gatzagan amaitu zutelako etapa bat eta hurrengo egunekoa hasi. Aurten ez ditugu ziklistak horren gertutik jarraitu ahal izango, baina hori bai, zuzenean ikusi ahal izango dugu proba.

Aurten, Euskal Bizikleta bost eguneko proba izatetik hiru etapa izatera pasa da; izan ere, goi mailako ziklistak erakartzeko, antolatzaileek ez dute beste aukerarik izan; lasterketa laburtzea, alegia.

**BIHAR, BI ZATI**

Lasterketa gaur bertan hasi dute, eta txirrindulariak bihar igaroko dira Debagoienetik. Hala, biharko eguna bi zatitan banatu dute antolatzaileek. Goizeko etapa Tolosan hasiko dute, eta Gipuzkoan barrena ibili eta gero, 11:00ak inguruan iritsiko dira Udanara. Oñatiko mendatea jaitsi eta Oñatitik igarota, Elorregin Arrasaterako bidea hartuko dute. Ez dira herriraino iritsiko, Epelen gora egingo dute, Kanpanzartik Elorrio aldera egiteko. Hala, Abadiñon amaituko dute 92 kilometroko etapa.

Biharko jardunaldia ez dute, baina, hor amaituko, arratsaldean bigarren zatia egingo dute-eta: Abadiño eta Axpe arteko erlojupekoa (20 kilometro).

**"Kataluniako Itzulian erakutsitako mailari eusten badio, Samuel Sanchez aurrean ibiliko da; kontrarioei dagokienez, Saunier Duval eta Relax-Gam taldeak dira gogorrenak"**

**Datozen asteei dagokienez, Irizar Espainiako Txapelketan eta Eindhovenen lehiatuko da; Velasco, berriz, Suitzako Itzulira joango da**

**DAKITENEKIN BERBETAN**

Euskal Bizikletaren gainean berba egiteko Girotik itzuli berri diren Markel Irizarrengana eta Iban Velascorengana jo dugu. Eta, noski, Italiako itzuli handiaren gainean berba egiteko ere aprobetxatu dugu. Euskal Bizikletarekin hasi gara: "Samuel Sanchezek Kataluniako Itzulian erakutsi duen mailari eusten badio, aurrean ibiliko da", esan digu Irizarrek. Lerrook irakurtzen dituzuenerako, dagoeneko gaurko etaparen berri izango duzue. Irizarrek, baina, aste barruan iragarle lana egin digu: "Egubakoitzeko etapan Beizamako maldak erabakigarriak izango dira. Igoera horrek ez digu esango nork irabazi behar duen Euskal Bizikleta, baina bai nork ez duen irabaziko". Hala, lehenengo etapak datozen egunak asko baldintzatuko dituela uste du Oñatikoak.

Bihar goizeko etapari dagokionez, Velascok dagoeneko

## Ordu erdi egingo dute ibarreko errepideetan

Bihar ziztu bizian igaroko da Euskal Bizikleta ibarretik. 11:00ak aldera Udanako gainera iritsi, eta hamar minutuan Oñatin izango dira (60. kilometroa). 22 minutuan Elorregin izango dira, eta 10-15 minutu geroago Kanpanzarko gainean izango ditugu. Guztira, bada, ordu erdi pasatxo.




Biharko etaparen profila, hainbat argibiderekin. WWW.EUSKALBIZIKLETA.COM

FUTBOLIN TXAPELKETA
Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)
BTLS 7 JOKU AUTOMATIKOAK
www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051
**Antzuola:** Mox – Surpe **Aretxabaleta:** Haizea – Izotz – Kixkor **Arrasate:** Biona – Iturriotz Equs – Udala – Wiskeria **Bergara:** Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor **Eskoriatza:** Aldatz – Naira **Oñati:** Arrano – Ongi – Otamendi

tan, Euskaltel-Euskadiko ziklistak taldean agintzen. JOSETXO ARANTZABAL

badaki non jarraituko duen lasterketa, eta bota digu gomendioa: "Ni Kanpanzarren izango naiz. Legazpitik Udanara erraz igotzen da, eta tarte hori ez da horren ikusgarria izango. Kanpanzarrera igotzerakoan, berriz, txirrindulariak ez dira horren azkar joango; hori da leku ona".

Arratsaldeko erlojupekoari dagokionez, Arrasatekoak esan digu oso ondo ezagutzen duten ibilbidea dela: "Erlojupeko nahiko teknikoa da, Samuel Sanchezendako aproposa. Domekan sailkapenean aurrean egon gura dutenek ondo estutu beharko dute erlojupeko horretan". Domekan, azkenik, txirrindulariek beste 152 kilometro izango dituzte aurretik. Durangon hasiko dute proba, eta Arraten amaitu; tartean, birritan igo beharko dute Ixua, lehenengo mailako mendatea.

Euskaltel-Euskadik izango dituen kontrarioen gainean, ibarreko bi ziklistak bat datoz: Saunier Duval eta Relax-Gam dira talde indartsuenak.

**GIROA, GOGORRA**

Euskal Bizikleta alde batera utzi, eta Giroaren gainean galdetu diegu Irizarri eta Velascori: "Pentsatzen nuen modukoa izan da, gogorra eta luzea", esan digu Arrasatekoak: "Markelek indartsu amaitu du proba baina ni laugarren etapan erori egin nintzen, eta saihets bat pitzatuta neukala egin dut proba ia osoa. Gainera, erdi gaixotuta ibili naiz, antibiotikoak hartzen". Irizarrek kontatu dizkigu taldeak izan dituen gorabeherak: "Azken egunetan lau taldekide geratu gara, eta, egia esateko, gosaltzera jaitsi eta horren gutxi ginela ikusteak pena ematen du". Hala, Irizarrek eta Velascok 12. etapan (Scalenche-Briançon) ikusi zituzten gorriak: "Ni gaizki nindoan, hotzagatik edo tripetatik txarto, zuri-zuri. Nik uste dut digestio-etendura bat-edo izan nuela, botaka nenbilen-eta. Orduan, Velascori galdetu nion ea zer moduz zihoan, eta hura ere nire antzera...".

Dena dela, biek ere hasi baino hobeto amaitu dute proba. 19. etapan (Treviso-Terme di Comano), esaterako, 11.a helmugaratu zen Irizar, eta 23.a Velasco: "Lagun batek esan zidan, txantxetan, Giroak beste astebete izan balu aurrealdean ibiliko nintzatekeela.Orokorrean, baina, ez dut balorazio oso baikorrik egiten, nahiz eta ondo amaitzeak datozen asteotan izango ditugun lasterketetarako konfiantza ematen duen". Velascok ere berdintsu erantzun digu: "Nik uste baino gutxiago ibili naiz, baina izan ditudan arazo fisikoengatik izan da. Orain, atseden hartuko dut bi astez, berriro lehian hasteko".

**URTEKO BIGARREN ZATIA**

Euskaltel-Euskadiko txirrindulariek ez dute askorik behar denboraldiko lehenengo zatia amaitu eta bigarrenari heltzeko: "Ez dakigu ondo datozen hilabeteotan ze probatan izango garen. Ni, adibidez, Espainiako Txapelketan lehiatuko naiz, eta ondoren Eindhovengo (Holanda) taldeko erlojupekoan izango naiz. Hortik aurrera... gurako nuke Espainiako Itzulian parte hartu". Tourra baztertuta daukan galdetu diogu Oñatikoari: "Seinale txarra izango litzateke ni Tourrera joan behar izatea, besteak min hartuta dauden seinale-edo".

Arrasatekoak ere bi aste inguru izango ditu atseden apur bat hartu, eta hil amaieran izango dituen hitzorduetarako prestatzeko: "Suitzako Itzulira noa, baina hortik aurrera ez dakit zer egingo dudan. Gogoz nago Suitzako hitzordurako, eta denboraldiko bigarren zatian gauzak ondo egiteko".

Giroan lehiatu eta gero, dagoeneko etxean dira Irizar eta Velasco. X.U.

> FUTBOLA

## Bergarako futbol jokalari ohiak gonbidatuta daude Realaren kontra lagunartekoa jokatzeko

Kilometroak 07 jaiaren barruan, Bergarako futbolari beteranoek lagunarteko partidua jokatuko dute Realeko beteranoen kontra. Ekainaren 23an izango da norgehiagoka hori, eta antolatzaileek dei egiten diete 35 urteren bueltan dauden futbolari izandako bergararrei, nahi badute, partidu horretan parte hartzeko.

Animatzen direnek Aranzadi Ikastolako idazkaritzan edo telefono honetara deituta eman dezakete izena: 943 76 90 71. Bulego orduak: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00.

JOSETXO ARANTZABAL

## Nazioarteko Herri Lasterketa, bihar

Bihar (19:00), Nazioarteko 5. Herri Lasterketa jokatuko dute Oñatin. Urtero moduan, aurten ere puntako korrikalariak espero dituzte: Txema Martinez (10.000 metrotan Europako txapeldunordea), Peter Kamais, El Moaziz... Emakumeei dagokienez, Fatna Maraoui, Sara Keruba eta Salome Semotwo izango dira, besteak beste, Oñatin. Lasterkari horiekin batera parte hartuko dute, baita ere, ibarreko hainbat korrikalarik. Tartean izango dira Ritxar Fernandez eta Yerai Varela. Erronka afrikarren erritmoari eustea izango da.

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak**

**KOMERTZIALA behar du Debagoienerako:**

Eskaintzen da:
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Lantaldean lan egitea.
- Laneko kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldata interesgarria.
- Egun osoko lan jarduna.

Eskatzen da:
- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:
- Marketineko ikasketak izatea.
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Debagoienean edo inguruan bizitzea eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali ekainaren 20a baino lehen ondorengo helbidera:
*admi@goiena.com*

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

# Arrasatek Ataunen kontra jokatuko ditu finalerdiak

Arrasateko pilotariek bihar arratsaldean (18:30) jokatuko dituzte Ataunen joaneko norgehiagokak; hiru partiduetatik bi irabaztea dute helburu

**BOLINAGA** Arrasateko pilotaria, joan den astean Azkoitiko pilotarien kontrako norgehiagokan. J.A.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Joan den astean ez zen sorpresarik izan. Joaneko partiduan moduan, Uarkapen ere Azkoitia ez zen Mauri Zubillagaren mutilendako kontrario izan. Hala, Arrasatekoak dagoeneko finalerdietan daude, eta bihar (18:30), Ataungo pilotariak izango dituzte aurrean. Ataunek Azkoitiak baino maila hobeko pilotariak ditu, eta Zubillagak aurreikusten du kanporaketan indarrak parean egongo direla: "Kadeteetako bikoteak oso maila polita du. Hala ere, aparteko ezer gertatzen ez bada Bolinagak eta Agirregabiriak irabazi egin beharko lukete partidu hori".

Kadetetan bikote sendoa du Arrasatek, baina gazte mailako partiduan desabantaila dute: "Badakigu partidu horretan gutxi daukagula egiteko. Gure bikotea (Arana-Zubizarreta) kadete mailakoa izanda, gazte mailan lehiatzen dabil. Eta, euren pilotariak, berriz, Asegarce enpresarekin entrenatzen dira. Ahal duguna egingo dugu hor".

Azkenik, ezin aurreikusi senior mailako norgehiagokan zer gerta daitekeen: "Eurek 40 urteko pilotari beteranoa daukate, Zubizarreta. Pilotari horrek dagoeneko hirutan irabazi du herri arteko txapelketa. Gure asmoa pilota atzera botatzea izango da, atzelariak ezkerra ez dueta ondo dominatzen".

**KLUBARENDAKO MILA EURO**

Txapelketan finalerdietara iristeagatik klubak 1.000 euro eskuratuko ditu: "Ez dakizu zelan datorkigun diru hori! Izan ere, Arrasateko Udalak kasurik ere ez digu egiten, eta dagoeneko aspertuta nago gurasoei dirua lapurtzen ibili behar izateaz. Horrela ibili behar izatea ere...", esan digu Arrasateko entrenatzaileak.

**DEBARROKO FINALAK**

Joan den asteburuan jokatu zituzten Elgetan Debarroko finalak. Hala, kadetetan Arrasateko Bolinaga eta Agirregabiria nagusitu ziren (22-8). Gazte mailan, berriz, Eskoriatzako Oiartzabal eta Agiriano izan zen bikote irabazlea, astindu ederra emanda, gainera (22-1). Eta, senior mailan Elgetako Azagirre eta Irureta gailendu ziren (22-17). Horrekin batera, txapelketako jokalari onenak ere izendatu zituzten. Kadetetan Bolinaga (Arrasate), gazte mailan Oiartzabal (Eskoriatza) eta seniorretan Irureta (Elgeta) saritu zituzten.

> FUTBOLA

## Mondrako bigarren erregionalak kopako finala jokatuko du

Mondra futbol taldeko gizonezkoen bigarren taldeak asteburuan jokatuko du kopako finala (zapatua, 17:30).

Norgehiagoka hori Idiazabalgo Aizkorreta futbol zelaian jokatuko dute, eta Sergio Olivenzak zuzentzen duen taldeak Axular izango du kontrario. Hala, sortu berri duten taldeak eskura du lehenengo titulua.

> PILOTA

## Lagunarteko txapelketako finala jokatuko dute bihar

Bihar jokatuko dute, Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan, Debagoieneko lagunarteko txapelketako finala.

12:00etan jokatuko dute finala, eta Arrasateko eta Aretxabaletako bikote Juantxuk eta Uriartek Oñatiko bikote Lizarralde eta Axibar izango dituzte aurrean. Lehenago (11:00), hirugarren postuagatik lehiatuko dira Bergarako Rober eta Unai eta Arrasateko Korta eta Iraultza.

> ZIKLISMOA

## Infantil eta alebin mailetako lasterketa Markuleten

Dorletako Ama Txirrindulari Taldeak antolatuta, bihar, zapatua, infantilen eta alebinen txirrindulari lasterketa egingo dute Arrasateko Markulete industrialdean. 16:30ean hasiko dituzte lasterketak, eta antolatzaileek aurreikusten dute 80 ziklista inguru batuko direla. Txirrindulariek hainbat itzuli egingo dizkiote industrialdean jarritako zirkuituari.

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria
- Jaioaurreko diagonestikoa-ekogarfia (4D )
- Endoskopia ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Obstetrizia
- Nerabezaroko ginekologia

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

**> MUSIKA**
Petti, Txuma Murugarren eta Rafa Rueda gaur Elgetan > 45

**> KOMUNIKAZIOA**
*Branding* edo markaren gaineko jardunaldiak Donostian > 51

**> OIHAN VEGA**
Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasketak amaitutakoan ETBn aritu zen kirol kazetari, eta orain Euskadi Gaztean dabil esatari. Musika da bere zaletasunetako bat > 50

# Gay, lesbiana, eta transexualak zineman

Arrasateko Emakume Txokoaren eskutik, zine zikloaren II. ekitaldia

Eguenean, hilaren 14an, bi dokumental eta lau film labur eskainiko dituzte Amaia antzokian

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Bigarren urtez, gay, lesbiana eta transexualen inguruko zine zikloa antolatu dute Arrasaten. Atzo, eguena, eman zitzaion hasiera zikloari eta hurrengo astean, ekainaren 14an, sei film –bi dokumental eta lau film labur– ikusteko aukera izango da Arrasateko Amaia antzokian. Emanaldia 20:30ean hasiko da.

Arrasateko Emakume Txokoak antolatu du zikloa, Bilboko Hegoak elkartearen laguntzarekin. Esther Lizarralde Emakume Txokoko dinamizatzailearen hitzetan, "ekainaren 28an Gay, Lesbiana eta Transexualen Harrotasun Eguna ospatzen da eta data horren bueltan zerbait antolatzea interesgarria izango litzatekeela iruditu zitzaigun. Joan zen urtean hiru emanaldi antolatu genituen eta *Yossi & Jagger*, *20 centimetros* eta *La memoria de los peces* filmak ekarri genituen. Ekaina ez da zinemara jendea erakartzeko sasoirik aproposena, baina nahiko erantzun polita jaso genuen. Aurten, bi emanaldi antolatzea erabaki dugu, eta hurrengo eguenekoan, hilaren 14an, bi dokumental eskainiko ditugu: *Hotel Gondolin* eta *La ofrenda*. Dokumentalek beste modu batez aurkezten dituzte gaiak eta ziklo honetarako proposamen egokiak direla uste dugu".

Lan horiez gain, lau film labur eskainiko dituzte ekainaren 14ko emanaldian: *Amores circulares* (Cesar Vallejo, Espainia, 4 minutuko iraupena), *Tres tristes travestis* (Eduardo Gaviña, Euskal Herria, , 6 minutu), *Pasos. Carlinhos y una super-8* (Estibaliz Valiño eta Eva Mateos, Euskal Herria, 8 minutu) eta *Soy Raquel* (Cesar Vallejorena baita, 9 min.)

**OHIKO ZIRKUITUTIK KANPO**

Esther Lizarralderen arabera, ez da erraza zikloko gaiak ukitzen dituzten filmak topatzea: "Iaz film komertzialagoak ekarri genituen eta aurten zinemaldietako erreferentzia eta Hegoak elkartea-

## Gay, lesbiana eta transexualak zineman

(15. orrialdetik dator)

ren laguntza aintzat hartu dugu. Hegoak elkarteak *Zinegoak* izeneko zikloa antolatzen du udazken partean eta haien laguntza ezinbestekoa izan da emanaldiak antolatzeko. Horrelako filmak eskuratu ahal izateko zuzenean egileengana jo behar duzu, kasu gehienetan ohiko zirkuituetatik kanpo dauden filmak direlako". Horrela, bi euskaldun egileren lanak ikusgai izango dira Arrasaten: Eduardo Gaviñaren *Tres tristes travestis* Zinegoak zikloan aurkeztu zuten aurretik. Estibaliz Valiñok eta Eva Mateosek bakardadearen inguruko buruhausteak islatu dituzte *Pasos. Carlinhos y una super-8* film laburrean.

Esther Lizarralde. GOIENKARIA

Bizitza afektibo-sexualaren askatasunaren alde lan egitea eta jokaera sexista, homofobo eta diskriminatzaileak errotik kentzen laguntzea da zikloaren helburua. "Oraindik ere honelako zikloak beharrezkoak dira –Hernanin antzeko zerbait egin dute–, hainbat pertsonak diskriminazio egoerak bizi dituztelako euren aukera sexualagatik. Sentsibilizazio lana egiteaz gain, kultur ekarpena egin nahi dugu zikloarekin, aretoetara heltzeko zailtasunak dituzten lanak plazaratuz", diosku Esther Lizarraldek.

**'HOTEL GONDOLIN'** Hurrengo eguenean Amaia aretoan ikusgai izango den dokumental argentinarreko irudi bat. GOIENKARIA

**KILOMETROAK 07** > JAIALDIA BERGARAN

# Kilometroen aldeko herri jaialdia gaur gauean Udal Pilotalekuan

Asier Elortza musikariak eta Jardun elkarteko bertso eskolakoek egindako abestia entzun ahal izango da lehenbiziko aldiz

**E.M.** > BERGARA

Kilometroetako abestia aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Bergarako Udal Pilotalekuan egingo den jaialdiaren barruan. Bergarako talde ugarik hartuko dute parte gaurko jaialdian, 22:00etan hasita.

Joan zen astean grabatu zuten *Argi da* abestia hogeitik gora lagunek Arrasaten eta gaur aurkeztuko dute jendaurrean. Belceblues musika taldeko kide eta Aranzadi Ikastolako irakasle Asier Elortza arduratu da abestiaren musikaz. Letrari dagokionez, Jardun euskara elkarteko bertso eskolako lagunek egin dute: *"Historia hartuaz/oroimenean/Elhuyarren bonbila/piztu zenean/elkarlanean/Herritik ikastola/modu berean"*, dio lehenbiziko estrofak. Country estiloko abesti alai eta dantzagarria da gaur aurkeztuko dutena; jaiaren ikur nagusietakoa bilakatuko da urrira bitartean.

**ESKAERA**

Esan bezala, Mikel Laskurain *Wazemank* telebista saioko aktore bergararrak aurkeztuko duen jaialdian herriko taldeak izango dira protagonista: San Joxepe abesbatza, Aritzeta, Osintxuko dantza taldea, Alai taldea, Belceblues, Emon taldea, Ariznoa gimnasia erritmiko taldea, Musika Eskolako haurren abesbatza eta Abarka dantza taldea, besteak beste. Era berean, 1991n Kilometroak Bergaran ospatu zeneko kantua ere eskainiko dute Aranzadiko neska-mutikoek. Txalapartariak, alboka jotzaileak eta bertsolariak ere izango dira gaur gauean frontoian. Jaialdiak ordu eta erdi inguruko iraupena izango du. Sarrerak 5 eurotan eta 3 eurotan (umeendako) salgai daude Udal Pilotalekuan, Elkar liburu dendan eta Aranzadi Ikastolako idazkaritzan.

**GRABAZIOA** Hogei lagun inguruk grabatu zuten *Argi dago* abestia joan zen astean. GOIENKARIA

**MUSIKA** > RAFA RUEDA, TXUMA MURUGARREN ETA PETTI

# Euskal bakarlari berezienak, hirurak batera agertoki batean

Gaur, egubakoitza, Rafa Ruedak, Txuma Murugarrenek eta Pettik kontzertua egingo dute Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean

**IKER BARANDIARAN** > ELGETA

Gaur, egubakoitza, Rafa Rueda mungiarra, Txuma Murugarren oreretarra eta Petti beratarra Elgetako Espaloia Kafe Antzokiko agertoki gainean arituko dira, 22:30ean. Iaz Gaztelupeko Hotsak diskoetxeari esker kaleratu zuten *Hauxe* diskoa da kontzertuak batera egiteko erabili duten aitzakia. Aitzakia polita, hiruren artean zazpi abestiz osatutako disko horrek bere barnean oso une eta pieza bereziak gordetzen dituelako.

Diskoan kantu bakarra egin dute hiru musikariek batera, baina zuzenean aritzean elkarri lagundu eta zirikatzen diote, mikrofonoarekin edo gitarrekin lagunduta. Oso kontzertu berezi eta freskoak egiten dituzte, naturaltasunez, eurak diren modukoak; eta ikusleek gozatzea lortzen dute erraztasunez.

Elgetan egingo duten emanaldi osoan hiru musikariek alboan talde bera izango dute: bateria, baxua eta teklatuen ardura duen hirukote trinkoa.

Hirurak rockaren mundutik datoz, baina gerora koordenadaz zeharo aldatu zuten: gitarra eta ahotsa lagun, barrenak hustu eta gertu-gertutik istorioak kontatzen hasi ziren.

**NOR BERE ESTILOAN**

Ruedak pop-rock xamurra egiten du, dotoretasuna eta distira batzen dituena. Ingalaterrako popa gogora ekartzen du.

Murugarrenek, Dylanen itzala luzatuz, ironiaz jantzitako kantu bereziak idazten ditu, estilo propioarekin.

Azkenik, Pettik bluesa, folka eta rocka bat egiten ditu, barruan daraman piztia kanporatu eta gordintasuna, basakeria eta sormena uztartuz.

**HIRUKOTE BEREZIA** Txuma Murugarren, Rafa Rueda eta Petti, gaur elgetan. IKOR KOTX

**JEFF SAMUEL** AEBetako disko jartzailea munduko onenetarikoa da. 3.60

**MUSIKA** > PUNK-ROCKA ETA ELEKTRONIKA DOINUAK

# Gaur, egubakoitza, punka eta zapatuan DJak

Egubakoitzean, Vantroi, Sioux eta Deskontrol; eta zapatuan, 'Pokerflat special night' jaia nazioarteko disko jartzaileekin 3.60 aretoan

**I.B.**> ARRASATE

Asteburuan bi musika emanaldi egingo dituzte Arrasateko 3.60 aretoan. Batetik, gaur, egubakoitza, hiru taldek punk-rocka landuko dute, 22:00etan.

Egubakoitzeko talde handia Vantroi mexikarra izango da. Punk-rocka, ska eta reggae doinuak lantzen ditu, eta Mexikon bezain ezagunak dira Espainiako Estatuan. Reincidentes, Extremoduro eta Soziedad Alkoholika taldeek asko lagundu zituzten iraganean, eta askotan aritu dira Euskal Herrian.

Mexikarrekin batera, bi euskal talde arituko dira: Sioux eta Deskontrol. Azken talde horrek ez dauka zerikusirik Des-Kontrol arrasatearrekin, nahiz eta izen ia bera izan.

Bihar, zapatua, bestelako eskaintza izango dute 3.60 aretoan. Nazioarteko disko jartzaileek elektronika doinuak landuko dituzte 23:00etatik 07:00etara.

**JEFF ETA 'ARGY', IZARRAK**

Gaueko izarrak AEBetako Jeff Samuel eta *Argy* greziarra izango dira. Samuel munduko disko jartzaile onenetarikoa izendatu dute. Minimal eta techno-house estiloak lantzen ditu, eta kantuei funk-a ateratzen die.

Argyris Theofilis *Argy* greziarra da, baina gaur egun Londresen bizi da. New Yorkeko housearen eta bossanovaren eragin handiak ditu. Biak Euskal Herrira datozen lehenengo aldia da.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
**Enplegu Saila**

**ARRASATEKO UDALAREN IRAGARKIA**

**2007ko Enpresen Laguntzen Programaren deialdia:**

Programaren helburua: Arrasaten enpresa berriak eta enplegu egonkorra sortzen laguntzea.

Programaren ezaugarriak: Diruz laguntzen dira Arrasateko enpresa berrietan sortutako lanpostu egonkorrak. Enpresak gehienez 15 langile eduki behar dute eta Arrasaten eduki behar dute lan tokia.

**Eskaerak aurkezteko epea: 2007ko uztailaren 10 arte.**

Informazio gehiago eskuratzeko:
Interesatuek jo dezakete Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzura
Tel.: 943 25 09 00 e-mail: enplegu@arrasate-mondragon.net).

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA
**MATRIKULA EPEA ZABALIK**
**Maila goreneko diplomatura**
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Omega Elevator, s.a.
• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak
**Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ**
**Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96**
**omegaelevator@omegaelevator.com**

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- San Pedro 110 m². Estreinatzeko.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Aranerreka 87m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m² Ondo.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 60 m². Berritua.

**Elgeta:**
- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Bidekurutzeta, 82m², ia berria
- Arrizuri, 97m², oso ondo
- Juan XXIII, 80 m², berritua
- Masterreka, 87m², oso ondo
- Burdiñate, 60m², garajearekin
- Bidekurutzeta, 60 m², oso ondo
- Zubiaurre, 60 m², aukera ona
- Ibarra, 47 m² berritua
- Zubieta, 65 m², oso eguzkitsua
- Erdialdean, 200 m², aukera ona
- Ibargarai, 80 m²,ondo
- Artekale, 62 m² oso ondo
- Aranerreka, 87 m², ondo
- Osintxu, 80 m², ondo
- Mugertza, 60 m², berria
- San Lorentzo,18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

**SORALUZE**
- Gabolatz, 65 m², oso ondo
- Atxuri, 93 m², oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**LAN ESKAINTZA**

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Debagoieneko Mankomunitateak
**ALDI BATERAKO TURISMO TEKNIKARIA**
kontratatu nahi du.

**Titulazioa:** erdi mailako titulazioa (diplomatura); B gidabaimena; 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea.

**Eskaerak:** ekainaren 15eko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen egoitzan. Bertan dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

**Helbidea:** Arrasate pasealekua 5, behea ARRASATE.
**Telefonoa:** 943 79 33 99
**Web orria:** *www.debagoiena.com*

**ARRASATE**

**Bi etxebizitza salgai**

- Estreinatzeke
- Larrea plazan
- Sukalde hornitua, 80 m2 gutxi gorabehera
- Prezioa: 237.400 euro

- Estreinatzeke
- Larrea plazan
- Sukalde hornitua, 120 m2 gutxi gorabehera
- Prezioa: 297.500 euro

**617 33 63 11**

**ARETXABALETA**

**Baster Alde jatetxeak esperientziadun zerbitzaria behar du. Domeketan jai.**
**679 45 57 75**

**OÑATI**

**Ile apaintzaile esperientziaduna behar da. Egun osoko lanaldia martitzenetik zapatura, urtean 8 zapatu jai.**
**607 81 52 74**

**ARRASATE**

**Kanpazar jatetxeak barran zerbitzariak behar ditu. 4 egun lan, 2 jai.**
**669 30 26 86**

**BERGARA**

**Ile apaintzaile bat behar da ile apaindegi batean lan egiteko.**
**943 76 00 55**

**BERGARA**

**Sirimiri jatetxeko sukaldean lan egiteko.**
**943 76 59 19**

**ARRASATE**

**Elikadura denda baterako langilea behar da. Sukaldaritzan ezagutza izatea baloratuko da.**
**943 79 28 21**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Baserria salgai lursailekin. 943 76 62 98 edo 943 76 65 03.

**Antzuola.** Adosatua. Estreinatzeko. 607 79 00 37.

**Aretxabaleta.** Erdigunean, 72 m²-ko teilatupekoa eta 16 m²-ko garajea. Prezio ona. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Zigarrola auzoan, 120 m2, 5 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa, egongela, ganbara, txokoa eta 150 m2-ko terraza. Eguzkitsua. Telefonoa: 647 41 93 66.

**Arrasate.** Uribe auzoan. Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

**Arrasate.** Grupo San Juanen. 4. solairuan dago. 60 m2. Igogailua, ganbara eta sotoa. Sartzeko moduan. 606 25 92 80.

**Arrasate.** San Andresen, Txindoki dorrean, 109 m2-ko etxebizitza saltzen da. Eguzkitsua eta bista ederrekin. Lau logela, sukaldea, egongela handia, bi bainugela eta hiru terraza. Berriztatua. Berokuntza zentrala. 64.000.000 pta. 385.000 euro. 943 79 19 94.

**Arrasate.** San Josepen. 58 m2, bi logela, egongela, bainugela, sukaldea, trastelekua, berogailua, igogailua, guztiz berritua. 667 53 70 00.

**Bergara.** Apartamentu berria herri erdian. Logela bakarra. 659 44 76 75.

**Bergara.** Erdian. Lau logela, 3 bainugela, altzariekin. 659 44 76 75.

**Bergara.** Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailuarekin eta ganbararekin. 619 41 39 72.

**Donostia.** 72m2-ko etxea salgai. Igogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan eta bista ederrak. 65.900.000 pta. 658 73 08 56.

**Oñati.** Ugarkalde auzoan. Berria. Hiru logela, bi komun, egongela eta terraza. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. 670 27 45 82.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Duplexa ematen da errentan. 105 m2. Erdialdean. Ia berria. Jantzita. Bilogela, sukaldea, egongela eta bi bainugela. Ikaslerik ez. 629 46 93 91.

**Arrasate.** Ikasleentzat; emakumezkoak nahiago. San Andres auzoan. Erabat berrituta, estreinatzeke: hiru logela, sukalde hornitua (mikrouhin-labea, bitrozeramika...) , egongela eta komuna. Igogailua. Unibertsitatetik hiru minutura eta erdigunetik bost minutura. 600 60 56 71.

**Arrasate.** Hiru logelako etxea errentan San Andresen. Telefonoa: 665 70 75 01.

**Benidorm.** Hondartza parean. Lau lagunendako aproposa. Abuztuko bigarren hamabostaldian eta irailean. Igerilekua eta garajea ere baditu. 945 21 34 70 edo 652 75 91 72.

**Benidorm** . Hondartzan bertan dago. Guztiz jantzita. Garajearekin. 630 41 84 65.

**Conil.** Bateles hondartza ondoan. Erabat jantzita. Aire girotua du. Ekainetik irailera. 680 44 26 68.

**Costa Ballena** (Cadiz). Uztailerako 2 logeladuna. Garajea, igerilekua eta hondartzatik 5 minututara. 679 84 62 48.

**Costa Sancti Petri-Chiclana** (Cadiz). Ekaina, abuztuaren 2. hamabostaldia eta irailerako guztiz hornituta. Leku zoragarrian kokatua, urbanizazio berria, igerilekua, mini-golf, lorategiak,... La Barrosa hondartzatik oso-oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Elizondo.** Etxebizitza alokatzen dut Elizondon. 630 08 33 85.

**Ezkarai.** Uztailean eta abuztuan. Urbanizazio baten dago. Hiru logela dauzka eta herri erdialdean dago. Igerilekua eta lorategia dauzka. Familia batentzat egokia. Deitu 20:00etatik aurrera. 639 82 42 76.

**Jacan** bi logelako etxea errentan. Garajea, tenis pistak eta igerilekua. 665 73 95 65.

**Noja.** Duplexa da eta hondartza ondoan dago. 696 90 94 43.

**Noja.** Apartamentua alokagai. 635 75 35 29.

**Peñiscola.** Ekainetik irailera etxebizitza errentan ematen da. Hondartzatik 100 metrora. Igerilekua eta aparkalekua. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

**Salou.** Jaime I pasealekuan, Novelty eraikinean. Erabat jantzita. Aire girotua du. Terraza handia eta bista ederrak. Irailerako. 629 98 98 99.

**Torrevieja.** 4-6 pertsonendakoa da. Hondartza ondoan. 657 79 47 95.

**Torrevieja.** Uztailerako eta irailerako. Igerilekua dauka. 943 78 04 70.

**Villanua.** Pirinioetan, igerilekuarekin, garajearekin eta paddle pistarekin. Uztaila eta abuztuko lehenengo hamabostaldia. 656 74 80 47.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta** Etxea hartu nahi dut errentan. Ezinbestekoa da igogailua edukitzea. 606 25 17 74.

**Debagoiena.** Unibertsitatera datozen atzerriko ikasle batzuentzat. Irailaren erditik urtarrilaren bukaera arte. Seriotasuna ziurtatuta. Telefonoa: 656 77 66 32.

**Oñati.** Bikote batek apartamentua hartuko luke errentan urritik aurrera. Telefonoa: 659 25 72 84 edo 943 78 20 65.

### 105. ETXEAK OSATU

**Legazpin.** Itxaropen auzoan. Logela bat alokatzen da pertsona batentzat; emakumezkoa nahiago. 649 92 19 48.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garajea saldu edo errentan ematen dut. Uribarrin. 625 47 61 62.

**Bergara.** Burdiñaten garajea salgai. Deitu telefono honetara:605 74 75 64.

**Bergara.** San Lorentzon garaje itxia salgai. Deitu telefono honetara:943 76 40 05.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea errentan Uarkapen. 18 m2. Deitu telefono honetara: 699 49 14 32.

**Arrasate.** Kontzezino kalean garaje plaza emango nuke errentan. Deitu telefono honetara: 655 71 81 84.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bulegoa** 450-500 euro. 17 metro karratu. Komuna dauka. Beste gela bat erabiltzeko aukera. Arrasate erdialdean. 679 59 04 38 edo 659 59 71 21.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna edozein lan egiteko gertu. 659 82 75 18.

**Bergara.** Mutil bat gertu zerbitzari lanak egiteko. 653 85 48 59.

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaintzeko gertu, baita astebururetan ere. Etxean bertan bizitzako prest. 618 44 59 77.

**Debagoiena.** Emakumea prest edadeko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko zein garbitze lanetarako. Orduka egingo nuke lan: 12:00etatik 16:00etara. 686 52 15 98 edo 618 93 59 29.

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernako barran, elkarteetan, lan egiteko. 943 76 61 19 edo 607 72 73 18.

**Debagoiena.** Neska gazte eta arduratsua gertu etxeko garbiketa egiteko edota pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak. Telefonoa: 943 53 33 47 edo 665 71 27 87.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Oñati.** Uztailean eskola partikularrak emango nituzke. Irakasletzan diplomaduna. Telefonoa: 666 21 73 48.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroen ZX 1.9 TD.** 92 zaldi, 1994koa. 1.000 euro. 653 01 77 97.

**Bost** pertsonarendako karabana. Ondo dago. 636 60 07 25.

**Karabana**. Knaus markakoa. 2005. urtekoa. Hiru gune ditu eta estra guztiak. 620 39 69 47.

**Suzuki RM** 125. 2001ekoa. Egoera onean dago. 2.800 euro. 679 24 89 72.

**Trialeko** motoa salgai. 1.000 euro. 608 57 87 30.

**VW California.** 1996. urtekoa. 636 28 00 07.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Setter** arrazako txakurrak salgai. 943 78 70 64.

### 703. EMAN

**Etxeko** lau katakume oparitzen dira. Oso politak. 635 74 34 55.

**Txakurkume**. Ama euskal arditxakurra eta aita ardi-txakur belgikarra. Eskoriatzan daude. 619 92 91 18.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Baxera** eta mahai-zapiak salgai, elkarte edo jatetxe baterako egokiak. 659 44 76 75.

**Depilazio makina** eta esku-ohea salgai. Prezio interesgarria. 659 44 76 75.

**Kanpin denda-karroa.** salgai, Alpen-Kreutzer markakoa. Sukaldea eta estalki hermetikoa dauzka. Egoera eta prezio onean. 619 71 60 65.

**Karro-denda** salgai. Inesca-Marbella markakoa. 3 urte ditu. Sukaldea eta izozgailua. 1.500 euro. 659 04 37 70.

**Realeko** jantzi ofiziala salgai. Erabili gabea. 12 neurrikoa. 30 euro. 943 77 13 11.

**Relax sofa.** Indibiduala. Oso ondo dago. Teila kolorekoa. 450 euro. 688 61 24 20.

**Sony telebista.** Panoramikoa. 100 hz. 32". Mueble eta guzti. 607 63 48 88.

### 806. GALDU

**Bergara.** Txaketa beltza galdu nuen maiatzaren 27an San Pedro elizatik Mizpirualdera bitartean. 628 88 54 17.

**Giltza** galdu dut, Renault Espace autoarena. Ekainaren 2an galdu nuen, seguruen Aretxabaletan ospatu zen Mundumira jaiko umeen gunean. 667 89 28 38.

### 807. AURKITU

**Belarritakoa** aurkitu nuen Aretxabaletatik Urkulura doan bidegorri hasieran. Urrezkoa da eta perla txiki bat dauka. Arantxa. 943 79 66 46.

SORALUCE
GRUPO DANOBAT

**SORALUCE KOOPERATIBA ELKARTEAK MUNTATZAILE MEKANIKOAK BEHAR DITU**

- Mekanika arloko prestakuntza (LH-II edo hezikleta ziklo teknikoak)
- Esperientzia izatea kontuan hartuko da.
- Lanean berehala hasteko aukera.

**Bidali curriculuma Giza Baliabideen Sailera**
**Helbidea:** Osintxu auzoa z/g
20570 Bergara
**Posta elektronikoa:** soraluce@soraluce.com

## LAIXAN ELKARTEA
## 2007ko OHIKO BATZAR OROKORRA

Laixan

Laixan elkarteak 2007ko ohiko batzar orokorra egingo du ekainaren 12an, Laixanen egoitzan, Bidebarrieta kaleko 18. zenbakian. 19:00etan da lehen deialdia eta 19:15ean bigarrena. Batzar orokorra bukatu ostean, luntxa egongo da.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Orokorreko aktaren onarpena eta aurtengoa sinatuko duten bi bazkideen izendatzea.
2. 2006ko jardueren aurkezpena.
3. 2006ko diru kontuan azalpena eta onarpena.
4. 2007ko egitasmoen aurkezpena.
5. 2007ko aurrekontuen azalpena eta onarpena.
6. Galde-eskaerak.

Oñatin, 2007ko ekainaren 8an
LAIXAN

**Mikel Biain** eta **Carol Baladron** Oñatiko Asentzio ermitan ezkonduko dira ekainaren 9an. Zorionak eta urte askotarako zuen familiakoen eta koadrilakoen partetik. Ondo pasa Txinako bidaian. Laztan handi bana.



**Miguel A. Ferreira** eta **Laura Tejero** arrasatearrak zapatuan, ekainaren 9an, ezkonduko dira Arantzazun. Ezkontza egunean eta bidaian ondo-ondo pasatzea opa diegu. Zorionak, familia guztiaren partetik!

Aretxabaletako Galartza auzoan jaio eta aspaldian Bergarako Mariaren Lagundia komentuan dagoen **Consolacion Urrutia** moja egin zenetik 50 urte beteko dira ekainaren 10ean, domekan. Ospakizuna egingo du lagun mojekin eta familiakoekin. Zorionak, familiakoen partetik!

## hildakoak

- **Carlos Gomez Gonzalez.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 77 urte.
- **Francisco Hernandez Bautista.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 83 urte.
- **Federico Uribesalgo Zuazua.** Aretxabaletan, ekainaren 2an. 90 urte.
- **Araceli Lazkano Lasagabaster.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 92 urte.
- **Maria Aierbe Iñurrigarro.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 91 urte.
- **Maria Iraola Elortza.** Bergaran, ekainaren 2an. 84 urte.
- **Lorenzo Zamarreñoo Santos.** Arrasaten, ekainaren 4an. 80 urte.
- **Jose Luis Felix Oliver Barinagarementeria.** Arrasaten, 5ean. 60 urte.
- **Bizenta Agirre Kortabarria.** Bergaran, ekainaren 5ean. 79 urte.
- **Lorenza Erostegi Larrea.** Antzuolan, ekainaren 6an. 87 urte.

**Jose Elizburu** eta Angiozarko **Amparo Oiangurenek** gaur, ekainaren 8an, urrezko ezteiak bete dituzte. Ospakizuna hilaren 17an egingo dute. Angiozarren meza izango da eta bazkaria Arrateko Krabelin jatetxean. Familikoen eta Anuskaren partetik, zorionak.

**Tomas Biain** eta **Pilar Arregi** oñatiarrak 1957ko ekainaren 1ean ezkondu ziren, Oñatin. Urrezko ezteiak bete dituzten honetan, zorionak, bikote, etxekoen partetik!

URTEURRENA

### Maritxu Erdabide Etxaniz

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

### Federico Uribesalgo Zuazua

Aranzazu Uribe Iturberen alarguna

**Gasteizcn hil zen 2007ko ekainaren 1ean, 90 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2007ko ekainaren 8an.

II. URTEURRENA

### Dorleta Villar Antxia

**2005eko ekainaren 9an hil zen**

Bigarren urteurreneko meza domekan, ekainaren 10ean, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. / Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**

Babeslea:

OROILORE

Hileta eta beilatoki zerbitzuak

*Zerbitzu etengabea 365 egunean*

*Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera…*

*Erantzun azkarra, tratu pertsonala*

*Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan*
*Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak*

*Bete beharreko tramiteak*

*Gorpua prestatu eta dotore ipini*

*Zerraldo aukera, denetariko prezioak*

*Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

## bila-bila 7



## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | * Irudiko lorea / EH-ko mendialdea | ▼ | klariona / Gainazala | ▼ | Oreztak / Ez eme | ▼ |
| | | | ▶ | | ▼ | | ▼ | |
| | | | Basapiztia mota / Hitzarmenak | ▶ | | | | |
| Samoako / Gaztelakoa | ▼ | Haran / Azkena eta lehena | ▶ | ▼ | | | Nitrogenoa / Ezeztatu | ▶ |
| ▶ | | ▼ | | | | | ▼ | |
| Zuberoako hiriburua / Begira | ▶ | | | | | K birritan / Bokala | ▶ | |
| ▶ | | Enea / Neona | ▶ | | | ▼ | | Bizkaiko herria |
| Fruitu mota / Indarren berdintasun | ▶ | ▼ | | | | Infusio mota / Sufrea | ▶ | ▼ |
| ▶ | | | | | Garra | ▶ | ▼ | |

GOIENKARIA

## umore giroan

**Kike Amonarriz**

### HORTZOREA

Tolosarra beti berandu iristen zen. Goiz batez, arduraduna bere onetik atera eta iritsi orduko zuzendaritzara azal zedin agindu zuen. Heldutakoan:

- Badakit puntualitatearekiko duzun harremana oso pertsonala dela, eta orduan iritsi baino lehenago, nahiago izaten duzula auto barruan bueltaka ibili.

- Aitortu behar dut hori egia dela, baina gaurkoa desberdina izan da; istripu bat izan dut. Komunean hortzetako pastaren tutua zapaldu dut.

- Horregatik iritsi al zara gaur ere ordubete berandu?

- Ez! Baina ateratako pasta tutuan sartzen saiatu naiz!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 3 | | 4 | | 2 | | |
| | 4 | | 3 | | 5 | | 8 | |
| 7 | | | | 2 | | | | 6 |
| 5 | | | | | | | | 3 |
| | | 7 | | | | 1 | | |
| 2 | | | | | | | | 8 |
| 3 | | | | 5 | | | | 2 |
| | 9 | | 4 | | 2 | | 7 | |
| | | 8 | | 7 | | 6 | | |

## hieroglifoa

Non prestatu behar duzue oilaskoa?




## hizki salda

5 esneki

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Y | Z | E | H | U | G | I | A | G |
| L | Y | T | A | Z | T | A | U | A |
| L | E | R | I | M | A | G | T | A |
| I | N | U | A | R | U | O | A | T |
| T | A | D | H | R | K | E | Z | R |
| N | S | E | I | B | A | T | T | G |
| A | N | N | A | E | I | I | A | O |
| H | A | M | E | K | T | O | G | Y |
| C | I | A | T | Z | A | G | A | Z |

## soluzioak





| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 6 | 3 | 9 | 4 | 7 | 2 | 1 | 5 |
| 1 | 4 | 2 | 3 | 6 | 5 | 9 | 8 | 7 |
| 7 | 5 | 9 | 8 | 2 | 1 | 4 | 3 | 6 |
| 5 | 1 | 4 | 2 | 9 | 8 | 7 | 6 | 3 |
| 9 | 8 | 7 | 5 | 3 | 6 | 1 | 2 | 4 |
| 2 | 3 | 6 | 7 | 1 | 4 | 5 | 9 | 8 |
| 3 | 7 | 1 | 6 | 5 | 9 | 8 | 4 | 2 |
| 6 | 9 | 5 | 4 | 8 | 2 | 3 | 7 | 1 |
| 4 | 2 | 8 | 1 | 7 | 3 | 6 | 5 | 9 |

Jerogliffikoa: Laban.



## bono fotoa

**Oñatiko San Migel parrokiako klaustroak badauka zerbait benetan bitxia egiten duena, Estatuan bakarra dena. Zein bitxikeria da hori?**

**Argazkia eta galdera** > Iñigo Biain

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** .....

.....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Kas**
**2 litroko bipacka**

**1,73 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarako **JONE ARANBURU**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Larriño.**

argi daukagu
KMK'07 ARANZADI IKASTOLA BERGARA

# KMK ABESTIAREN AURKEZPEN JAIALDIA

**Eguna: ekainak 8**

**Ordua: 22:00h**

**Lekua: Bergarako Udal Pilotalekua**

**Parte hartzaileak**

- San Joxepe abesbatza
- Aritzeta abesbatza
- 91ko kanta
- Osintxuko Dantza Taldea
- Alai Taldea
- KMK 07ko abestiaren aurkezpena
- Belceblues
- Bertsolariak
- Emon Taldea
- Ariznoa Gimnasia Erritmikoa
- Musika Eskolako Haurren Abesbatza
- Abarka Dantza Taldea
- Txalaparta
- Alboka

**Sarrerak salgai**
Frontoian, Elkar liburudendan eta Aranzadi Ikastolan

**Prezioa**
nagusiak 5 euro eta umeak 3 euro

**www.kilometroak.net**

:) PRIMERAN PASA PASATU GABE
ARANZADI ikastola
Ikastolen Elkartea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LAGUN GARAJEA

**Oihan Vega** > Kazetaria eta musikazalea

# "Gauzak kontatzea gustatzen zait, eta telebistak aukera ona ematen du"

Oihan Vega komunikazio munduan ezagutu izan dugu. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Leioan; ikasketak amaitutakoan ETBn aritu zen kirol kazetari, eta orain Euskadi Gaztean dabil esatari lanetan, aste bukaeratan. Komunikazioaz gainera, musika du zaletasun bergararrak. Belceblues taldean jotzen du Vegak eta baita Bergarako Udal Bandan ere.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**Ospatu berri diren Bergarako jaietan lan handia izan zuen Oihan Vegak: batetik, Bandarekin kontzertua eta kalejira; eta bestetik, Belceblusekin ere aritu da. Orain, jaiak pasa eta gero, tartetxo bat hartu eta gurekin egon da, bere zaletasunei buruz berbetan.**

**Musika da zure pasioa. Bandan jotzeaz gain, zenbat taldetan aritu zara?**

Nik 11 urte daramat Bandan, eta beti perkusioa jo izan dut. Txikitan, solfeoa ikasitakoa naiz, 7 urterekin hasi nintzen; gero, gitarra, pianoa, bateria eta perkusio ikasketak egin nituen. Orain, Bandarekin diskoa grabatu dugu, Miguel Gonzalez Bastida konpositore ospetsuaren obrekin.

Talde askotan jo dut; hasieran, jazza eta bluesa jotzen genuen metalezko instrumentuekin; gero, Aitzol Muxikarekin ere aritu nintzen, eta baita Bergarako Doppler heavy musika taldearekin. Hortik Belceblus taldea sortu zen.

**Zein da zure musika estilo gustukoena?**

Heavya, zelta eta bluesa. Oso desberdinak dira hirurak ere; eta, bat aukeratzekotan, heavya aukeratuko nuke. Bihotzean daramat heavya. Baina denetik egin izan dut. Gainera, niri, denetik entzutea gustatzen zait; bestela, itxi egiten zara, eta bizitza uste baino zabalagoa da.

**Orain, programa bat garabatu duzu ETBrentzat, Jose Luis Kortarekin.**

Bai, ETBrentzat programa bat egin dugu, Jose Luis Kortarekin. Umore puntua duen programa izango da; bizitza, Jose Luis Kortaren ikuspegitik. Euskal Herriko gaiak landuko ditugu, baina Kortaren ikuspegitik.

**Telebistan, irratian, zineman... aritu zara. Zein da gustukoen duzun hedabidea?**

Nik uste dut, zalantza barik, telebista dela gehien atsegin dudana. Aurrean edo atzean? Biak. Gehien gustatzen zaidana gauzak kontatzea da; bai errealitatea eta bai fikzioa. Eta telebistak komunikatzeko oso modu ona eskaintzen du: irudia eta soinua dituzu eta, gainera, zinema baino eskuragarriagoa da gaur egun. Dauden hedabide guztietatik zabalena telebista da. Zinema polita da, eta askoz ere goxoagoa, baina ikuslearen partetik aktibotasun bat eskatzen du; zinemara edo kultura etxera joan egin behar duzu zinema ikusteko. Telebista, berriz, zure etxean duzu.





ARANTZAZU EZKIBEL

**Eta zaila egiten da kazetari izatetik elkarrizketatu izatera pasatzea?**

Ez, batere ez. Gainera, ni kazetari bezala aritu naizenez, badakit gozamena dela elkarrizketatua mundu berekoa izatea. Azken finean, nik badakit zuk zer gura duzun eta zelan idatzi behar duzun. Hala, ni laguntzen saiatzen naiz.

**Zineman, zein da zure film faboritoa? Eta zuzendari gustukoena?**

Zuzendari bezala, bi ditut gustuko: batetik, Steven Spielberg. Nik uste dut oso zuzendari garrantzitsua izan dela, nahiz eta azkenaldian alde komertziala landu duen. Bestetik, Tim Burton. Pelikulei dagokienez, nire ustez, historian egin den pelikula onena *La vida de Brian* da.

**Ze aktorerekin lan egin aukeratu ahal izango bazenu, zein aukeratuko zenuke?**

Ni zuzendari bezala egonda, Brad Pitt hartuko nuke. Oso aktore osoa dela uste dut. Alde batetik, fisiko ona dauka eta horrek beti erakartzen du. Bestetik, oso aktore zabala da, ezin duzu paper konkretu batean sailkatu. Edozein paper egin dezake, txarrarena, onarena… eta gainera, duen adinerako, oso ondo dago.

**Nola ikusten duzu euskal zinemaren egoera?**

Nik argi eta garbi dauzkat bi gauza: batetik, euskaldunak garenak ez gara miloi batera heltzen. Beraz, hori eragozpen bat da, zure publiko potentziala oso murritza da-eta. Adibidez, aurrekontu berarekin, Espainian egindako pelikula batek 40 milioiko ikusle potentziala du. Atera kontuak hortik.

Bestetik, euskal zinemak gora egin ahal izateko, esku publikoak dirua jarri behar du. Normala den moduan, dirurik ematen ez duen proiektu baten inork ez du dirurik jarriko. Beraz, suposatzen da dirua bilatzen ez duen erakunde bakarra publikoa dela.

**Baduzu anekdotarik?**

Asko; Euskadi Gaztean, esaterako, entzuleen SMSak irakurtzen ditugu eta behin izugarri nahastu nintzen...

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak?** Ikus-entzunezko Komunikazioa. **Zaletasunak?** Musika eta zinema. **Baduzu maniarik?** Bai, eta arazo asko ematen dit, gainera; ezin dut lorik egin, logelan, *tik-tak* egiten duen erlojuren baldin badago. **Gorrotatzen duzu zer edo zer?** Orokorrean faltsukeria; uste dut faltsukeria handia dagoela munduan. **Amets bat?** Ametsetan hasiz gero, film luze bat zuzentzea. **Egin duzun bidaia gustukoena?** Iaz, Moskura joan nintzen neskalagunarekin; oso giro berezia aurkitu genuen.

**LEHENENGO JARDUNALDIA** Markaren gaineko lehen jardunaldiko irudi bat. AZK

**ENPRESA** > MARKAREN GAINEKO JARDUNALDIAK

# Markari buruzko II. jardunaldiak antolatu dituzte AZK-k eta MU-k

Wally Olins adituak parte hartuko du Donostian eguenean egingo diren jardunaldietan; Saffron-eko presidente eta 'branding'-eko guru handienetariko bat da

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Wally Olinsek, Saffroneko presidenteak eta *branding*-eko mundu mailako guru nagusietako batek, *Branding aquí y ahora* izeneko II. jardunaldian parte hartuko du, datorren ekainaren 14an, eguenean, Donostiako Kursaalen, AZK Komunikazioek eta Mondragon Unibertsitateak antolatuta.

Wally Olins Wolff Olins aholkularitzaren fundatzailetako bat dugu eta Orange, Repsol, Prudential, Renault, Volkswagen, Vueling, Yoigo eta Bankinterreko marken egilea, batzuk aipatzearren. Londrestar hori *country brands* edo herrialde-marken egile bezala erreferentzia da mundu mailan eta komunikazioari eta markei buruzko zenbait libururen egile. Olinsek jardunaldiaren lehen hitzaldia egingo du, 09:30ean: *Branding: zergatik sinetsi behar dugu brandinean?* Horretan, markaren balio konpetitiboa, globalizazio eta *branding*-a eta *branding*-aren identitatea eta bere eragina merkatuan aztertuko ditu.

**BESTE HITZALDI BATZUK**

Ondoren, 10:45ean, Stephane Lievainek, Kodak taldeko Europako salmenta eta marketin-presidentearen txanda: *Mundu mailako marka historiko baten eguneratzea*. Gero, mahai-ingurua izango da hainbat marka euskaldunen ordezkariekin: marka industrial bat –Grupo Condesa–, lurralde-marka –Bilbao Metropoli 30– eta kontsumokoa –Orbea.

16:00etan, tailerra izango da: *Crossumer: belaunaldi berriko kontsumitzaile eta bere marka kuttunak. Ikerketa eta joerak*, The Cocktail Analysis enpresako Victor Gilek zuzenduta.

**HELBURUAK**

Hauek dira jardunaldien helburuak: enpresak sentsibilizatzea marka aktibo estrategiko bat bezala kudeatu dezaten; eta partaideei helaraztea markak kudeatzeko metodologiak; eta hausnarketa egitea: zeintzuk diren faktore kritikoak marka kudeaketa egokia egiteko batere tradizionalak ez diren merkatuetan.

## teknologia berriak

> UMPC

### VIA NanoBook, 850 gramo baino gutxiago pisatzen duen ultraeramangarria salneurri ezin hobean

VIAk NanoBook Ultra Mobile Device (gailu ultra eramangarria) aurkeztu berri du. Hain zuzen ere, 850 gramo baino gutxiagoko pisua du, 1,2 GHz-ko prozesagailua, gigabit bateko RAM memoria, 30 GBko disko gogorra, zazpi hazbeteko WVGA pantaila, WiFi 802,11g, Bluetooth, DVI irteera eta pantailaren alboan GPS, VoIP edo WWAN moduluak konektatzeko slot bat du.

Windows Vista edo XP sistema eragileekin dabil.

Salneurria: 445 euro.

Pantailaren alboan GPS, VoIP edo WWAN moduluak (argazkian munduko erlojua) konektatzeko slot bat du.

> TELEFONIA MUGIKORRA

### Toshiba G900, hiru hazbeteko ukimen pantaila eta hatz-marken irakurgailua duen sakelakoa

Bartzelonan egin zen 3GSM azokan aurkeztu zuen Toshibak sakelako telefono hori.

Terminal horren ezaugarri nabarmenena bere hiru hazbeteko WVGA (800x600 puntu) ukimen bidezko pantaila da. Hatz-marka irakurgailuaren bidez terminalera sartzeko.

WiFi, Bluetooth eta USB konexioak, bi megapixeleko kamera, bideokonferentziak egiteko bigarren VGA kamera eta 64 megako barne memoria ditu. Microsoft Windows Mobile 6 sistema eragilea du eta azken belaunaldiko sareekin bateragarria da.

Salneurria: 450 euro.

Pantailak leku handiagoa har dezan QWERTY teklatu irristakorra erabiltzen du

> ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK

### MacBook Pro gama eguneratua: prozesagailu azkarragoak, RAM eta disko gogor handiagoekin

Ohikoa den moduan Apple etxeak martitzenean MacBook Pro gama eguneratu zuen. Modelo berrien ezaugarri nabarmenenak hauek dira: 2.2.2GHz edo 2.4GHz Intel Core 2 Duo prozesagailuak eta ATI txartel grafikoa NVIDIA GeForce 8600M GT batengatik aldatu dituztela.

Hiru modelo ezberdin daude eskuragarri. Salneurriak: 1,849 eurotik 2,599 eurora bitartean.

AirPort Extreme bidez hobetutako haririk gabeko konexioa, 802.11n Wi-Fi protokoloarekin bateragarria.

## berriak

> GOITB

### Korpus Kristi eguneko prozesioa datorren eguaztenean

Oñatik urtetan zerbait ondo zaindu eta mantendu badu, hori Korpus Kristi eguneko prozesioa da. Tradizioak, erlijiotasunak eta dantzak bat eginik, meza nagusiaren ondoren zeharkatzen ditu prozesioak herriko kaleak. Eguenari jaiegun izaera kendu zitzaionetik hurrengo domekan ospatzen da Oñatin Korpus Kristi eguna. Eguaztenean 21:45ean ikusiko dituzue Oñatiko ospakizunak.

> GOITB

### Musika aukera zabala 'Musikantoi' saioan, eguenetan

*Musikantoi* saioan hainbat talde izango dituzue ikusgai datorren eguenean 21:47an. Alde batetik, Sexty Sexer talde nafarraren rock doinuez gozatzeko aukera izango duzue. Bestetik, The Uski's boskote bizkaitarraren doinu dantzagarriak ere entzun ahal izango dituzue. Eta, azkenik, Hertzainak taldeak Anoetan emandako azken kontzertuko pasarte bat ere eskainiko dute *Musikantoi*-n.

> ARRASATE IRRATIA

### Bioerregaien gaineko ikasgaia 'Asteko Gainbegiratua-n

Martitzenean, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, birziklatutako olioarekin egindako biodieselaren gainean jardun genuen erakundeen geltokian. Rafa Ugarte Udaleko Ingurumen Saileko arduradunak eta Xabier Muro Ecogras enpresako ordezkariak azaldu ziguten erabilitako olioa kaleko edukiontzietan jasotzen denetik biodiesel bilakatzen den bitarteko prozesua zein den.

> ARRASATE IRRATIA

### Su-etena bertan behera uztearen gaineko iritziak asteburuan

Martitzeneko albistea izan zen ETAk su-etena hautsi zuela. Goizeko saioan batu genituen albistearen gaineko lehenengo adierazpenak. Eguazteneko albistegian, berriz, Arrasateko Udaleko alderdi politiko guztien iritziak jaso genituen. Ondoren, mikrofonoa hartu eta kalera abiatu ginen herritarren hitzak ere jasotzeko.

*Asteko gainbegiratua*-n berreskuratuko ditugu guztien esanak.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA 22:15

# Iban Zaldua idazle donostiarra 'Ilunpean' saioan, gaur

Iban Zaldua idazle eta historia irakaslea elkarrizketatuko du Oihana Elortzak 'Ilunpean'-en

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Iban Zaldua 1966. urtean jaio zen, Donostian, baina egun Gasteizen bizi da. Historian lizentziaduna, historia irakaslea eta idazlea da. Teknofobiari ihes egiten dion intelektual gutxienetakoa, ipuin bildumak idatzi izan ditu batik bat, euskaraz zein gazteleraz, eta, hala, *Etorkizuna* ipuin bildumarengatik eman zioten 2006an Euskadi Literatura Saria. Interneten ere badu bere idazteko txokoa. *Volgako Batelariak* izeneko blogaren sortzailea da beste lagun batzuekin batera, eta literaturaz jarduten dute bertan.

**IBAN ZALDUA** Oihana Elortzarekin solasean izango da gaur. GOIENKARIA

**'DEBAGOIENEAN KANTARI'** > KANTU JAIALDIA

# 'Debagoienean kantari', gaztetxoak kantuan ipiniko dituen saioa laster GOITBn

**GOIENKARIA** >ARRASATE

GOITBk gaztetxoei zuzendutako proiektu berria abian jarriko du datorren urrian. Izan ere, lehen aldiz, Debagoieneko ume eta gaztetxoen kantu jaialdia antolatu du Goienak. Hala, gure ibarra osatzen duten bederatzi herrietako 1995 eta 1999 urteen artean jaiotako gaztetxoek hartu ahal izango dute parte. Gaztetxoek kanturako duten maila eta trebetasuna erakutsi ahal izango dute, beraz. Goienaren ekimen berri horrek helburu nagusi batzuk lortu nahi ditu: batetik, ibarreko ume eta gaztetxoentzako ekintzak sustatzea; bestetik, euskal kultura bultzatzea. Baita gurasoak euskal kulturan inplikatzea; eta, azkenik, ume eta gazteen presentzia hedabide euskaldunetan bermatzea. Goienako medio guztietan jaialdien jarraipena egingo dugu. Goiena Telebistak, gainera, ume eta gaztetxoek egiten dituzten entseguetako irudiak, elkarrizketak eta zuzeneko jaialdiak batuta telebista saioak sortuko ditu, astero, GOITBn ikusi ahal izango direnak.

## telebegi

**Edu Mendibil** > www.goiena.net/blogak/edu

# Sautrela, letren errepublika

Ero eta bero, 2. mailako futbol partiduak, domekako kirol *telesiestak* edo *Gazte aingeruak* realitya baino ordutegi txarragoa dauka *Sautrela*-k (ETB-1, zapatuetan 14:30ean eta astelehen gauerditan). Eta pena da, Euskal Telebistan aurki daitekeen saiorik erakargarrienetakoa baita. Hala ere, entzuleria fidela lortu du saioak.

Joxanton Artze poeta elkarrizketatu zuen Hasier Etxeberriak 190. atalean. Anfitrioi bikaina da Etxeberria; gertukoa, hurbila, jantzia. Ez da lorpen makala medioei fobia antzekoa dieten Xabier Lete edo Artze bera elkarrizketatu izana. Artzeren *Isturitzetik Tolosan barru* liburuaren berrargitalpena aztergai izan zuten asteon. "Poesia ez da hitzetan bakarrik bukatzen", dio Artzek, eta horren lekuko liburu multidisziplinarra (Etxeberria dixit) da berea, musikariak, arkitektoak edota grafistak batu zituena.

Lan bikaina dago *Sautrela* saioaren atzean. Artzeren liburu bat izango balitz, musika, letra tipoa, irudiak, ahotsak... dena ederki zaintzen dute. Modu gozagarrian ikusten... eta irakurtzen den saioa da. Portzierto, hizkizopa al da *Sautrela* izena? Letra-sua ere izan zitekeen.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Erabilitako olioari buruz, Rafa Ugarte eta Xabier Murorekin; Markel Irizar eta Iban Velasco, Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulariak;...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Merkatu txikiaren geltokia
Erakundeen geltokia
Elkarteeen geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 8**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire.**14:15** Musikantoi. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ikusten. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu. **16:15**Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Mundumira 07. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hitz bitan. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Kirolari. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 9**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Kirolari. **12:00** Astekoak. **12:15**5 x 5. **12:45** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00** Mundumira 07. **15:00** Gorpuzti eguna 05. **15:30**Ur eta lur. .**16:00** Didjeridu. **16:30** IIlunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**Hitz bitan. **20:30**Erreportajea.**21:00**Bizitegia. **21:30**5+5. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Didjeridu. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 10**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. **11:00**Hitz bitan. **11:30**Musikantoi. .**12:00**Ur eta lur. **12:30**Klip@. **13:00**Ilunpean.**13:30**Erreportajea. **14:00**Didjeridu. **14:30**Gorpuzti eguna 05**. 15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**ur eta lur. **18:30**Hitz bitan. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Mundumira 07. **21:30**Eltze beroa. **22:00**Didjeridu. **22:30** Ikusmira. **23:00** Erreportaia.**23:30**Ilunpean-.**00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 11**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Teknopolis. **14:15** Ikusten. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ilunpean. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Bizitegia. **16:15**Erreportajea. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ur eta lur. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** 5 x 5. **22:15**Hasiberriak. **22:45**Berriak. **23:15**Didjeridu. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ikusmira. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 12**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Harmaillatik. **14:15**5 x 5. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean .**18:15** Bizitegia. **18:45**Albisteak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Erreportajea.**22:15**Harmaillatik. **22:45**Berriak. **23:15**Hitz bitan. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 13**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47**Didjeridu. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Teknopolis. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Gorpuzti eguna 07. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Gorpuzti eguna 07. **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ur eta lur. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 14**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Gorpuzti eguna 07. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Eltze beroa .**18:15** Teknopolis. **18:45**Albisteak. **19:15**Bizitegia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Musikantoi **22:15**Didjeridu. **22:45**Berriak. **23:15**5 x 5. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera.

# Karaoke Ikuskizuna

## Urritik aurrera Debagoienean!

Debagoienean bizi bazara, 1995 eta 1999. urteen artean jaio bazinen eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, eman izena zure eskolan, Goienako egoitzetan edo ondorengo blogean: www.goiena.net/blogak/kantari

- Taldea **gehienez lau lagunek** osatuko dute.
- Izenematea **eskoletan: ekainaren 20**a baino lehen.
- Izenematea **Goienako egoitzetan edo blogean: ekainaren 27**a baino lehen.
- Ikuskizunak **Debagoieneko aretoetan** izango dira.
- Parte-hartzaileak uda aurretik aukeratuko dira, eta uda ostean hasiko dira entseguak.
- Emanaldi guztiak **GOITBn emango dira**, Debagoieneko Telebistan.

BABESLEA

gaztetxoen elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

# Ekainak 8-15

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Antzerkia

ARAMAIO
**> Txalo taldeak 'Artea' antzezlana egingo du gaur, barikua, kultura etxean**

Txirritola euskara elkarteak antolatu du emanaldia. 22:00etan hasiko da Yasmina Reza frantses idazlearen antzezlan horren gaineko euskarazko bertsioa. Artea eta adiskidetasuna dira antzezlanaren ardatz.

## Jaiak

OÑATI
**> Gaur hasi eta domekara arte ekitaldi ugari Korpus jaien barruan**

Askotariko ekitaldiak egongo dira egubakoitz eta zapatuan. Domekan, Korpus eguna, ohiko prozesioa egingo dute: 11:00etan meza nagusia izango da San Migel parrokian eta gero, prozesioa egingo dute.

## Ospakizuna

ESKORIATZA
**> Herriko hildako mendizaleen aldeko Txikirri-Txikirri VI. Mendi Ibilaldia**

Etzi, domeka, egingo dute proba hori. Izenematea egunean bertan egingo da, 06:00etatik 07:00etara, plazan, eta prezioa 5 euro da. Proba 07:00etan abiatuko da. Informazio gehiagorako deitu 943 71 43 27 telefono zenbakira.

## Musika

ARRASATE
**> Ganbara Txiki abesbatzak emanaldia egingo du**

Oñatiko abesbatza Arrasateko Goikobalu Txikik gonbidatuta izango da Arrasaten.

Gaur, egubakoitza, 19:30ean, San Frantzisko elizan.

ELGETA
**> 'Hauxe' egitasmoa musikari ezagunen eskutik**

Petti, Txuma Murugarren eta Rafa Rueda musikariek hartzen dute parte.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espaloia antzokian.

ARRASATE
**> Vantroi, Sioux eta Des-Kontrol taldeen kontzertua**

3.60 aretoan egingo dute emanaldia. Sarrera, 7 euro da.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan.

BERGARA
**> Disko jartzaileen saioa gaur eta bihar**

Gaur, egubakoitza, DJ Fabelek jarriko du musika eta bihar, zapatua, DJ KRCk.

Ziripot tabernan, 23:00etan.

ARRASATE
**> Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua egingo dute**

Klarinete eta saxofoi ikasleek egingo dute saioa.

Hilaren 13an, eguaztena, 18:30ean, Kulturaten.

## Antzerkia

OÑATI
**> 'Meando fuera del tiesto' antzezlana**

Kunka produkzio etxeak Santa Ana aretoan egingo du emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

OÑATI
**> Txan Magoak emanaldia egingo du**

Laixanek antolatu du mago ezagunaren emanaldia. Sarrerak 3 euro balio du.

Bihar, zapatua, 17:00etan, Santa Anan.

## Erakusketak

ARRASATE
**> 'Cerrajera 101' delako erakusketa ikusgai dago**

Zerrajeraren mendeurrena ospatzeko antolatutako ekitaldi sorta itxiko du.

Hilaren 30era arte, Kulturateko klaustroan.

ELGETA
**> Justina Elexpururen margo erakusketa**

Bergarako margolariaren lanak Espaloian daude ikusgai.

Hilaren 27ra arte.

ARRASATE
**> Xeli Mendizabalen margo erakusketa**

Mendizabalek gaur, egubakoitza, zabalduko du erakusketa.

Ekainaren 24ra arte, Harresi aretoan.

BERGARA
**> Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak ikusgai**

Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak daude ikusgai. Irabazlek gaur jasoko dute saria 20:00etan, Aroztegi aretoan.

Ekainaren 10era arte, Aroztegi aretoan.

## Hitzaldiak

ESKORIATZA
**> 'TAV, aurka egoteko arrazoiak' delako hitzaldia**

Txikili izango da hizlaria. Aste Zapatistaren barruan egingo dute hitzaldi hori.

Gaur, egubakoitza, 19:30ean, kultura etxean.

ARRASATE
**> 'Israeli boikot euskal ekimena' azalduko dute**

Askapenak egingo du aurkezpena. Palestinak jasaten duen jazarpenaren berri emango dute ikus-entzunezkoaren bidez.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, gaztetxean.

ARRASATE
**> 'La dieta inteligente' delako hitzaldia**

Antonio Palomar mediku eta osasun-hezitzailea izango da hizlaria.

Hilaren 12an, 19:00etan, Kulturaten.

BERGARA
**> Bailarako punkaren hastapenen gaineko tertulia**

Gaztetxearen 7. urtemugaren ospakizun ekitaldien barruan izango da hori. Iker Barandiaran kazetariak eta garaiko protagonistek hartuko dute parte.

Hilaren 13an, eguaztena, 19:00etan, gaztetxean.

PROPOSAMENA

ARRASATE
### > Ardo eta Gaztaren Eguna egingo dute

Iaz egin zuten lehenengoz arrasatearrek Ardo eta Gaztaren Eguna, eta, haren erantzuna ikusita, aurten ere jai gastronomiko hori antolatzea erabaki dute. Plazan eta inguruko kaleetan ardoa eta gazta dastatzeko aukera egongo da. 11:00etatik eguerdira bitartean izango da hori. Gero, 18:00etan, irekiko dituzte berriz postuak. Guztira 33 upategik eta 30 gaztagilek hartuko dute parte egun berezi horretan.

Bihar, zapatua, goiz eta arratsaldez erdiguneko kaleetan.

## Ospakizunak

ESKORIATZA
**> Umeendako tailerrak antolatu dituzte**

*Munduari oparia* eta *Ludoteknia* izeneko tailerrak egongo dira. Aste Zapatistaren barruan.

Gaur, egubakoitza, 18:00etan, plazan.

ESKORIATZA
**> Luis Ezeiza herri eskolak jaia ospatuko du**

Ikasleek ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute 10:00etan; 12:00etan, ping-pong txapelketa egongo da eta baita arku tiroketa eta txikienendako jokoak ere. 14:00etan, herri bazkaria egingo dute eta 15:30ean, aparraren festa. 16:00etan, berriz, dantzaldia egongo da.

Bihar, zapatua, eskolako jolaslekuan.

ANTZUOLA
**> Ondarre auzoan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran**

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka izango dira. Bihar egongo dira: 12:00etan, jinkana; 16:00etan, igerilekuak edo jolasak (eguraldiaren arabera); 18:00etan pailazoen emanaldia eta 22:00etan, erromeria. Domekan, Korpuseko prozesioa egingo dute 12:00ak aldera.

Bihar, zapatua eta etzi, domeka.

ESKORIATZA
**> Jai zapatista egingo dute aste monografikoari amaiera emateko**

Etxafuego eta txalapartariekin hasiko da, 12:00etan. 14:30ean, herri bazkaria egingo dute herriko plazan. 19:30ean, Kikee taldearekin perkusioa eta Afrikako dantzak egongo dira Gorosarri plazan. Eguna bukatzeko kontzertua izango da; 22:30ean, Priscila, Bolando boys eta ZTK taldeek jardungo dute, herriko plazan.

Bihar, zapatua.

BERGARA
**> Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosu auzoan**

Bihar, zapatua, hasiko dira. 19:00etan, Laja eta Landakanda trikitilariak omenduko dituzte eta 22:30ean, musika jaialdia egongo da. Domekan, 12:30ean meza nagusia egongo da; 13:00etan, pilota partiduak; 17:00etan, puzgarriak eta 18:00etan, herri kirolak. Astelehenean auzoko hildakoen aldeko meza, 12:30ean.

Bihar hasi eta astelehenera bitartean.

## nire aukera

**Agurne Juldain**
Arrasateko sahararren aldeko Nubi elkarteko kidea

# TAUren partiduak oso gustuko ditu

Zapatu goizean deskantsatuta jaikitzea du gustuko Juldainek. Arratsalde erdira, "Gasteizera joan eta TAUren partidua ikustea oso plan ona da". Gero, zerbait afaltzera joaten dela azaldu du: "Beste herrialde batzuetako sukaldea dastatzea atsegin dut; hortaz, jatetxe japoniarrera, txinatarrera... joaten naiz". Domekan, goizean paseotxo bat eman eta arratsaldean zinemara edo dituen lagun sahararren etxean arratsalde pasa egitea gustatzen zaio.

Aste bukaera ideala ere kontatu digu: "Barikuan hegazkina hartu eta sahararren kanpalekuetan ematea".

**Errefuxiatuen kanpalekuetan dauden sahararrek nola pasatzen dute aste bukaera?**
Astea bezala. Eguen arratsaldea eta bariku osoa dute han jai. Eta familia eta lagunak bisitatzen ematen dute, normalean.

**Aste bukaeretan elkartasunarekin lotutako ekitaldi ugari dago han eta hemen. Nahikoa da hori?**
Zerbait bada. Jendearengara heltzeko modu bat da. Beti dago norbait kontzientzia apur bat hartzen duena.

**Zuk zeuk zer-nolako ekitaldi mota duzu gustukoen?**
TAuren partiduez gain, kontzertuak; gustuko ditudan musikarienak; Ismael Serranorenak, esaterako. Ea noiz ekartzen duten Debagoienera.

**Mendia ala hondartza? Ala biak?**
Hondartza, inongo zalantzarik gabe. Mendia begiratu egiten dut urrutira.

**Zenbat aldiz izan zara errefuxiatuen kanpalekuetan?**
Sei aldiz izan naiz. Hurrengo bisitaldia datorren neguan egingo dut, batik bat bi arrazoirengatik: batetik, udan, ume sahararrek hemen oporraldia igarotzeko kanpaina abiarazten dugulako; bestetik, dagoeneko 40 graduko tenperaturak dituztelako.

# Zinema

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**Piratas del Caribe**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 21:00.
Astelehena: 20:30.

**Gay, lesbiana eta transexual zikloa**
Eguena: 20:30.

Dokumentalak: La ofrenda eta Hotel Gondolin.

Film laburrak: Pasos, Carliños y una super 8; Tres tristres travestis; Soy Raquel eta Amores circulares.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Ocean's 13**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 16:15, 19:30, 22:40.
Domeka: 17:00, 20:00.

**Ocena's 13**
17:30, 20:00, 22:30.

**Half Nelson**
17:00, 19:45, 22:30.

**La segunda noche de bodas**
20:00, 22:30.

**Spiderman 3**
17:00.

**Gritos en el pasillo**
17:00, 20:00, 22:30.

**Las vueltas de la vida**
17:30, 20:00, 22:30.

**Erase una vez... un cuento al reves**
17:00, 18:45.

**La caja**
20:30, 22:35.

**FLORIDA-GURIDI**

**Entre mujeres**
17:30, 20:00, 22:30.

**Enemigos intimos**
17:30. 20:00, 22:30.

**Taxidermia**
17:30, 20:00, 22:30.

**Memorias de Queens**
17:30, 20:00, 22:30.

**El buen hombre**
17:00, 19:45, 22:30..

**Borrachera de poder**
17:00, 19:45, 22:30.

**Zodiac**
18:00, 21:00.

**ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

**Ocean's 13**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Perro al rescate**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**La marca del lobo**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00 (Domekan 22:30ean).

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**
16:00, 18:00, 19:30, 23:00.

**Ellas y ellos**
16:00, 18:15.

**El novio de mi madre**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00 Domekan 22:30ean).

**Spiderman 3**
16:00, 19:00, 23:00 (Domekan 22:30ean).

**El numero 23**
8:15, 20:30, 23:00 (Domekan 22:30ean).

**Descubriendo a los Robinsons**
16:00.

**300**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Ocean's 13**
12:15, 16:30, 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

**Erase una vez... un cuento al reves**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Entre mujeres**
12:15, 16:25, 18:25, 22:25, 22:15, 00:25.

**Enemigos intimos**
20:35, 22:35, 00:35.

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**
16:30, 18:00, 20:00, 21:30, 23:30.

**Zodiac**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:30, 23:40.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:45, 21:45.

**El retorno de los malditos**
12:15, 16:35, 18:35.

**Spiderman 3**
12:15, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 23:30, 23:40.

**Premonition**
20:05, 22:05, 00:05.

**El numero 23**
20:20, 22:20, 00:20.

**La telaraña de Carlota**
12:15, 15:35, 17:35.

**Un puente hacia Terabithia**
12:15, 16:00.

**Tu la letra, yo la musica**
12:15, 16:20, 18:20.

**Azur&Asmar**
12:15, 16:05, 18:05.

**Shooter**
19:35, 22:05, 00:35.

**Seduciendo a un extraño**
19:55, 22:15, 00:25.

**Descubriendo a los Robinsons**
12:15, 15:50, 17:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Ocean's 13**
16:30, 17:00, 19:10, 19:30, 22:00, 22:20, 00:30, 01:00.

**Erase una vez... un cuento al reves**
Egubakoitz eta zapatua: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15.

**Entre mujeres**
16:15, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**
Egubakoitz eta zapatua: 15:50, 19:05, 22:25.
Domeka: 12:00, 17:00, 20:30.

**Zodiac**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:45, 23:00.
Domeka: 12:00, 16:00, 19:05, 22:10.

**El retorno de los malditos**
17:00.

**Spiderman 3**
12:00, 16:30, 19:30, 22:30, 01:00.

**Premonition**
16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

**Cerdos salvajes**
18:10, 20:15, 22:20, 00:30.

**El buen pastor**
Egubakoitz eta zapatua: 19:15, 22:30.
Domeka: 18:30, 22:00.

**Las vacaciones de Mr. Bean**
Egubakoitz eta zapatua: 12:15, 16:10.

**Descubriendo a los Robinsons**
Egubakoitz eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:10, 16:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Cerdos salvajes ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Walt Becker. Aktoreak: Tim Allen, John Travolta, martin Lawrence.
99 min.
Lau lagunek beren eguneroko errutina albo batera laga eta motoan bidaia bat egitea erabakiko dute. Bidean motorzale gaizto batzuekin egingo dute topo.

**Despues de la boda ***
Danimarka-Suedia, 2007. Zuzendaria: Susanne Bier. Aktoreak: Mads Mikkelsen, Rolf Lassgard.
120 min.
Jacobek urteak daramatza Indiako kaleko umeei laguntzen. Egun batean, negozio gizon aberats baten eskaintza jasoko du. lau milioi dolar eskainiko dizkio.

**El infierno ***
Frantzia, 2006. Zuzendaria: Danis Tanovic. Aktoreak: Emmanuelle Beart, Karin Viard, marie Gillian, Guillaume Cenet, Jacques Gamblin.
101 min.
Hiru ahizpak oso modu ezberdinean bizi dituzte haurtzaroan izandako gertaera batzuk. Ama elbarriari egindako bisitak tragedia ilun bat azaleratuko du.

**El numero 23**
AEB, 2007. Zuzendaria: Joel Schumacher. Aktoreak: jim Carrey, Virginia Madsen, Danny Huston.
95 min.
Walter Sparrowk makinaz idatzitako liburu bat aurkituko du. Han bere bizitzarekin eta inguruan duen jendearekin antz handia duen istorio bat aurkituko du, eta amesgaizto baten sartuko da.

**300 ***
AEB, 2004. Zuzendaria: Zack Snyder. Aktoreak: Gerard Butler, Rodrigo Santoro, Lena Headey.
115 min.
V. mendea Kristo aurretik. Pertsiako inperioak errenditzeko eskatu dio Greziako konfederazioari. Atenas eta beste hiri estatuak ez daude ados horrekin. Espartako erregeak persiarrei aurre egitea erabakiko du, 300 soldadu indartsuenekin. Filma Frank Millerren komikian dago oinarritua.

**Tu la letra, yo la musica ****
AEB, 2007. Zuzendaria: Marc Lawrence. Aktoreak: Hugh Grat, Drew Barrymore.
109 min.
Alex Fletcher abeslari ospetsua izan zen 1980ko hamarkadan, baina, egun, besterentzat egiten ditu kantuak. Abesti bat entregatu behar du, baina ezinean dabil. Neska batek landareak zaintzen dizkio, eta hari eskatuko dio laguntza.

**Sunshine ****
AEB, 2007. Zuzendaria: Danny Boyle. Aktoreak: Chris Evans, Cillian Murphy, Rose Byne.
100 min.
Bost urte barru, eguzkia itzali eta gizakia desagertu egingo da. Azkeneko itxaropena espaziuntzi bat bidaltzea da, bertan zortzi gizon eta emakume bat daudela.

**Descubriendo a los Robinsons ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizidunak.
102 min.
Lewisek etorkizunetik datorren mutil misteriotsu bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

**Spiderman 3 ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Sam Raimi. Aktoreak: Tobey Maguire, Kirstan Dunst, James Franco, Thomas Haden Church.
139 min.
Parkerrek oreka aurkitu du Mary Janeren maitasunaren eta superheroi eginbeharren artean. Baina, ekaitz baten ostean, haren trajea aldatu egingo da. Botereak handituko ditu, eta haren alde ilunena azaleratuko da.

**El buen pastor ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Robert de Niro. Aktoreak: Matt Damon, Angelina Jolie, William Hurt, Joe Pesci, Alec Baldwin.
160 min.
Robert Wilson gazte idealista bat da, Margaretekin ezkondu berria. AEBetako Zerbitzu Estrategikoen Agentzian sartuko da, CIAren aurrekoan. Wilson denborarekin gero eta hotzagoa bilakatuko da, eta horrek bere bikote bizitzan eragin kaltegarria izango du.

**¿Quien dice que es facil?**
Argentina-Espainia, 2007. Zuzendaria: Juan Taratuto. Aktoreak: Diego Peretti, Daniel Bebinovich, Andres Pazos.
91 min.
Gizon obsesibo eta bakarti batek apartamentua alokatuko dio haurdun dagoen argazkilari bati. Bien artean harreman berezia sortuko da. *No sos vos, soy yo* filmaren sortzaileena da komedia erromantiko hau.

**El ultimo show**
AEB, 2006. Zuzendaria: Robert Altman. Aktoreak: Meryl Streep, Woody Harrelson, Lily Tomlin.
105 min.
Fitzgerald Theater antzoki zaharra botatzekotan dira, eta han country musikako irratsaio baten azken emanaldia egitekotan dira.

**El velo pintado**
AEB-Txina, 2007. Zuzendaria: John Curran. Aktoreak: Ed Norton, Naomi Watts, Liev Schreiber, Toby Jones.
125 min.
Kitty gazte britainiar bat da. Familia ingurutik ateratzeko, Walter medikuarekin ezkonduko da. Shanghaira joango dira, eta han Kitty AEBetako gizon batekin maiteminduko da. Baina senarra haien arteko harremanaz ohartuko da.

**Seduciendo a un extraño ****
AEB, 2007. Zuzendaria: James Foley. Aktoreak: Bruce Willis, Hale Berry.
109 min.
Nowena Priceren txikitako laguna hil dute eta ez dute hiltzailea aurkitu. Nowena bere kabuz ikertzen hasiko da.

**La faille**
AEB, 2007. Zuzendaria: Gregory Hoblit. Aktoreak: Anthony Hopkins, Ryan Gosling.
110 min.
Distrituko fiskalaren laguntzailea nora ezean dabil, eta txakurraren eta katuaren jokoan sartuko da. Izan ere, haren emaztea hiltzen ahalegindu zen gizona aske geratuko da.

## La soledad ****

**Zuzendaria:** Jaime Rosales.
**Aktoreak:** Sonia Almarcha, Petra Martínez, Nuria Mencía.
Espainia. 2007.
130 min..

Badakit azken asteetan *Piratas del Caribe 3* pantailetako jaun eta jabe izan dela, baina ez da film horretan zinema bukatzen, eta badaude hain beste zarata egiten ez duten oso lan interesgarriak. Horietako bat Jaime Rosalesen *La soledad* da. Ez da film komertziala, beste erritmo eta filmatzeko erako lana da: ez daude kamarako mugimenduak, denak plano finkoak dira; ez dago musikarik; eta errespetu handia erakusten du pertsonaiengana hurbiltzerakoan. Honekin ez zaituztet izutu nahi, kontatzen zaizkigun istorioak eta azaltzen zaizkigun pertsonaiak oso errealak egiten zaizkigu, gertatzen zaien gauzek, erakusten dituzten sentimenduek eta berba egiteko erak naturaltasun handia ematen diote filmari. Distantziatik pertsonaien oso erretratu gertua egiten da.

Rosalesek bi istorio desberdinak kontatzen dizkigu. Alde batetik, seme txiki batekin herritik Madrilera bizitzera doan neska bat, eta ama batek bere hiru alabekin dituen harremanak, bestetik.

Eguneroko istorio horietan oso gertakizun dramatiko batzuk izango dira eta horien bitartez, zuzendariak gizakiok sentitzen dugun bakardadeari buruz eta barneko hutsune sentsazioei buruz ondo baino hobeto hitz egiten digu.

*La soledad* oso lan zuhurra bada, ez da lan konbentzionala; badu irudien erabilera oso originala. Momentu askotan irudiak bi plano desberdinetan zatituta daude, aldi berean bi tokitako -nahiz oso gertuko tokiak izan-, edo bi pertsonaien lehen planoak ikus ditzakegu. Hau dela eta, klasizismoa eta berrikuntza eskutik doaz film eder honetan.

**Antonio Zabala**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-06-08

# Arrasateko morroskoa

**ALBERTO SANCHEZ** 40 urteko arrasatearra laugarren postuan sailkatu da Euskadiko Fitness Txapelketan

**BETERANOA** 19 urterekin hasi zen kulturismoa egiten; hiru orduz entrenatzen da egunero

**EMAITZAK** Villenako (Alacant) txapelketan lehiatu zen lehenbizikoz, maiatzean, eta lehen postua lortu zuen

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Alberto Sanchez arrasatearrak laugarren postua lortu zuen zapatuan, Gernikako Liceo antzokian jokatutako Euskadiko Fitness Txapelketan. 19 urtez kulturismoa egiten daraman arren, aurten lehiatu da lehenbizikoz, lagunek animatuta: Alacanteko Villena hiriko txapelketa eskuratu zuen, maiatzaren 12an, eta Gernikakoa bere bigarren txapelketa izan zen: "Egia esan, nire gorputza erakusteko orduan, lotsatia izan naiz beti. Inoiz ez nuen planteatu lehiatzea; sorpresa izan zen Villenan irabaztea. Nire buruarekin ondo egoteko egiten dut kulturismoa, besterik gabe". Gernikara pisurik onenean iritsi zen: 86 kilo; 1,80 metro garai da. Minutu bateko saio librea *Matrix* filmeko soinu bandarekin egin zuen, eta jarraian, epaimahaiak zehaztutako poseak.

**KIROL SAKRIFIKATUA**

Lanbidez labezaina da eta egunean hiru orduz entrenatzen da Arrasateko Beti-Ona gimnasioan. Ordubetez pisuekin jarduten du eta beste bi orduz ariketa aerobikoa egiten. Goizez zein gauez bizikleta estatikoa egiten du baita. Ariketa fisikoaren besteko garrantzia dauka elikadurak kulturisten kasuan. Gorputzean giharrak besterik ez izateko sekretu bakarra sakrifizioa da: "Bost otordu egiten ditut egunero. Gosaria arina izaten da: oilasko eta arroz pixka bat. Handik hiru ordura jogurt bat, sagar bat eta koiperik gabeko urdaiazpikoa hartzen dut, 100 gramo. Bazkarian arraina, barazkiak eta arroza; arratsaldean oilasko paparra eta sagar bat eta gauean afari arina, arraina gehienetan. Konstantzia beharrezkoa da, astetako lanaren emaitzak ez galtzeko", dio Albertok.

Txapelketarako entrenamenduak eta nerbioak atzean utzita, Turkiara joan da oporretan, astebeterako. Handik bueltan, gimnasiora itzultzeko ordua izango da. Eta udako oporren ostean baliteke beste txapelketaren baten lehiatzea.

**ALBERTO SANCHEZ** Euskadiko Txapelketan laugarren tokian sailkatu da kulturista arrasatearra. JUANMANUELBERRUETA.COM

## ahobero

### "Ordaindutako zigor-gela batera joateko aukera izan nuen, baina uko egin nion gonbidapenari"

**Paris Hilton**
> Aberats famatua

Zelan atsegin duen Paris Hiltonek mundu guztiak hari begira egotea! Orain, kartzelara sartu dute edanda gidatzen harrapatu dutelako, bigarren aldiz . Kartzela zigorrik laburrenaren errekorra gainditukо ote?

## iturri onetik

### Txokolate Azoka eta Iparralde-Oñati elkartrukea irailaren 15ean

Txokolate Azokaren bigarren ekitaldia ospatuko da Oñatin datorren irailaren 15ean. Orain dela bi urte ospatu zuten lehen aldiz, eta, hain zuzen ere, aurrerantzean bi urtean behin ospatzea erabaki dute Klaxk elkartekoek.

Aurtengo ekitaldia Laixanek antolatutako Iparralde-Oñati elkartrukearen barruan kokatzen da. Txokolate jaiaz gain, Iparraldeko ikuskizunak izango dira Oñatin.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Aurrera bolie!

Ez dut indarrik nahiko barrenean ezkor izateko. Neu naizena baino gogorrago behar da izan, gauzak txarrera egingo dutela sinetsi eta, hala ere, buruari tente eusteko.

Ez dut nahi ez ETAk eta ez Mariasantisimak baldintza dezan noiz egongo naizen triste eta noiz alai. Nahikoa lan ematen du egunero zoriontsu samar izateko ahaleginak, gainera kontrolpean ez ditugun aldagaien arabera ondo edo txarto sentitzeko?

Oraingo su-etena ez da azkena izan, baina inoiz baino aurrerago iritsi da, inoiz baino gehiago landu dira konponbiderako tresnak. Hor egongo dira erabilgarri, hurrengo ahalegina datorrenean. Bitartean, ez dut etsiko, egoera normalagoa nahi dut. Eta ez da berez etorriko, ekarri egin beharko dugu. Beraz, aurrera bolie!

## ai, ene!



### Don Mossi: beisboleko jokalaririk zatarrena

Ez dakigu zenbat *home-run* egin zituen bere kirol ibilbidean, baina jokalari zatarrenaren marka ere ez da makala...

http://tinyurl.com/yrpzxb

*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51